

# IPUIN, IZKIRIMIRI ta IRAKURGAI BATZUK BIZKAIERAZ

Otatzua ta Asua taŕ Benito



**ZUZTRAIA TATIK  
ENBOŔA  
ETORTEN DA**

Aldordi:

*Karnele*

**IPUIN,  
IZKIRIMIRI ta IRAKURGAI  
BATZUK  
BIZKAIERAZ**  
**Otatzua ta Asua tañ Benito**

Alderdi Argitaldaria

## IDATZ-AURREA

Sarritan ez-jakintasunak emoten dauan indarragaz, ni bere liburutxu bat idazten ausartu naz. Ni idazle lez ez naz agertuko eusko-kondairan, baiña euskalduna izanik zeozer gure izkuntzagaitik egitea bearrezkoa dala ikusten dot eta zer obeto liburutxu bat edo beste argiratu euskeraz. Beste alde batetik ez dira ikusten idazki larregi bizkaieraz eta ikasle ta euskaldun-barri batzuk euren naigabea agertu dauste arazo onegaitik. Nire guraria ez da besterik talde onei laguntzea euren ikasketatan eta nire bultzakada txiki onegaz ia lortzen ba dogu gure euskerearen bizia apur apurka sendotu, erri onetako biztanle guztiak euskeragin arte.

Garrantsi aundia dauala, uste dot, irakurteak izkuntza bat ikasteko ta liburutxu onen bitartez gura neuke ikasle lagundu irakurtzeko zaletasuna lortzen. Une larrian aurkitzen da ba gure izkuntza, bai, baiña zoritxarrez zati on bat euskaldunen erruz. Geuk baztertu dogu euskerea. Euskaldun asko lotsatuten da euskeraz egiten. Ez, erru osoa ez da gure betiko arerioena, geuk dogu zoor aundi bat gure izkuntzagaz eta orregaitik aurrerantzean erabagi sendo bat artu bear dogu euskeraz une ta toki guztietan egifiz.

Areriogandik onua. Erri zapatzaille batek beste erri bat menperatzeko, bere indaragaz, izkilluakaz, bere kultura ta izkuntza eroaten dau ta ezarriazoten dautsa, baita bere ondasunak ta dirua kenduaz. Argi dago ba gure eginbearra gure aberria azke izatea gura ba dogu. Euske-rea ta gure kulturea gure erriaren azkatasunaren giltzak dira, jagon daiguzan ba bear dan bezela, olan egiten ez ba dogu gure ondorenkoakaitik auzituak izango gara ta epaia ez da izango txalogarria guretzat.

Emen da ba, nik liburutxu onegaz lortu edo lortzea gura dodana. Euskerea azkortu, bizitu erri onetan bizi garan biztanle guztietan. Ezkerrak, irakurle, irakurten au-sartu zaralako.



### **Lotsea bai, dirurik ez**

Egun baten, bere etxetik urtenda, inguruko kaleetatik zear joiala, gizon bat beragaz antzina adizkide zan beste bategaz aurkitu zan eta beragana urreraturik diñotso. Zu adiskide azpalditik 10.000 laurleko daustazuz zor, noiz ordaintzeko ustea dozu?. Zuk, ez daukazu lotsarik. Guzti au guztiz garrats esan eban gure gizonak.

Besteak, arpegi gogorragaz eta bat be gorritu barik, erantzun eutson. Ara, adiskide, lotsea ba daukat, baiña dirurik ez.

### **Bultsia ta erreterea**

Beñola, gizon gazte bat sartu zan denda aundi baten guztiz urduri ta larri. Bultzia artu bear eban, baiña lenago erretera bat erosi bear eban bere seme txikienantzat. Sartu zan, esan dodan lez, dendan eta saltzailleari diñotso. Zu jauna, mezedez emoidazu alik arifien erretera bat, baiña arin, ba da bultzia arrapatu gura dot, eta bera, bultzia, geltokira eltzeko ordua ur dago.

Zu, erantzun eutson saltzailleak, erretera oneik ez dabe arrapatzen bultzirik, saguak baiño.

### **Aita gure bat bakarrik**

Nire auzoko ume txikiena asi da eleizan Kristau-ikasbi-dea ikasten eta egun baten bere amagana negar baten eltzen da. Bere amak olan ikusirik, esan eutson.

Zergaitik zatoz negarrez, Kepa?. Zer jazo jatsu?.

Umeak negarrez jarraitzen dau ta zotinka difotso bere amari.

Abadeak Aita-gure bi otoitzeko agindu dauts eta nik bat bakarrik dakit.

### **Andrazkoak eta meza erazotea**

Ba dakizue andrazkoak, zergaitik ez daben Mezea erazoten?.

Itaundi baiño lenago erantzuten dabelako.

### **Makalloa ta itxasoa**

Umetxu batek bere aitari itaun au egin eutson. Aita, itxasoko ura zergaitik da gazia?. Zergaitik izago da ba, erantzun eutson aitak, barruan makalloak dabilzalako.

### **Etxeko nagusia**

Edantegi baten gizon adiñeko bi egozan alkar-izketan. Bai, emakumeak daukie berbaldunen aomena, baiña gi-

zonezkoak be ondo erabilten dabe miña edantegietan. Nire ipuiñeko gizonatariko batek esan eutson besteari.

Argi dago nire etxean ni nazala agintzen dauana, ni naz nagusia nire etxean. Ara, adibide lez, esango dautsut bart jazo jatana. Afaldu ondoren konturatu nintzan ez egoala ur berorik etxean. Sarata ta oiu aundi batzuk egin ondoren, bost minutu baiño lenago zuzendu neban arazo au.

Ixil-aldi labur bat egin ondoren, gizon onek jarraitu eban. Ezin dot ezelan be tresnarik garbitu ur otsagaz. Zuri ez jatsu jazoten bardin?.

Zergaitik egin dozue irribarretxu ori, emakumeak?.

## **Galiziar amerikatarra**

Ameriketan urte luzeak igaro ondoren, galiziar bat bere errira itzuli zan. Neke aundiz eta lan gogorraren bitartez irabazitako diru batzuk ekarzan. Galizitarrak dirua aurreratzeko gizon bereziak dira, olan irabasikoa ez dabe errez eralgitzen. Galiziar oneri egun baten bururatu jakon Madril aldera ibilaldi bat egitera joatea. Atsedean apur bat artzen eban bitartean, uri aretako antziñako adiskidei ikustaldi bat egin. Madrilleko kale batzuetatik zear joiala, bere erri aldean ezagutuko gizon bategaz aurkitu zan, gitxi gora-bera bere adifñekoa zan eta uri aretan urte asko eroazan. Berotasun aundiaz agurtu ondoren, alkar-izketx mamitsuan asi ziran eta nasaiago jarraitzeko joan ziran edantegi batera.

Luzaro egon ziran berbetan, antziñatik ez ziran ikusten eta gai asko eukezan esateko.

Olako baten Madrilliekoak esan eutson bere lagunari. Ara, ondo ba deritxozu, zuk ekarritako dirukaz lankideak

izango gara. Emen, Madrillen, edantegi bat ipintea egoki izango litzake, diru asko irabazi leike. Ikusten dozu ze notintsa aundia dan. Urte asko barik, aberastuko giñakez.

Ederto, esan eutson galziarrak. Zuk ardao ipiñiko dozu.

Eta zuk?. Itaundu eban Madriltarrak.

Nik ura ipiñiko dot, esan eban galziarrak.

### **Txangolari jakintsua**

Udan txangolari ugari izaten da gure itxasaldeetan. Onetariko bat agertu zan euskaldun erri baten, bero egunak gure mendietan igaroteko asmuz.

Erri txiki guztietan jazoten dan lez, onetan be arin zabaldu zan gizon jakintsu bat kanpotik etorri zala errira. Batzuk egunkarietan irakurrita ekien gizon jakintsua zala, beste batzuk entzutez.

Jai egun baten erri aretako eleiz atarian egozan eleizpean, gizon-andra aldra aundi bat Mezea entzuteko asmuz joanda ta gizon kanpotarra eleizara sartzen asi zanean, gizon onen buruz alkar-izketan ziarduen. Batek esaten eban nondikoa zana, beste batek aberatsa zala ta urrengoak jakintsua zala. Jakituna zala entzutean aldrako gizon baserritar batek esan eban, gizon ori ez da ain jakintsua ta gitxiago be: Erri onetan danok dakigu non dagon "Errekatxo" baserria, ta orrek ez ekian, neuri itaundu eustan lengo egunean eta neuk erakutsi bear neutson non dagon.

## **Bekaltzeak**

Guztitariko tresnak eta janariak saltzen ebazan denda aundi baten, jabeak lelo au erabillan, "bekaldetu gure salzariak eta arrituko zara".

Oso jakingurea zan andra bat sartu zan denda ta nagusiagana urreraturik itaundu eutson. Zein zarigaz bekaldetu bear dodaz?.

Dendako ugazabak arin emon eutson erantsuna, datoren astekoakaz, esanez.

## **Samintasuna**

Nire erriko nezkatilla gazte aurrera-urten bat, ausartu zan ondo ezagutzen ez eban mutil bateri berba egiten eta euren alkar-izketan, maitamenduta itaundu eutson mutillari.

Andragaia eukiko dozu, ez?.

Ez, nik ez dot andragairik, erantzun eutson mutillak.

Ez?, diñotso neskatilleak. Ori da samintasuna, ain mutil ederra, itxura onekoa ta andragai barik.

Gizonak orduan jarraitu eban eta diñotso nezkatileari.

Eskonduta nago.

Au entzunik nezkatileak; guztiz atsekabetuta diñotso.

Ori azko be samifagoa da.

## **Guztitarikoak**

Atsegin aldi bat emotera joan zan bein betan gizon bat bere berebillen Brasilgo Minas Gerais deritxon erritik.

Ibillaldi luze bat egin ondoren gozez aurkitzen zan eta bardin zamar aurkitzen zan bere berebilla be. Ba, naizta oneik berebilla deitu ez dabiltz berez, su-bultzia bear dabe eta orregaitik geratu zan geltoki baten.

Toki beratan be aurkitzen zan andra bat gozoki eta ogi-bitarteko batzuk saltzen. Oneik ez euken itxura lar ona, baiña gizona gozez zan eta itaundu eutson emakumeari.

Zelakoak dira ogi-bitarteko oneik?

Guztitarikoak dira, jauna, erantzun eutson saltzailleak, eta ixil-aldi labur bat ondoren jarraitu eban. Batzuk gaurkoak dira, beste batzuk atzokoak eta besteak areñegunekoak...

## **Lege apurtzea**

Norbaitek lege bat sortzen ba dau, beste batek laster asmauko dau zeozer ari iruzur egitekoa bidea. Antzifekoa da au. Leen olan izan zan, gaur ez. Gaur legea sortzen dauanak, berberak austen dau, berari ondo jatorkon unetan. Baiña goazen arira.

Nire auzokide bat, Txanton eritxona, joan zan bein baten naiko berandu edantegi batera. Sarritan joaten zan edantegietara, baiña oraingoan goizaldean zan. Bultzatu eban atea eta sartu zan. Edantegiko morroi bategana urreratu zan eta esan eutson. Atara eidazu txola bat frantzéz koñaka.

Eziña da. Galazita daukagu ordu onetan edari gogorrik saltzea.

Orduan atara eidazu ur apur bat eta bikarbonatoa edontsi baten, esan eban Txantonek.

Morroia joan zan eskatukoa ataraten, baiña nagusiak kiñu bat egíñez, esan eutson ez atarateko ta bereala diñotso Txantoneri. Urrutizkiñetik deituten deutsue.

Niri?, esan eban Txantonek.

Bai zuri.

Joan zan Txanton tramankulu ori egoan tokira ta... antxe egoan, urrutizkiñaren alboan frantzez txola bat. Txanton arritu zan, baiña orregaitik gozaro egin eban zurrutada eder bat astiro astiro.

Mostradorera itzuli zanean, esan eutson nagusiari. Parkatu jauna, baiña ementxe geratu bear dot, eta meze-dez egon zaitez zain, ba da beste iru dei itxaroten dodaz urrutizkiñetik.

## **Gizon urkatua**

Au beste au, nire errian ez zan jazo, nire erritik ur dagon erri txiki baten baiño.

Errekalde ezazunen lez eritxon gizon batek, naigaberen bat aitzu gurarik, nok ez daukaz naigabeak gaur ludi onetan, bere burua ibaira botatzea erabagi eban. Orretarako joan zan ibaira, zubi ganera igon eban eta buruz-berra plauts egin eban illuntze baten. Antza dagonetik, ez eban aurkitu ura bere gogokoa ta uger urten bear eban uretatik. Bera, bear bada uraren otsagaz bere naigabea arindu jakon, baiña legorrean aurkitu zanean barriro bota eban bere burua uretara, baiña oraingoan bé ez zan ito. Ikusirik era onek bere gurarirako azken onik ez eutsola emoten, lokarri bat artu eban zaman lotu ta joan zan barriro zubi ganera. Orduan bai, dindilizka zubitik geratu zan bizi barik.



Urrengo goizean barri au errian arin zabaldu zan. Gizon bat zubian urkatuta aurkitu ebela.

Oitura dan lez, agintariak eldu ziran, jaso eben urkatua ta asi ziran aztarketak egiten ta autorgille billa, jazoki izugarri ori zelan izan jakiteko edo azaltzeko.

Maurixio auzokideak zubi inguruan notintsa pilloturik ikustean, itaundu eban zer jazoten zan.

Errekalde zubian urkatuta aurkitu ebela entzun eban, berak erantzun eutsen erritarrai. Bai, zubian ikusi neban Errekalde lotura batetik eskegite.

Orduan epailleak guztiz arrituta esan eutson. Baiña zelan, eskegite ikusi zendula diñozu ta zelan ez zara etorri jazoki ori emoten?.

Mela-mela zubi ganean ikusi neban, esan eban Maurixio, ta... lagortzeko ezarri zala uste neban.

### **Gizon zintzo bat**

Nire erritar Joseba ez ebillen diruaz guztiz ondo, antza zanetik. Ordainketa batzuk egin bear ebazan eta ez eukan diru guztia. Bere auzokide ta dendalari zan Martiñegana diru eske joatea erabagi eban eta esan eutson. Ara Martin, diru apur baten bearzanean nago, eun milla laurleko bear dodaz ille onetan, mezedez itxi al ba daustazuz epe laburrean ordainduko dautsudaz.

Emongo neuzkizuz ogei milla laurleko orreik, esan eban Martiñek, eta pozik emon be, gero atzera emotekotan, baiña ze ziurtasun daukat orretarako?.

Gizon baten itza, berbea, esan eutson eskailleak. Gizon zintzo baten itza.

Ondo dago, esan eban Martiñek, ekarri eidazu, ba,

lenengo gizon zintzo ori ta gero emongo dautsudaz ogei milla laurlekoak.

Diru-etxeak be ori egiten dabe.

### **Irugarreneko alarguna**

Auzune baten emakume bi soiñekoak legortzeko eskegiten egozan. Euren leioetatik alkar-izketa mamitsuan egon be. Au ez da arritzekoa, egunero ta edozein etxean jazoten da au. Berako maillan bizi zan atsoaren buruz zan euren berbatea, ta batek esaten eutson besteari.

Au beko atso gizajea be orain...

Nor? Katalin, irugarreneko alarguna? diñotso besteak.  
„Zar jazo jako, ba?.

Ezkondu jakoz alaba biak eta nora joango ete da orain bizitzen?. Oraingoz iñora be ez, baiña tamala emoten daust, iñoa eurretario batek.

Zer ba, gaixorik dago ala?, jarraitu eban besteak.

Ez, orregaitik ez. Lengo baten egon nintzan luzaro beragaz izketan eta bertan geratu bearko dauala uste dot.

Bai? Zergaitik?.

Ba, ba dakizu, suiñak Eibar ta Balmasedakoak dira, eta erri orreitara ezkondu jakoz ala biak.

Bai, ta zer?. Ba dauka orduan nora joan.

Orixegaitik bere ñaigabea sortu jako.

Eibarrera ala Balmasedara, nora joan ez jakiñik dago-lako?.

Ez, ez, Katalin bera, ba dakizu on bat da, gertu dago batera zein bestera joateko, baiña suiñak dabilta eztaba-

daika. Batak bere amagiñerrabea Balmasedara joan daite-  
la gura dau, ta besteak Eibarrera.

Asko maite dabe suiñak amagiñerraba ori, jarraitu  
eban andratariko batek.

Maite? Bai zera... Eibarkoak Balmasedara- joan daitela  
gura dau, ta Balmasedakoak Eibarrera.

## **Uts ikaragarria**

Kale ertz batetik niñoala Agurtzane nire adiskideagaz  
aurkitu nintzan eta ikusi neban guztiz urduri ta larri eto-  
rrela.

Izugarrizko uts bat gaur euki dot, esan eustan, antzi-  
ñatik ikusten ez neban adiskide, lekaime-etxean ikaslekide  
izeneko bategaz aurkitu naz erosketatan nenbiltzala ta  
guztiz alai ta maitasun aundienagaz agurtu ondoren, bere  
zendiagaitik itaundu dautsot. Ba nekian ezkondu zana,  
baiña ez nekian bere gizona il zala joan dan astean eta  
beragaitik be itaundu dautsot.

Joan da, erantsun eustan, beste barik. Nik uste neban  
erritik kanpora, atserrira, lantegiko bearzen anbatagaitik  
joango zala, ta jarraitu dautsot esanez.

Una onetan ebagi neutson nire adiskideari bere izketa  
ta esan neutson, Ez zeuntson esango, onetik gaizkatu da.

Ez, ori baiño askoz txarragoa esan deutsot, zergaitik  
ez zara joan beragaz?.

Olan ez da, Agurtzane. Nire gizona joan dan astean il  
zan.

Une aretan satorra biurtzea gura neban, esan eustan  
Agurtzanek, lurpean sartzeko.

## **Nor jakitunago**

Gregory Bateson Antropolo dan gizon ospetsuak, onelan edestuten dau ume txiki baten gertaldi bat. Bein baten umetxu onek itaundu eutson bere aitari. Gurasoak beti dakie umetxuak baiño geiago?.

Bai, erantsun eutson bere aitak.

Nok ikertu eban lurrunezko tramankullua?. Itaundu eban umetxuak.

James Wattek, erantzun eban aitak.

Eta orduan, zergaitik ez eban ikertu James Watten aitak?.

## **Jatsiten itxi ez**

Jazoki barregarria nire adiskide Koldori joan dan astean jazorikoa.

Berak gura ez arren urtetan doan emakume bat faun baten sartzen da ta zutunik doa beste gizon-andra asko lez. Geltoki batera bere alboko mutil gazte bat jagiten da faunetik urteteko asmuz, baiña une orretan emakumeak sorbaldetik bera bultza egiñez ez dautso itxiten eta jazar-teko diñotso, bera zutunik be joan leitekela ta.

Aurrerago barriz zutitzera egiten dau Koldok eta emakumeak ez dautso itxiten, barriri bultz egiñez berantz, ain zar itxura ete dan kezkatu gogoratuaz. Andik laster bardin gertatzen da, Koldok faunetik jatsi gura ta emakumeak ez itxi. Azkenean mutillak asarraturik diñotso, ondo dago itxiko daustazu faunetik urteten?. Zure erruz, jatsi bear neban lekutik urrun nago, iru geltoki aurrerago aurkitzen naz.

## **Azken guraria**

Errotabarriko Endika, gaixorik guztiz txarto aurkitzen da, il zorian dago ta bera oartzen da bere egunak zenbata dagozala, bere bizia ba doakola. Bere olako argitasun baten, bere alboan dagoan semeari diñotso. Sagar erre uzaiña datorkit sukaldetik, eta esaiozu, seme, amatxori, azken gurari lez, sagar-gozoki orretatik satitxu bat jatea gura dodala ta mezedez ekarri daistela apur bat.

Mutilla joan zan sukaldera aitaren agindua betetzera ta esan eutson bere amari aitaren guraria. Mutilla itzuli zan aitagana ta esan eutson amaren erantzuna. Amatxuk ezetz esan daust. Egin daun gozoki ori illeta ondorenerako dala ta orain ez doala asten.

## **Andrea galdu**

Beste zendi baten jazoki izugarri bat jazo zan. Etxeko andrea bere etxetik aldendu zan edo igez egin eban, ez dakigu nora ez zergaitik. Olako jazoeratan egin bear dan lez, bere gizona komisariara joan zan bere andrearen ezagertzea zalatzen. Ertzaiñak egin eutsozan itaunketa batzuk eta oneitarako bat au izan zan, noiztik ez dago zure etxean zure andrea?.

Ogei egun eta gaur arte ez zara etorri zalantza emoten?, esan eutson ertzaiñak.

Ez ba, ez nintzan ausartzen. Beste alde batetik, beti izan naz ain zoritxarrekoa bizitza onetan eta uste neban agertuko zala.

## **Baimena**

Olako gauzak edo antzekoak sarritan jazoten dira lan-tegietan. Beñola lantegi bateko mutil gazte bat, bertako langillea, bere nagusiagana joan zan, arratsaldean lanera ez etorteko baimena ezkatzen. Gaur arratsaldean jaia artzeko beimena ezke natorkizu, osaba baten illetak daukadaz ta.

Nagusiak eskabidea zuzena zala ikusirik, baietza emon eutson.

Arratsaldean uri aretan garrantzi aundiko ostikoketa edo futbola deritxon saio bate egoan, eta nagusia oitura eukan lez, saoi ori ikustera joan zan, eta ara non, aurkitzen daun baimena ezkatu eutson langillea. Aurkitze au aurrez-aurre izan zan eta langilleak ez eban euki beste urten biderik arpegia emotea baiño. Itz egin bear eutson nagusiar ta onek une baten olan diñotso, ez zeustan esan ba, zure osabearen illetara joan bear zendula?.

Langilleak arpegia bat be gorritu barik erantzun eutson. Bai, eta egia da jauna. Orixegiten asi naz jauna, baiña ondiño apur bat itxaron bear dot, osabea ondiño ez jat il. Argitasun zeatzago bat emotearren, jarraitu eban, nire osabea or dabillen "arbitro" ori da.

## **Auterketak ondo**

Gurasoak arduretsu ta larri egoten dira Ekaiña eltzen danean, ikastaroaren amaitzea eltzean.

Onetariko aita batek bere semeari itaundu eutson, ikastetxetik azterketak egin ondoren etxera eldu zanean.

Seme, azterketak ondo?.

Bai aita, erantzun eutson semeak, irakasle danak gura dabe barriz egin daiazan.

## **Erartzuna**

Nire adiskide Txomin, guztiz artega egoan aldizkari baten irakurri ebanagaitik eta lengo arratsaldean nigaz berbetan asi zanean itaundu eustan.

Zu Joshe, lengo egun baten irakurri neban izparringi baten, Izaroko ugartean txori aundi bat aurkitu ebela bere anka baten eratzun bat eroiala. Orduñan be beste bat, au txikiagoa, baiña eratzunagaz eta neure buruari itaunka nago, zertarako ipinten ete dautseezan eratzun orreik?.

Ori erreza da jakitea Joshe, esan neutson. Nondik nora dabilzan jakiteko. Zeuri zertarako uste dozu ipifi eutsuela ezkondu ziñanean atzamarren daroazun eratzun ori, ba?. Orrexetarako, nondik nora zabilzan jakin daian zure andreak.

## **Udatiarra**

Bein baten Lekeitiora eldu zan udatiar bat, alemana bera, erri osasuntsua ba da jakiteko. Erderaz "estadística" deritxon bat egiteko asmuz.

Asi zan Lekeitiotarrei itaunka. Batzuk erantzuten eutsoen berak gura eban erara, baiña aurkitu zan Lekeitiotar tolesgabe bategaz eta oneri be itaun bardiña egin eutson. Sarritan ilten dira erri onetan bertako notifiak? esan eban deustarrak.

Ara, esan eutson Lekeitiotarrak, ez Jauna, emen bein bakarrik ilten dira.



## **Irudigillea**

Ara emen zer jazo jakon nire erriko nezkatilla polit ta gazte bateri. Mutil gazte bategaz guztiz maitamenduta egoan, baiña mutillak ez eutson egiten jaramonik eta orregaitik egoan guztiz artega ta ezin jakifirik zer egin aren maitasuna lortzeko.

Onetariko unetarako, jakiña da, Andoni Deuna dala Deunen artean bitarteko egokiena ta berari ezkatu eutson nezkatilla onek, mutil a zenartzat. Asmo orregaz Deun onen irudi bat erosi ta ekarri eban bere etxera. Ezkariak ta otoitzak biotz-biotzez egiten eutsozan, baiña guztia alpe-rrik, mutillak ez ebazan ipinten begiak nezkatilla onetan. Azkenean azpeltu zan nezkatilla au ta asarraturik Andoni Deunagaz bere irudi ederra bere indarrik aundienagaz leiotik kalera jaurti eban. Eta ara non, lenengo izan zan gertaera txarra, ba da, irudi orregaz buruan jo eban leio-pekik joian mutil gazte bat, bere mutil maitea zan. Nezkati-ilea, zelan ez, gorri gorri, larri ta estu aurkitzen zan, bein ta barriro parkamena ezkatzen mutillari. Oneik lagundu gurean esan eutson, ez zaitez ainbeste estutu, irudigillea naz ta neure lantegian konponduko dot irudia ta zeure etxera aste onetan eroango dautsut.

Olan egin eban mutillak eta alkar ezagutu ziran eta baita andik laster ezkondu be maitasunik aundienagaz. Azken polita ez, pelikulatakoa.

## **Gauzak ez aitzu**

Nire loba Joseba, ikastolan dabil. Baiña azkarragoa da, nire ustez, jolasten ikasten baiño.

Egun baten bere etxean agertu zan negarrez eta bere aitak olak ikusirik esan eutson.

Josebatxu, zer jazoten jatsu?. Zergaitik zatoz negarrez ikastolatik?.

Irakasleak zigortu nau, erantzun eutson semeak, Brasil non dagon jakin ez dodalako.

Ederto egiña, jarraitu eban aitak, urrengoan ez aitzu non itxiten dozuzan gauzak.

### **Nik ez dot bear asko**

Azkenengo urte oneitan langabetasuna ugari da, gazte ta ez ain gazte asko dago lan barik, ez bakarrik gure errian, baita be ludi osoan.

Arazo onen buruz barre egiteko zerbait idaztea, guztiz egokia ez da izango, baiña parkatuko daustazue. Gosea barrez ohea izango da, negarrez baiño. Baiña goazen arira.

Gazte bat, lantegirik lantegi ebillen lantoki baten billa berantzat, ta oneitariko baten bertako nagusiari bere guraria agertu ondoren, erantsun au entzun eban.

Tamala dot, baiña orain lan gitxi daukat. Lantegian lan gitxi daukagu.

Ez larritu orregaitik, diñotso gazteak, nik ez dot bear azko.

### **Gangster baten semea**

Au Chikagon jazo zan. Gangster baten semea bere ikastetxean azterketak egin ondoren, guztiz pozik etorren bere etxerantz.

Bere aitak ain pozik ikusirik, bera be pozturik, diñotso. Seme, zelan azterketak?.

Ederto aita, ondo baiño obeto aita, erantzun eutson semeak, ikusi ba ninduzun, arro arro egongo zintzakez. Ondo ikasi dodaz zure irakatsiak.

Baiña, esan eidazu ba, guztiz larri nago jakin gurarik, zelan egin dozuzan, iñoan aitak.

Begira, ordu bete baiño geiago euki dodaz maiakoak itaunka ta nigandik ez dabe atara ezer be.

### **Sei laurlekoak**

Nire auzuneko Txomintxu, mutiko koskorra, oso ona dator itxuraz. Azko ikasten dau ikastetxean, amari esanak egiten dautsoz eta bere aita-amak poz-pozik dagoz bera-gaz.

Gaur goizean laurleko bi ezkatu dautsoz bere amari, ta onek guztiz arrituta esan dautso.

Non daukazuz ba, atzo emon neutzuzan sei laurlekoak?.

Gizon beartsu bateri emon neutsozan atzo, esan eban mutillak.

Ederto mutil, ederto, olan jarraitu. Lagundu ta egin merede lagun-urkoari. Baiña zergaitik emon zeuntsozan gizon orreri laurlekoak, esan eutson amak.

Gozokiak kalean saltzen ebillelako, esan eban semeak.

### **Txokolatea**

Bein baten, mutil gazte ergeltxu batek iñotson bere adiskideari. Guztiz makal aurkitzen naz, indargabe. Ezer

egiteko gogo barik eta au jazoten jat une onetan, liburu eder bat idazteko asmuz nengoanean.

Zergaitik ez dozu artzen txokolatea? esan eutson bere adiskideak. Guztiz ona da, indartuko zaitu. Nire auzuneko Josebak artu eban, eta ondo joakion.

Joseba idazalea da?. Zein liburu idatzi dau ba?. Nik ez nekian idazlea danik, diño gazteak.

Idazlea ez da, baiña auzunekoak diñoenetik, ludi onetako andrategi onetariko bat dauka.

Andik ille batzuetara, barriro aurkitu ziran adiskide biak. Gazte ergelak berotasunik aundienagaz ezkeru eban bere adiskidea, esanez. Ez dot aurkitzen itzik txokolateak egin daustan ona azaltzeko. Barriro be milla ezker.

Orduan, besteak diñotso, azkenean idatzi zenduan zeure buruan zeukan liburu a? Ez?.

Idatzi, bai zera... esan eban gazte ergelak, nok dauka astia idazteko ainbeste nezkatilla polit eta ederren artean.

## **Aize-Atondua**

Urteetan ondo sartuta dagon emakume bat egoan bazkaltzen jantetxe baten eta otsaiñari ezkatu eutson aize-atondua berotxuago ipifi egiala, ba da, gela aretan otsegi egoala.

Otsaiña joan zan emakume aren naia betetzen, baiña andik laster, barriro deitu eutson emakume onek morroiari, oraingoan aize-gallua otsago ipinteko esanez. Onela ebillen gure emakumea jaten egon zan bitarte guztian. Batzuetan gorago ipinteko ta beste batzuetan beratzeko.

Alboko mai baten egoan gizon batek, morroiari lan aundia emoten eutsola emakume onek bere ezkakizuna-

kaz ikusirik, otsaiñari esan eutson. Zoratuko zaitu emakume orrek, ain beste gora ta bera tramankulu orreri eragiñez.

Bai zera, ez, neuk bai zoratuko dot bera. Guk ez daukagu gela onetan aize-atondurik, esan eban morroiak.

## **Diru-zaiña**

Nire erriko andra-gizon bi, egun baten joan ziran uri batera erosketa batzuk egiteko asmuz. Jakiña, erosketak andrearentzat ziran, koitedeak zer ipiñi ez eukan eta. Guztitariko gauzak saltzen dabezan denda baten sartu ziran. Ikustaldi luze bat egin ondoren agertoki guztietan, jantsi ta beste soiñeko batzuk erosi ebezan eta joan ziran kutxara ordaintzeko asmuz.

Diru-zaia, emakume gazte ta polit bat zan, baita ederra eta erakarria. Gizonak diru-txartel bat emon eutson ordaintzeko diru-zaiari. Emakumea txartelaren zenbakia artzeko apur bat makurtu zan, eta orduan obeto argiratu ziran bere bular mamitsuak, eta jakiña, ez dago esan bearrik gizonaren begiak non ipinta egozan.

Bere andrea be konturatu zan jazoera onegaz eta bat be larritu barik bere gizonari geldiro geldiro esan eutson, begiratu eizuz gura dozuzan lez, baiña ukutiterik ez itxaron.

## **Gizon begikoak**

Txinatar mutil gazte bat Estados Unidosetik ibillaldi bat egin ondoren, itzuli zan bere errira ta bere adiskidei esaten eutsen Ipameriketarrak zein begiko ta gizon guztiz onak ziran, adiskidetasun aundikoak. Ara esaten eu-

tsen, ango uri aundietako kaletatik ibiltzan aurkitzen ba zara bertako biztanle batez, maitasun irribarre batez agurtzen zaitu, itz egiten dautsu naiz ta ezezaguna izan, gero gura ba dozu beragaz berebillen eroaten zaitu, gabean opatzen dautsu afari eder bat eta bere egoitzara eroaten zaitu gaba beragaz igaroteko.

Zorion guztiz ona euki zenuan, ikusten dodanetik, esan eutson adiskide batek.

Ez, ni ez nintzan izan, esan eban mutillak, nire arreba gazteena izan zan.

## **Errusiako Nagusia**

Esaten dabe, ez dakit egia danik, zelan bein baten Leonid Brezhnev, Errusiako Nagusiak, ibillaldi bat egiten eroan ebela bere ama. Lenengo erakutsi eutson Moskun eukan egoitza lilluragarria, ondoren joan ziran berebillen, bere gidariak eroala Usovo alboan eukan "Dacha'ra", ez dakit zer dan, baiña ez da izango ez atxurra edo kakoa, beranduago Brezhnevek elicoptero bat etorriazo eban bere eiza tokira eroateko.

Egun oso osoan egon zan bere ama zaartxua ixil ixilik, barbarik egin barik, baiña ikusten zan nekarazle egoala. Azkenean, areto jan-toki aundi baten afaltzen egozala, bere semeak itaundu eutson.

Esan eidazu ama, zer deritxozu guzti oneri?.

Bai, bai... guztia ondo dago, Leonid semetxu, erantzun eutson bere amak, ixilaldi labur bat egin ondoren, baiña zer jazoko da gorriak itzultzen ba dira?.

## **Ezkontza bakana**

Nire errian irurogeita ama bost urteko gizon bat ezkondu zan, ogeita bost urteko nezkatilla gazte bategaz. Olako gauza bakanak jazoten dira nozean bein. Oitura dan lez urruneko uri aundi batera joan ziran euren ezti-al-dia igaroten. Arroztetxe bikain baten ezarri ziran.

Goiz baten gizona bizarra kentzen egoan bitartean, nezkatileak urten eban akeit bat artzeko asmuz gelatik kanpora.

Etxe aretako nezkame batek ikusirik andra gaztea albo alboka joiala, arrituta itaundu eutson. Zer jazoten jatzu?

Ara emen nezkatilla gazte ezkon-barri bat, esan eutson emakumeak, gizon naiko zaar bategaz ezkondata dagona ta indargabetua neu naz eta ez bera. Atzipetu nau, jarraitu eban andreak. Esaten eustan nire senarrak irurogei urtean aurreratzen egon zala... eta ori esaten eustanean, nik uste neban dirua zala aurreratzen ebana.

## **Bultziko txartela**

Egunero edo sarritan bultzian joaten dan gizon bat, asi zan bere txartelaren billa bultziko aztertzailea agertu zanean. Asieran guztiz nasai, gero apur bat larriago ta azkenean guztiz urduri, soifeko guztiaren zakelak arakatzen.

Bere alboan joian iragalleak ikusi ebanean zelan agiñekaz estututa eroala txartela asi zan barreka. Orduan eldu zan aztertzailea ta agotik txartela kendurik zulotu eutson eta barriro ipifñi eutson bere espanen bitartean.

Beragaz errukiturik eta lagundu gurean, alboko jezarlekuan joian gazte batek esa eutson gizon oneri, lotsatuta



geratuko ziñan konturatu zaranean non zeukan txartela, ez?.

Bai zera, erantzun eutson, ez, agiñekaz txartelaren eguna ezabatzen nengoan. Aurrerako egunekoa da txartela.

## **Emakume errukigarria**

Benetan jazoten dira gauza arrigarriak ludi onetan. Ara zer jazo jakon nire ezagun bateri. Gizajoa lan barik zan. Egoera larria lanbage dagozanena.

Nire ugasabak kalean itxi nau, esan eustan, diru barik nago ta lana bear dot eta arin.

Nik lagundu gurean eta zeozer esateagaitik iñotson. Zelako lana egin zenduan azkenengo egon ziñan lekuan?.

Ara ba, esan eustan, otsein lez egon nintzan eta lurra landu, abereak zaindu, jaten emon, beiak eratsi, egurra ekarri, ortu ta soloak zaindu, baserriko lanak.

Eta zergaitik bota zaitu zure nagusiak ba?, itaundu neutson.

Nagusia ezkondu zen eta esan eustan ez ninduala bear, esan eustan guztiz saminduta.

Emakume errukigarria ezkonbarri a.

## **Gerrestua**

Oxforko Ikastetxe Nagusian ikasten egoan mutil gazte batek, bere aita-amari dirua eskatu eutsen gerrestu bat erosteko, ba da, Negua etorren eta alde a naiko otsa ta euritsua da.

Andik laster ikasleak diru-txartel bat artu eban, gerrestu bat baiño geiago erosteko erakoa.

Dirua zakelean sarturik, ikasleak bere adiskideakaz urten eban jolasten eta eurakas jokoan, pokerrean, diru guztia galdu eban.

Barrero be, gurasoei dirua eskatu eutsen, oraingoan osaki batzuk erosteko, gaixoerik edo apur bat makal egoalako. Aita-amak eskutitz bat bialdu eutsoen esanez, bialtzen eutsoela baiña zer esan barik.

Egun gitxi barruan, ikasleak bere gurasoakandik lotura aundi bat artu eban. Gerreztua zan.

### **Txori-barritsua**

Ikastetxe aundi bateko nezkatala gazte gelakide bik, ain azpertzuta astia igaro eztearren, txori-barritsu bat erosi eben eta guztiz pozik egozan beragaz. Berbetan irakatsi gura eutsoen. Bein banan ebiltzan txoriari esaten, Ola maitetxu gura dozu mozu bat?. Olan egunero ta ordu luzeetan.

Zeregin onetan egozan egun baten euren txoriagaz, ikusi eben zelan atepetik ingi bat norbaitek sartzan ebala. Artu eben ingia, idatzi au eukan. Ez dakigu nogaz zagozan, baiña ez dozu ikusten ez zaitula maite orrek?.

### **Laguntza ederra**

Nire osaba batek lantegi bat dauka. Egun baten langille baten billa ebillen lantegian luzaro baztar guztiak arakatzen eta ez eban aurkitzen. Azkenean oiuka deitu eutsen.

Jon non zagoz?, esaten eban nire osabeak.

Azkenean entzun eutson Jonek eta erantzun. Emen jauna, emen goian.

Eta ze arraio egiten dozu or goian, oiuka esan eutson nire osabeak.

Kepari laguntzen nago, oraintxe jatsiko naz, diño langilleak.

Eta Kepak zer egiten dau?, jarraitzen dau nire osabeak.

Ezer ez, jauna.

Era polita lantegia aurrera eroateko.

## **Olle margodunak**

Gaixotuta egoan gizon bat joan zan bein baten Osagilleagana. Bai egia, gaixoak joaten dira olako notifikana, gizon zendoak ez.

Osagilleak gaixoaren soin osoa arakatu ondoren esan euston. Olle oneik urdaillarako dira, Olle gorri oneik, orlegi oneik gibelerako ta zuri oneik biotzerako. Ulertu dozu ondo?.

Bai jauna, guztiz ondo, esan eban gaixoak. Orain itxaroten dot eurak, olleak, jakingo dabela nora joan nire barnera doazanean.

## **Eri-berebilla**

Au be gaixoen artekoa da. Andra-gizon bi Osagille bategana joan ziran, andrea gaixorik egoalako.

Osagilleak gaixoa ondo arakatu eban eta gizonari agindu eutson eri-berebil bateri deitu egiala bere emaztea osaetxe batera eroateko. Jatsi ziran kalera andra-gizonok.

Andik laster osaetxeko langille batek deitu eutson Osagilleari, esanez eri-berebilla gizonagaz bakarrik eldu zala.

Osagilleak guztiz arriturik, urrutizkiñetik berba egin eban eta itaundu eutson zer jazo zan andreagaz, bera bakarrik an agertzeko.

Ara, esan eutson gizonak, eztabaida aundi bat euki dogu kalean bion artean eta azkenean, berak, andreak, faunean etortzea osaetxera erabagi dau.

### **Irakasle zuurra**

Nire erriko irakasle batek, adifñekoa bera, arau polita eukan bere ikasleen jakintasuna, ikastaroko ikertzallearen aurrean argitzera emoteko.

Itaun bat egiten eban bakoitzean, ikasle danak goratzen eben eskua. Eskumakoa goratzen eben itauna ekienak eta ezkerrekoa ez ekienak. Onelan ifioiz ez eutsen egiten itaunik ez ekian ikasle bateri be.

### **Lorik ezin egin**

Beiñola guztiz artega aurkitzen zan ogean lo egin ezifñik gau baten Londresko gizon bat, urrengo egunean 50.000 laurleko ordaindu bear ebazalako. An ebillen ogean lotu ezifñik, biraka bein batera bein bestera, baiña alperrik. Ezin eban lorik egin.

Onelako baten bururatu jakon asmakizun bat, jagi zan ogetik eta urrutizkiña egoan lekura urreratu zan, traman-kulu au artu eban eta diru artu bear eban gizonari deitzen asi zan. Ariaren beste aldetik abots bat entzun zan eta onelan iñoan. Zer jazoten jatsu sasoi onetan niri deitze-ko?. Ba dakizu ze ordu dan?. Gaba erdia da ta izartu nozu.

Guzti ori ba dakit, jarraitu eban zordunak, eta zuk ez dakizu biar nire zorra ordaindu bear neutsula?. Orrexe-gaitik deitu dautsut. Biar ezifekoa dot zor ori ondaintzea, ba da diru barik une onetan aurkitzen naz, alegin guztiak egin dodaz, baiña dirua ezin izan dot batu, parkatu, aurreko egun baten egongo naz zugaz, gabon. Au esanez ogeratu zan, baiña orain guztiz nasai. Au da astuntasuna nire lepotik kendu dodana, orain bera izango da lorik egingo ez dabena, esan eban berantzat gizon onek eta egun-senti arte ederto egin eban lo.

## **Ezkondu ezkeru ez ain ur**

Ogeita amar bat urte inguruko nezkatilla arpegi illun bat sartu zan akeitetxe batera, au ez da arritzekoa, gaur egun onelako tokietara andrazkoak gizonetzkoak beste sartzan dira. Nik ez dot esan gura au txarto dagonik. Jarri zan mai baten, egin eban bere eskakisuna ta errekin bat biztu eban.

Andik laster bere adin antzeko gizon bat sartu zan eta ikusiaz ez egoala gela aretan miarik utsik, baimena eskatu ondoren jarrizan mai beratan eta garagardao bat eskatu eban. Aurrez aurre egozan baiña alkarrerri begiratu be egin barik eta gitxiago alkarizketarik. Luzarotxu egonda gero, mutillak morroiari zenbatza eskatu eutson eta onek, senar-emazteak ziralakoan, mutillari bien zenbatza emon

Seme, guk ez dogu bear atxurrik, eroan artu dozun lekura, orrek bere jabea eukiko dau, ta aurrerantzean nire aurrera ez ekarri olako tresnarik, oilloa ta untiak bai, baiña atxurrik ez. Entzun dozu.

## **Sermoia**

Nire adiskide Mikel, bere lagunakaz luzaro txantxetan egon ondoren, edantegi bat zan euren une orretako egoitza, joian bere etxerantz eta aurkitu zan beste bere eza-gun bategaz, eta onek itaundu eutson.

Kaixo Mikel, nora zoaz gau erdian ain alai?.

Sermoira, itzaldira, erantzun eutson Mikelek.

Ordu onetan?. Non eta nok egiten dau itz ordu onetan, ba?. Gaur erdian? diñotso lagunak.

Neure emazteak gure etxeko ezkaratzean, esan eban Mikelek.

## **Lau erratoi**

Beñola mozkorti bat guztiz larri egoan amesetan lau erratoi ikusi ebazalako. Bata itsua izan da, beste bat plast egiteko ain gizena ta beste biak jostorrotzan antzekoak, estu ta meak. Esan al daustazu ameseta orrek, arratoi orreik zer gura daben adierazo?. Esan eutson andreari.

Emazteak ez ekian zer esan eta euren semea argia dala ta, deitu eutsoen.

Mutikoak bere aitari amesetea entzun orduko, esan eutson.

Ara aita, ori argi dago, arratoi argal bi orreik, ama ta

ni gara, zu zara ostera arratoi itsua, ta plast-egiteko dagon arratoi gizena, auzoko ardao saltzaillea da.

## **Txominen txapela**

Kale ertz baten buru-utsik dago nire auzokide Txomin, aizete aundi batek txapela eroan dautsolako. Une aretan beragaz aurkitzen da adiskide bat eta olan ikusirik diñotso. Zer egiten dozu or Txomin?.

Ara, aizeak txapela eroan dauts, esan eban Txomiñek, eta bestearen bat jabe bakoa noiz ekarriko daun aizeak emen nago zain.

## **Noizko ordua?**

Errotazarreko Erramonek gau baten naiko txolinduta urteten dau edantegi batetik bere etxerantz joateko ta bere auzuneko ezezagun bategaz aurkitzen da, ta itaunduten dautso. Jauna ezango daustazu ze ordu dan?.

Amaika ta erdiak, esan eutson bere auzokideak.

Erramonek, apur bat gelditurik, izterrak zabal-zabal eginda ta gogoratu ondoren, esan eutson, parkatu, baiña gaurkoak ala biarikoak dira?.

## **Besarkadea**

Beste egun ta gaba askotan lez, Pantxike ta Ander urrutikuskiñen pelicula bat ikusten egozan, eta emazteak senarrari iñotson. Begira Txomin zelako besarkadak emoten dautsozan mutillak nezkatileari, zergaitik ez daustazuz emoten zuk be, olako besarkada batzuk?.



## **Ordularia**

Gizon bat edantegitik urtenda joian bere etxerantz naiko berandu, bai, gabean berandu baiña goizean goizetik, bere zakela matsaren uragaz betetuta. Erriko eleiz ondotik igarotean ordu biak entzuten dauz.

Ordulari ori txarto dabil, esan eban gizonak, bi bider ordu batak jo dauz.

Ordulari ona egoan gizon au.

## **Kolgatu ezkekoa**

Nik uste dot gaur egun Bilbo erlauntz bat dala. Erle langille beterik dagon erleunta bat. Baiña erleauntzetan egoten dira erle-mandoak eta emen Bilbon ainbat erlemando dago ta geroago ta geiago, ifion lepotik bizi diran erle-mando alperrak.

Nozean bein Uribitarteko anaiaren etxean lo egiten dauana, Kolgatu da bat, lanik egin barik bizi danatariko bat.

Lanik egin barik? naiko lanik egiten dot nik, lanik egin barik bizitzeko. Zer... ba? erreza dala uste dozue lanik egin barik bizitzea?. Jakiña, lagun onak euki bear dira lanik egin barik bizitzeko. Mutil zarra dogu Kolgatu, guztiz argala. Egiñalak egin ebezen bere etxeartekoak eta adiski-deak apur bat zuzendu eiten, baiña guztia alperrik. Kalerik kale ta edantegirik edantegira ibilten da da eskean. Ifion diranak entzun bear izaten dauz, baiña berak ez entzun egiten dau.

Kaleak garbitzeko ez dago lanik ala? esaten dautsoe sarritan eta berak erantzuten dautse, lana bai, ugari egon be.

Eta zergaitik zara ain ganorabakoa ta ez zoaz lanera? Egizu lan.

Uste dozue nilako alper ganorabako bat elikatuteko mereze dauala lan egitea?.

Gosez edo egarriz egoten da eskean dabillanean eta aurpegi illunagaz, olan ataratzten daualako dirurik geien. Gaur arratsaldean ondo jantsita egoan gizon lodikote bategana joan da eske, betiko leloa esanez, makal aurkitzen dala, egun osoa jan barik dagoala... une onetan gizon lodikoteak ebagiten dautso berbea. Egun osoa jan barik zagozala?. Ez dozu itxura txarrik jan barik egoteko.

Zuk ohea dozu, esan eutson Golgatuk.

Ohea? diñoso gizon lodikoteak, gura neuke nik zu lez argal-argal egotea.

A baiña, zuk zer gura dozu, iñoan Kolgatuk, zeuk jan eta ni loditu?.

Dirurik ez dautsut emongo, esan eutson gizonak, baiña etorri zaitetz neugaz edantegi batera ta bokadillo bat erosiko dautsut.

Kolgatuk ez eban gura bokadillorik. Ez, ez, bokadillo-rik ez, esan eutson Kolgatuk.

Zer ba? jarraitu eban gizonak.

Diru apur bat eskuratzeko zaspri bokadillo jan bear izan dodazalako gaur arratsaldean.

Au entzutean bost ogerleko emon eutsozan Kogaturi, eta onek ezkerak emon ondoren esan eban, zerbait edanda bokadilloak buzti daidazan, ondo jatorkidaz bost ogerleko oneik.

## **Biar-biar**

Kalean zear joizala, Josebak bere lagun bategaz egingen dau topo. Antzifiatik eukan Josebak lagun onegaz zor bat. Gizon onek oiuka esan eutson Josebari, entzun Joseba, bost milla ogerleko daustazuz zor eta noiz ordaintzeko ustea daukazu?.

Bai, ba dakit eta biar lenengo egin dodan gauzea... erantsun eutson Josebak. Besteak ez eutson itxi bere esaldia amaitzen.

Biar, biar, beti biar. Joan astean ezin daustazula ordaindu, joan dan illean bardiñeaz urten zeustan. Joan dan urtean zindu zeustan... diñotso besteak, beti diñostazu, biarko, urrengorako.

Ondo dago, ondo dago, naikoa da, esan eban oiuka berak be, Josebak. Baiña ez daustazu esango nire itza ez dodala betetu?.

Egia da, beti dago beste biar bat, baiña ez eizu itxi biarko gaur egin zeinkena.

## **Napoleon ta bere andrea**

Gizon bat, Napoleon antzera jantsita bere andreak Osagille bategana eroan, sikiatra bategana.

Osagilleak andreari itaundu eutson, zer jazoten jako gizon oneri?.

Niri ezer ez esan eban gizonak. Ni guztiz ondo nago. Ludiko gizonik ospetsuena naz, gudaritza aundi bat deukat nire menpean, bear dodan diru guztia daukat beti ta ospakizun aundiagaz bizi naz.

Orduan, zergaitik etorri zarie nigana?, jarraitu eban Osagilleak.

Nire andreagaitik, diñotso gizonak, beti dabil ekin ta ekin, Gartzia jaunaren andrea dala esaten.

## **Aingura**

Itxasontzi baten joian txangolari batek, emakumea bera, bere itaunakaz erdi zoraturik eukan bertako nagusia, itxasontzitik dindilizka aingura bat ikusten ebalako.

Euren azken ibillaldiko kaiara eldu ziranean, nagusiak esan eutson emakume areri.

Egon zaitez nasai orain, itxi dogu aingurea uretara jausten.

Ederto egiña, erantzun eutson emakumeak. Ibillaldi osoan egonda dindilizka itxasontziaren alde batetik.

## **Ontzi-galtzaillea**

Itxas zabaleko izaro txikitxu batera eldu zan uger egiñez, itxas-gizon bat bere itxasontzia ondatu ondoren. An egoan egun luzeetan begira itxas zabalera, noiz ikusiko ete eban bere gaizkatzalle anbat. Alako baten, zer ikusten eban zifiztu eziñik, agertu jakon notin bat, bucedor deritxona, bere txapela, betaurrekoak eta aize-ontziakaz ondo orniduta, baiña bere arritasuna aunditu zan, ikusirik bere aurrean egoana emakumea zala ta itxura onekoa.

Alkar agertu ondoren, nezkatilla gazteak esan eutson.

Egin neike ezer zugaitik?.

na. Iruñako gudan be, Loiolatarrak Euzkotarren aurka borroka egin eben. An izan zan zauritua Iñaki Deuna. Guda onetan, ostera, Xabiertarrak Euzkotarren alde. Ortik be sortuko ziran Deun bien artean alkar aitu ezifñak Parisen.

Dana dala, adiskide egin ziran eta Xabierrek itzaltasun aundia eutson Iñaki Deunari, kondairak diño eskuitzak be belauniko idazten eutsozala.

Xabier il zanean, bertako bat eukan laguntzaille eta onek diñoan lez, aitu edo ulertu ezifñeko izkuntza baten esan zituan azken itzak. Euskeraz, zalantza barik izango zan.

### **Luiandoko zugatza**

Gure kondairan garrantsi aundiakoa izan zan Padurako borroka, baiña bere inguruko jazoerak illun eta ipufiez nastauta eldu jakuz eta argitu bearzanean gagoz.

Arabarrak eta ez beste euskotarrak ez eben borroka gogorik izan, baiña gero Kobadonga, Leire, Atxeko Deuna edo olako lekaide-etxeak sortu ziran. Erreiñu Kristauak sortu ziran. Bat Nafarroako euskalduna. Ordurako euzkotarrak geienak kristauak ziran, baiña olan izan arren, anai arteko eztabaidak ugari izan ziran eta onetariko bat Padurako gudea izan zan. Leongo kristauaren aurka. Milla ta larogeita amarreko Azillaren ogeita amarrean izan zala diño kondairak.

An agertu ei zan adoretzu Juan Zuria, gure lenengo Jauna izango zana, Ezkoziatarra.

Euzkotarrak irabasi eben guda au, guda baten irabaserik egon leitekela esan ba leiteke. Orduño zan euzkotarren aurkakoa ta Luiandoko zugatz maillatuan sartu

eben ezpatea gudearen amaia adierazoteko. Zugatz aretan ezpatea sartzeak esan gura eban, euzkotarrak ez ebela burrukarik egiten euren lurrakaitik baiño. Euren mugatara eldu ezkerro gelditzen ziran, andik aurrera, atserrira ez zan euren arazoa, erbestetarrena baiño.

## **Agoteak**

Baztan aldeko erritxu baten bizi ziran Agote eritxon zendi edo enda bat. Euzkotarrak eta euskaldunak ziran eta euzkotar baztertuak zori txarrez. Ez euken dendatan, jolastokietan, eleizan besteakaz batera egoterik. Beti eurerarikoakaz ibilli bear eben.

Egoera errukarri orretan Aita Deunagana jo eben eta arek euren aldeko agiria edo bulea idatzi eban. Agiri onetan Nafarroako agintariari euren alde errugututen autsen, danak kristau ta euzkotarrak izanik, anai bezela bizitzeko. Nafarroako korteak, milla ta bosteun eta ogeiko urtean, Azillaren amabostean onartu eban agiri au. Arrezkerro baketsu bizi dira. Uste dot gaur egun, beste euzkotar batzukaz guztiz nastauta egongo dirala.

## **Bartzelonarantz ez**

Bein baten, gizon adifñeko bat berebil aundi baten, nezkatilla kirru, polit eta lirain bategaz Bilboko bide-zaballetik Santanderrerrantz joian.

Muzkiz inguruan etxe txiki baten aurrean galditu zan eta etxe aurrean egoan gizonari itaundu eutson. Zu adiskide, bide onetatik ondo noa Bartzelonarantz?.

Muzkiztarrak begirekada luze bat berebil barruan joian

ikasi, eurak dabilzan erriko izkuntza jakiten dabe. Bur-gostik datozala gaztelarrez bakarrik egiten dabe. An euskaldun mutil edo nezkatilla batek euskeraz idatziko ba leuskie, ez leuzkioe jaramonik egingo. Baiña eltzen dira Bizkaiko euskal errira ta bat-batera gaztelarra aiztuten jake ta euskera bakarrik dakie. Orregaitik erderazko ingiak areintzat ez dira ezer, ipiñiko ez balira lez, bardin bardin.

Ori jakin ba gendu, esan eben negarrez, euskeraz ipiñiko geutsen guk be.

Ez egin negarrik, esan eban aitak, neuk erosiko dau-suedaz jostailu batzuk, eta datorren urterako ez aiztu.

## **Topekàdea**

Naizta gizon aberatsa, ospetsua izan, jazoki barrega-riak euki leikez. Ara zer jazo jakon Henri Ford Wasinton-go gizon ospetsuari.

Bein baten joian berebil baten bere andregaz ibillaldi bat egiten eta ezkumara bira bear eban kale zabal batetik joateko, bira baiño apur bat lenago bere andreari esan eutson. Zu, begira eizu ia ibde orretatik ete datorren berebillik. Bere emazteak bete eban bere agindua, begira-tu eban leiotik eta esan eutson bere gizonari, emendik ez dator berebillik. Orduan Henri Fordrek ezkumarantz bira eban eta beste kaletik etorren faun aundi batek izugarriz-ko topekadea emon eutson bere berebil barria zatituta itxirik.

Zorionez ez jaken andra-gizonari ezer txarrik jazo, be-rebilla birrindu bakarrik, baiña jaun onek berebillak bere lantegietan ugari egiten dauazan lez...

## **Lasarteko arifieketa**

Urtero izaten da Lasarteko inguruetan arifieketa zaio bat. Guztiz ospetsu da ta ludiko gazte trebeenak etorten dira bertara. Azpaldion Afrikatrrak urteten dabe txapel-dun. Baiña goazen arira.

Joan dan urtean nire adiskide Klaudio egoan an arifieketa au ikusten, eta egia esan naiko azpertzuta. Olako baten alboko notin bateri itaundu eutson, zergaitik dabiltz jo ta ke, izerditan gazte adoretzu orreik?.

Alboko mutil gazte batek erantsun eutson, Kopa bategaitik.

Aaa... kaiku ganorabakoak, esan eban Klaudiok, kopa bategaitik ainbeste arifieketa dagon eguraldiaz?... Nik pitxar bat bete baiño gitxiagaitik ez dot zirkiñik egiten.

## **Surrutada larregi**

Azpalditxuan naiko larri dabil nire auzoko Koxepa, bere senarrak ille batzuetatik onantz surrutada larregi egiten daualako. Baiña erabagi zendoa artu dau eta or doa Osagille bategana, griña txar ori kentzeko zerbait emon daion. Zer egin daiket jauna, diñotso Osegilleari, griña orren aurka?.

Errez erreza dozu ori andrea, diñotso Osagilleak. Ara, bete eizu ontzi bat urez, bota eiozuz iru edo lau tental osaki onetatik, egunean iru bider emon bear dautsozu, baiña aitzu barik. Egon zaitez ziur, griña txar ori galduko dau zure gizonak ille bete baiño lenago.

Baiña jauna, diñotso Koxepak, nok artuazoko dautso ura nire senarrari?.



## **Gozokiak**

Mikeltxu seme txikienaren urtebetzea zan egun aretan, eta olako egunetan egokia dan lez, gozoki batzuk erosi ebazan bere amak bazkarirako. Baiña bazkari ordua baiña lenago ama konturatu zan, iru egozan lekuan gozoki bat bakarrik geratzen zala, au ikusirik deitu eutson bere semetxuari eta esan eutson. Zu Mikeltxu, zelan dago azpil orretan gozoki bat bakarrik, nik len iru itxi ba dodaz?.

Ama, irugarrena ikusi ez dodalako izango da, erantsun eban Mikeltxuk.

## **Lelokeri aundiagoa**

Gizon-andra talde bat egoan bein baten edantegi baten alkar-izketa mamitsuan, danak ez ziran ezagunak, baiña alan ta guzti be, batzar aretan saratsu ebiltzan. Apur bat edanak egiten dau sarritan ori. Alako baten, gizon batek alboan egoan beste bateri esan eutson. Nor da ain beste sarata ataraten dauan emakume kirru ori?.

Neure emaztea da, esan eutson beste gizonak.

Parkatu, lelokeri bat egin dot ori esateaz, esan eutson lenengo gizonak gorri gorri eginda, uts aundi bat euki dot ori esatean, parkatu.

Ez zaitetz larritu orregaitik, nik uts aundiago izan neban beragaz ezkondu nintzanea, erantsun eutson lagunak.

## **Irakurri ez**

Langabetasuna itzala da azken urte oneitan eta nire adiskide Pello be or ebillen lantegirik lantegira lanaren bi-

Ila. Lantegi azkotan dei egin eban eta onetariko baten jo eban. Bertako nagusiak bere jakituria jakin gurean ia ba ekian irakurten eta idazten, itaundu eutson.

Idazten ba dakit baiña irakurten ez, esan eutson Pellok.

Nagusiak artu eban ingi bat eta emon eutson Pellori esanez, ia idatzi eizu ingi onetan zeozer.

Pellok artu ebazan ingia ta arkatza egin ebazan irriborro batzuk eta emon eutson ingia nagusari.

Nagusiak ingia ikusirik esan eutson, ia irakurri eidazu orain emen ipiñi dozuna.

Baiña, ez dautsut esan ba ez dakidala irakurten?.

## **Txarto zaindu ta osatu**

Eman esango dodana Abadeetxe baten jazo zan, ez Deriokoan, urrunagoko baten baiño.

Irakasle bat, mutil gaztetxua bera, gaixotu zan eta geroago ta txartoago aurkitzen zan. Bertako Osagilleak aletin guztiak egin arren, mutilla erioarantz joian. Eleiza-koak be emon etsoezan gizajoari eta azkenean konorte barik geratu zan.

Osagilleak osaki barri bat emoteko agindu eutson Abadeetxeko nagusiarri ta arek eragiten ez ba eutson, galdutzak euki leikela.

Gaixoa zaintzen eben Abadeetxeko gaixo-zain batek eta beste ikasle-otsain batek eta oneri esan eutsen Osagilleak. Bonbilla onetatik amar ta erdietan emongo dautsozue kollarakada bat eta gero ordu erdirik ordu erdira beste kollarakada bat, amaitu arte, baiña aitzu barik. Ni biar

goizean etorriko naz, ia osaki onek eragin ba deutso ikusten.

Gaixo-zaina ta bere adiskidea bakarrik geratu zira-nean, jazarri ziran bai baten aurrean, ipiñi eben errekin zorro bat mai ganean eta garratz tutean asi ziran. Areik bai pozik. Euren gogo guztia jokoan eukien, aiztu jaken guztia, ludian eurak bakarrik bizi izan balitza lez egozan, ez jaken bururatzen ez gaixorik, ez Osagillerik eta ez Abadeetxerik be. Areik ez eben ikusten aurreko kartak baiño. Osaki bonbillea gaixoaren oge andoan itxi eben eta goizalderarte alan ekin eutsoen.

Noiz edo noiz nabaritu ziran eta gaixoiaña larritu zan ta besteari esan eutson. Ai ene Jangoikoa, gu gagoz onak, mutil. Ondiño gaixoari kollarakada bat be ez dautsogu emon eta iru ta erdiak dira. Orain zer egingo dogu?. Bonbillan dagona emonten ba dautsu, ilgo da bear bada. A zan larritasuna. Azkenean irolatik botatzea erabagi eben. Erabagi ta egin.

Urrengo goizaldean agertu zan Osagillea ta gaixoa itxura obeagogaz ikusirik esan eutsen zaintzen egon zira-nei. Obeto ikusten dot, eragin dautso osakiak, itxaropen aundia daukat, osatuko da.

A zan astuntasuna kendu ebena gazte biak. Poz aize bategaz betetu ebezan euren birikiak.

## **Aspirinea**

Iru urteko umetxu batek iruntsi eban, adiñakoentzat diran aspirina bat. Bere amak guztiz larritura ta urduri, zer egin ez jakiñik une aretan, deitu eutson bere amari, umetsuaren amamari urrutizkiñetik jazokoa esanez.

Amama bedarlatzi seme-alabaren ama zan eta olako

eta antzeko jazoki azko ikusikoa ta geldiro geldiro bere alabeari erantzun eutson. Emoiozu buruko min bat.

## **Gizon-lerroa**

Kepa Deunak, beññola aingeru bateri atari-gelara deitu ei eutson. Aingeru au, Kepagandik aukeratua izan zan ludira jatsiteko ta an mezu berezizko bat egiteko.

Ara, ludira jatsi bear dozu, esan eutson Kepa Deunak, eta gizon-lerro bat egin, zerrenda bat, atzipen edo iruzur egiten daben gizonakaz.

Aingeru ludira jatsi zan eta illebete bi beranduago zeruratu zan, guztiz nekatuta ia egaz egin ezifñik, aulki baten bere soina jausten itxi eban Kepa Deunaren idaz-gelan. Naguzia, esan eutson Kepari, ezin zeinke gogoratu emon daustasun lanaren aunditasunagaz. Baztarrak arakutzen ibilli bear zanik ez dot euki Jauna. Lan au batentzat larregi da, laguntzaille bat bear dot. Ezifña da, esan eutson Kepa Deunak, langilleakaz txarto nabil, gitxi daukaguz emen, bakarrik egin bearko dozu.

Aingeru gizajoa, nekez jagi zan jezarlekutik eta abiatu zan aterantz, baiñia onetan azmakizun bat bururatu jakon eta esan eutson Kepa Deunari, zer deritxozu egiten ba dot, bertan dagozan zintzo ta zuzenakaz zerrenda ori? laburragoa izango da ta aste bete baiño lenago amaituko dot.

Aingeruak esan eban lez, aste bete baiño lenago itzuli zan Zerura bere zerrenda besopean ekarrela. Ondo begiztatu ondoren Kepa Deunak agindu eban zerrenda aren eiki batzuk atartzeko ta bialtzeko eleiz guztietako Nagusiei. Ondoren oneik bialdu bear ebezan ezkutiz bat zerrenda onetan egozan gizon-emakumei zorionak emonez euren giza-bide onagaitik.

Jazoki oneik azaltzen egoan gizon batek itaundu eutson bere adiskideari, ba dakizu zer ipinten eban eskutitzak?

Ez, erantzun eutson besteak. Zer ipinten eban?

A, zuk be ez zenduan artu, ez?

## **Emen be lan?**

Goizalde baten naiko txolinduta aurkitzen zan gizon bat edantegi baten. Azko edatearen ondorioak. Onelako unetan sarritan jazoten dan lez, gizona guztiz astun egoan bere berbetan eta egikisunetan. Edantegiko jabea, emakumea bera, naiko azpertuta egoan gizon onegaz eta azkenean kalera joateko esan eutson eta egun aretan geiago ez etorteko.

Gizonak mendetu eutson eta urten eban kalerantz, baiña andik ordu bete ingurura albo alboka edantegira sartu zan.

Edantegiko emakumeak barriro ikusirik guztiz asarratuta diñotso. Ez dautsut esan gaur barriro, ez etorteko?

Mozkortiak, bere zutiktasuna zaindu gurarik, diñotso. Baiña zuk emen be egiten dozu lan...

## **Nezkamea**

Etxeko-andra batek nezkame bat alogortu dau etxeko lanetarako. Au ez da arritzekoa, egunero izaten dira olako artu-emonak. Ille gitxi barru nezkamea negarrez joakon etxeko andreagana eta esan eutson. Ezingo dot jarraitu etxe onetan. Umedun aurkitzen naz eta umearen aitak zapuztu nau.

Etxeko andrea guztiz biotz onekoa zan eta esan eutsen. Bai jarraitu al dozu, geratu zaitez gugaz eta umea semetzat geuk artuko dogu.

Etorri zan aurrea ta zendia pozik egoan beragaz, baiña urte bete barru bardiña jazo jakon nezkameari. Umedun ta aita barik. Oraingoan be, umetxu barria semetzat artu eben.

Irugarren ta laugarren urtean zeatz etorri ziran aur barriak eta etxeakoak lenengoakaz lez semetzat artu eban lau umetxuak. Bostgarrena itxaroten aurkitu zanean, nezkameak esan eutsen etxekoei. Geiago ezingo dot jarraitu zuekaz etxe onetan, au larregi da, aurretizik diñotsuet datorren illean etxe onetatik joango naz.

Baiña zergaitik? diñotso etxeako andreak.

Lana gogorregia da ta ugaria, esan eban, nezkameak, zuk alogortu ninduzun senar-emazte bi zaintzeko ta ez zendi anitz bat.

## **Arrantzale artean**

Arrantzale batzar bat amaitu ondoren, batu giñan areto aundi baten, txola batzuk artzeko asmuz. Berbetan gengozala, alboko taldeko baten apur bat urrun, Iñaki, arratzaletariko bat egoan bere beste adiskide bateri zeozer azaltzen. Arritu nintzan bere atzamarrakaz bitarte laburra adierazoten ebalá Iñakik, amabots zentimetro ingurukoa bakarrik eta ez arrantzaleen artean oitura dan lez, besoak zabalik.

Iñakiri aitzu jako, antza, bere arrantzako eginkisunak, esan neutson alboan neukan adiskide bateri. Atzamarrakaz bitarte laburra agertu dau.

Bai zera, esan eustan nire adiskideak, barreka. Jokatuko neuke atzamarrakaz adierazoten dauan luzeerea arraiñari ez dagokiola. Arraiñen begien bitarte izango da.

## **Babesa**

Josebak, mutiko koskorra, itaun polita egin eutson bere aitari. Zergaitik legeak ez dabe zilleitsen andra bat baiño geiago eukiteko?.

Legeak beti babestzen daualako, babestzen ez dakiena, erantsun eutson aitak.

## **Zabala ta lodia**

Orain edestuko dodana, nire auzo-erri txiki baten jazo ei zan, beintzat jazoriko les edestu eustan nire aitak.

Oitura azko dira Euskalerrriak galduak izan diranak. Oneitariko bat ogia eleizara zendiko bat ilten zanean ekartea zan, gure Jaun eta Jaungoikorari opatzeko. Oitura au galdu baiño lenago, apur bat lenago, oso otsituta egoan eta orregaitik eleizara ogi gitxi eroaten eben eleiztarrak.

Jazoriko edo ipuin onen erriko abadea larri ebillen arazo onegaitik ta burura asmakizun polit bat etorri jakon. Erriaren izena Zumur ipiñiko dautsogu.

Abadeak erabagi eban etxean geratzea amabost egunean iñora urten barik, ez Mezarik eta ez eleikizunik es eban egiten. Erritarrak ez eben ikusi aldi orretan, bere arrabeak izan ezik eta uste eben txango bat egitera joan zala.

Amabost egunak igaro ziranean, agertu zan bere erri-

tarren aurrean eta lenengo Igandeko Mezako itzaldian, olan esan eutsen bere eleiztarrei. Joan diran aste bi oneitan ibilladi luze bat egin dot. Lenengo joan naz Zerura ta Kepa Deuna aurkitu dot atean eta berari itaundu dautsot. Ba dago emen Zumurtarrik? eta berak erantsun eustan. Ez bat be ez. Au negargarria, Zeruan ez dago Zumurtarrik. Gero joan naz Garbi-tokira ta an itaun bardiña egin neban. Ate-zaiñaren erantzuna ez zan pozgarria. Oso gitxi esan eustan. Azkenez jatsi nintzan Impernura ta deabruari itaundu neutson. Emen ba dago Zumurtarrik?. Bere laguntzailleak oiuka erantsun eustan. Bai, beterik dago Zumurtarrekaz, neu be angoa naz. Negargarria, Zumurtarrez beterik egotea lpernua. Baiña ba dakizue zergaitik?. eleizarako ogia txikia egiñagaitik, ez diñot bearrezkoa dala aundia egitea, baiña bai zabala ta lodia.

### **Emakume baten larritasuna**

Mundakan urterik geiena igaroten eban nire adiskide bat joian uri aretatik Bilborantz taxis baten. Milla ta bedaratzireuneko urtean jazo zan. Au ez da ipuiña jazorikoa da.

Aldi aretan berebil-bideak estuak eta txarrak ziran eta andra-gizon oneik estegu batera joiazan eta naiko berandu. Estegu ordua ur egoan. Ereño inguruan aurkitu eben baserritar bat, bere gurdi ta idiakaz ebillela, zuzendu gurean gurdia bide egokira. Baserritarra nasai ebillen, euskotar baserritarrak geinetan ibiltan diran lez. Aurrera Apala, atsera Txikito, oneik idien izenak ziran.

Bitartean andrea guztiz larrituta egoan, berandu zalako, bear ba da, asti larregi emon ebalako bere apainketatan, mar mar ebillen. Azkenean oiuka bere senarrari esan eutson. Esaiozu gizon orreri, kendu dagizala gurdi ta idiok bidetik, eta garratz esan be.



Baserritarra ez zan larritu orregaitik eta bidea azke itxi ebanean abiatu zan berebilla Bilborantz. Baserrittarraren albotik igaro ziranean, entzun eben onek iñoala. A gizajo gizajoa, nire etxean bardin bardin bat daukat.

## **Txomin betterre ta mutikoak**

Nire auzoko Txomin, Betterre ezinenez deritxona, asarre dabil azpaldion bere ortura mutil batzuk sagar-lapurretan sartzen jakozalako.

Bildurtuko dodaz ba, esan eban, Tromiñek, eta mutilak ortura sartzen diran lekutik, orma ganetik dindilizka ol bat ipinten dau, idatzi onegaz. Ilgo da ortu onetara sartzen dana.

Arratsaldean ikastolatik urtenda apurtxu bat geroago, mutil batek ikusi eban ori ta arrituta geratu zan. Mutillak, ikusten dozue? esan eutsen bere taldekidei. Zer ipiñi eta dau ortuan Txomiñek? Batek ba daki. Bear ba da azeriak arrapatzeko tramankulu anbat. Bildurrez elizperantz egin eben.

Aste bi inguruan ez jakon Txomiñeri ortuan mutillik sartu ta pozik ebillen. Baiña alako baten, orma ganetik ortura sartuta mutillak sagar-lapurretan len lez ebiltzan, ilteko bildur barik. Txomiñek ikusi ebazan eta arin joan zan eurekana ortutik uxatu gurean. Zer dala ta galdu ete dabe bildurra barrabanok? esan eban Txomiñek bere artean eta ortutik kanpora urten eban.

Arrituta geratu zan an ikusi ebanagaz. Berak ipiñiko olean beste idazkisun bat egoan idatzita esanez, Eta ortu onetara sartzen ez diranak be... ilgo dira.

Jakiña, danak il bear, sartzen diranak eta sartzen ez

diranak. Txomiñek kendu eban bere ola ormatik. Ba mutil gazteakaz ez dago zer egiñik.

### **Pitxar garagardoa**

Egazkin aundi baten giñoazala erbesteko uri aundi batera, egazkiñeko nagusiak oiturazko ongi-otorriaren itzak esan ondoren, irrati-gallua ixitea aitzu jakon eta jarraitu eban bere laguntzaille bategaz berbetan, Egazkiñean giñoazanak esaldi au entzun genduan nagusiaren aotik. Ba dakizu zer guztako litzaket orain egitea niri?. Lenen lenengo pitxar bat garagardo ozkirri-ozkirri artu ta gero ule kurrudun azafata orren mozu bat.

Nezkatilla au, gorri gorri eginda abiatu zan nagusiareganatz, baiña bertan joian atzo bigun bigun batek, abots bigunagoaz diñotso. Ez zaitez larritu maitetxu. Lenago garagardoa artuko dau.

### **Eiztaria ta otsoa**

Eiztari batek eiztan ebillela otso aundi bategaz topo egin eban. Eiztari onek bere izkillua ipiñi eban otsoa ilteko asmuz, baiña onek goibel goibel diñotso. Ez dozu uzte oba izango dogula iltea baiño alkarregaz izketa labur bat egitea?.

Zer gura dozu? esan eutson eiztariak, bere izkillua lurrean ipiñita.

Nik bizi gura dot, bizi bakarrik, eta zuk, zer gura dozu?. Urdaila betetzea gura eban otsoak.

Nik soiñeko bero bero bat, narruzkoa, gura dot, esan eban eiztariak.

Ori zuzendu leiteke, diño otsoak, Arazo ori eztabadaitzen jezarri gaitzean eta onelan jezarri ziran bide ondo baten ondoan.

Andik laster otsoa jagi zan eta bakar bakarrik joian mendirantz, betetu eban bere urdailla ta eiztariak ba eukan bere soiñeko narruzko bero beroa.

### **San Bernardo txakurra**

Orain geienak joaten dira euren oporrak igarotea erbestera, sarritan urrun. Batzuk Udan artzen dabez euren oporrak, beste batzuk Negua gurago izaten dabe edur-kirolzaleak diralako.

Ikastetxe bateko nezkatala bi egon ziran gai onen buruz izketan eta baten iñotso besteari, ni beti joaten naz itxasaldera oporretan, an ondartzara joan zeinteke ta uretan itoten aurkitzen ba zara, izan leiteke mutil gazte ta itxura oneko bat zu gaizkatzen etortea. Eta ara, zelan aurkitzen zaran senargai bategaz. Ostera, edurtzera ba zoaz kirol egiteko ta ba dozu estrepu bat, nor jatortzu zu gaizkatze-ra?. San Bernardo txakur bat.

### **Begiak lurretik ur**

Mutil gazte bat gudaroztetik urten ondoren, ertzaintzan sartzea erabagi eban. Komisari deritxon toki baterza joan zan asmu onegaz. Atean egoan ate-zaiñak itaundu eutson zer gura eban.

Nire mutillak azaldu eutson bere guraria, ertzaiña izan gura ebala ta orretarako etorrela.

Ate-zaiñak, betik gora begirakada luze bat egin ondoren, esan eutson. Ezin dot ontzat artu zure guraria.

Zergaitik? esan eban guztiz naigabetuta mutillak.

Zure begiakaitik, diño atezaiñak.

Baiña, zer daukie nire begiak? Nik ondo ikusten ba dot? Ni gudarostean lenengo nintzan izkilluagaz lergak botatzen.

Ez, ez da orregaitik, zure begiak ikusten dodaz eta esango neuke ondo dagozala, baiña urregi dagoz lurretik.

## **Jan duan**

Gizon batek jokera polita eukan ezer ordaindu barik jateko. Jantetxe baten bete-bete egin ondoren, kalerantz nasai urteten eban janekoa ta edanekoa ordaindu barik. Urtekeran, zuzena dan lez, jantetxeko morroia urreratuten jakon esanez. Adiskide, aitzuko jatsun, baiña ez daustazu ordaindu jan dozuna.

Orduan gure gizonak arpegi gogorragaz eta bat be gorritu barik, erantzuten dautso. Zelan diñostazu ori?. Ez zara gogoratzen, zelan emon dautsudan milla laurlekoko diru-ingi bat?. Ez zara gogoratzen?.

Morroiak lotsaturik parkamena ezkatzen dautso ta agurrik beroenegaz agurtu.

Beste bere adiskide batek au entzun ebanean, bardiña egiteko asmuz joan zan jantetxe batera. Bazkari eder bat ataratzeko agindu eban eta jan eban ederto ardao garestiaz buztita. Akeita, txola ta txokorra ondoren, morroari, jantetxeko morroari, deitu eutson. Gazte joan bear dot neure zeregiñetara ta mezadez ekarri eistazu gaiñerokoa, gogoratu zaitez milla laurlekoko diruingi bat emon dautsudala.

Morroiak ekarri ei eutson enparaua ta gure gizon

arpegi gogorra urdailla bete bete eginda ta dirua sake-  
lean urten eban. Gizon au bere irakaslea baiño zurragoa  
zan.

### **Baserritarren lurra**

Ara emen zer jazo jakon nire adiskide bateri. "Corre-  
dor de Fincas" erderaz deritxona zan.

Egun baten joan zan bere erritik urrun egoan erri  
batera, lur apur bat erosteko asmuz. Berak uzte eban,  
uritik ain aldenduta egoan baserria a, bertako jabeak,  
nekazariak, ez ebala jakingo lurraren eguneko neurria.  
Erosleak pentzatzan eban erreletan salduko eutsola lurra  
baserritarrak, antzina lez. Nire adiskideak agertu eutson  
bere guraria. Eun milla bat laurleko daukadaz lurra eroste-  
ko. Oneitariko solo bat egoki izango litzaket.

Ondo dago, erantsun eutson baserritarrak, etorri zai-  
tez eun milla laurleko orreikaz eta gurdi txiki bategaz, eta  
betetuko dautsut au lurrez.

### **Gizon eredugarri bat**

Viva España didarka dagoz  
Neuk bere Viva dirautsot  
Gorrotorikan ez dagolako  
Nigandik Españarentzat  
Katolikuak jakin dagigun  
Zer diñon goiko Epailleak  
Beesten gauzai bakean itxita  
Zaindu berea bakoitzak  
Au gaitik Viva diñot barriro be  
Izan bedi Españarentzat  
Baita be diñot GORA EUZKADI  
Gurea da ta geuretzat.

*Urretxindorra, Enbeitia'tar Kepa*

Ara emen, gizon benetan eredugarria, buru argi ta biotz onekoa. Ba daukagu euskaldunok zer ikasi bere jokaerean. Olan izan dedilla Euzkadiren onerako.

## **Gizon bi alkar-izketan**

Larregitan jazoten dan lez, gizon bi egozan alkar-izketa mamitsuan edantegi baten. Bai, emakumeak daukie berbaldunen aomena, baiña gizonezkoak bere ba dakie miña erabilten. Eta olan ebiltzan nire ipuiñeko gizon biak, berba ta berba, alkarregaz txantxetan.

Olako baten, batek diñotso besteari, zu Shanti, ezkondu ziñanetik ona guztiz apain ikusten zaitut, zure soiñekotan ez dot ikusten botoi baten utsik be, len beti ibiltzen ziñan botoi banaka baten utsagaz, baiña orain ez. Beti ondo orniduta ikusten zaitut.

Ara Mikel, erantsun eutson besteak asti apur bat artu ondoren, nire andreak ezkondu giñanean lenen lenen ipiñi eustan zeregifiña ta irakatsi eustana, au da, botoiak jostea.

Ez zan makala emakumea, ez, uste dot beste zeregin batzuk be irakatsiko eutsozala.

Nire osaba bat, Osagille ta Osaetxearen arerioa da, ez jako guztatzen gauza gitxi bate gaitik eurakana joatea, baiña bein baten gaixotu zan, "apéndice" erederaz deritxona kendu bear eutsoen, naiz ta berak ez gura izan.

Zergaitik kendu bear daustazu "apéndice" ori? esaten eutson Osagilleari, Jaungoikoak bere zioak eukiko ebazan ipiñi euskunean, esaten eban gaixoak.

Bai, eta aundiak, erantsun eutson Osagilleka. Jaungoikoak ipiñi eutsun, nik nire zendia zaindu, nire seme-alabak azi ta ezi ta eurari ikasketak egiftez bizi-bide on bat emon al daidan.

## **Asko ikasi**

Nire illobatxu bat lenengoz joan zan ikastolara ta bere amak ikastolatik itzuli zanean esan eutson, zer Aitortxu, gaur asko ikasi dozu?.

Ez larregi, ama, esan eutson guztiz goibel, biar barriro joan bear dot eta.

## **Bir Gizatzea**

Emakume bi, urtetan naiko sartuta egozanak, alkar izketan egozan, euren gaia bir-gizatzea zan. Ez dakit, esaten eban batek, zelan guragoko neuken ludira itzultea aberats edo ederra lez.

Ara ba, edozelan be zuretzat aldakuntz aundia izango litzake.

## **Izotz-gozokia**

Andra-gizonezko "lunch" edo olako jai batera, nire auzuneko senar-emazte bi joan ziran, eurak ezkon-barriak ziran. Emazteak bere gizonari agiraka egiten eutson lau bider gozoki ta izotz-gozoki billa joan zalako. Ez zara lotsatuten? lau bider joan zara gozoki onen billa.

Ez, esan eutson gizonak, beti esaten dot zuretzat dirala.

Oraingo au, Ameriketara jazo zan. Gurdi-bide batetik gizon bat ioian, "vaquero" ifnotzena, ta bidean indio bat aurkitu eban, lurreez belarria joka eukala. Zer jazoten jatzu? esan eutson.

Indioa asi zan berbetan. Gurdia. Zaldi bi, bat zuria bestea baltza. Gidaria gizon bat. Pipez erretsen dau. Andrea urdiñez jantsita. Burutsik.

Baiña zelan jakin zeinke zuk, esan eutson gizonak, guzti ori lurrean entzunda?.

Indioak jarraitu eban, ez. Ordu erdi bat da zapaldu ninduela.

### **Alperkeria**

Gutziz asarre dabil azpaldian nire auzoko Klaudi, bere umeak jaramonik ez dautsoelako egiten.

Zer txarrik egin dautsue, Klaudi, zure umeak? ifñotson bere adiskide Krexentzik.

A Krexentzi, zeuk ba zeunkoz umeok, ez zeuskit olakorik esango. Beti dabiltz olgetan, euren atsean ibilli bear dot ikasi daien eta genera ez daustez egiten nire esanak. Gitxi deritxozu?.

Gaiztoak ete dozuz ba?.

Gaiztoak ez, baiña alperragoak. Beti ibilli bear dot eurekaz sarataka nire aginduak bete daiezan. Zoratuta neukie. Zer egin eurakaz?.

Iñoiz entzungo zenduan, Klaudi, Iñasi alperraren ipuiña, ez?. Esan eutson Kresentzik.

Ez nik. Zer ete daukat ipuin ori entzuteaz?.

Aditu eizu arren, eta gero esango daustazu ezer daukazun.

Iñasi, leen esan dautsudan lez emakume alper bat zan. Lanik egin?. Ez da arean be. Ez lurrik atxurtu, ez azirik erein, ez jantsirik josi, ez zurik biztu, ezer be ez



eban egiten. Aita-amak itxi eutsoenagaz bizi izan, ez dakit zenbat urtetan olan.

Baiña alako baten, diruak amaitu jakozan eta txakur txiki barik geratu zan. Jan-edana irabasteko lanean asiko ete jaku lñasi? esaten eben auzokideak. Bai zera lanegin. Zirkiñik bere ez alper arek. Auzokoak emoten eutsoen zeozer eta aregaz bizi zan. Baiña auzokoak eta auzokoak ez diranak be, arin gogaitzen dira emoteaz. Emon ezkeru ez da eukiten. Lan egiala beste danak lez, jan gura ba dau, iñoen auzokideak.

Bai, lanerako egoan andrea. Zein burubide artu ebala uste dozue?. Berak lanik ez ebela gura egin ta lurpera bizirik eroan egiela agindu eutsen auzokoei.

Lurpera bizirik? Zer diñoskuzu lñasi? iñoen auzokoak. Olan gura ba dozu, zeuk gura dozun lez izango da.

Biotz-min azko barik artu eben andetan eta ba erioen andrea ortudeunerantz. Bidean joiazala inguru aretako emakume batek urten eutsen bidera ta arpegi larriaz itaundu eban, nor il jaku ba errian?.

Il? Guk dakigunik iñor be ez.

Il-kutsa utsik daroazue ala?.

Ez utsik, Atsespeko lñasi daroagu barruan.

Atsepeko lñasi, neure lengusinea? Ta bizirik daroazue?.

Bai ba, beronek gura dau ta...

lñasi deituten dautso emakume onek, biziri zaroe ortudeunara?. Ez daukažu zer janik ala?. Ez eizu egin arren olakorik. Neuk emongo dautsudaz artu anega batzuk.

Eioto ala eio barik? itaundu eban lñasik kutsa barrutik.

Eio bariak andrea, erio barik, gitxi deritxozu ala? esan eban lenguzineak.

Olan ba da, jarraitu eban lñasik, aurrera mutillak, illobiraiño. Ez nago ni arto-garaunik eioteko. Ta illobira eroan eben, lñasi alperra.

Orain, Klaudi, lñasiren ipuiña entzun ondoren, esan eidazu, onen alperrak dozuzan zure semeak.

Onen bestean be... onen bestean... Baiña ba dakizu ba... esan eban Klaudik.

Bai Klaudi, ba dakit nik, zure semeak naiko beargiñak dozuzala. Ez zuk bestean, baiña ba dakit. Ez eizu erosta geiago egin. Ta iñoiz olakorik sifistuten gaitz egiten ba jatzu, ekarri eizu gogora gure lñasi. Aren antzik ete dakuie zure semeak alperkerian.

Klaudiri irribarre gozo bat agertu jakon ezpanetan, azken berba onek entzutean. Baiña erostea, erostatxua, Klaudik be, guraso guztiak lez.

Eta zuek, irakurleok, guraso zarienak, ba daukazue oiturea semeakaitik erosta egitea?. Olan balitz, gogoratu bein ta barriro lñasiren ipuiña. lñok emoneko arto-garaio eioten erotea be lar eritxola ta abar.

## **Gizon ziñezkoa**

Oraingo au, ez zan jazo ez nire adiskide, senide ta ez nire erritarren artean be. Urruneko uri baten jazo zan. Ama-alabaren artean izan zan. Amak antziñako oiturak eta biziera ontzat artzen ebazan eta zaindu be. Arlo onetan orain dagozan aldakuntzakaz guztiz arduratuta egoan. Bai,... ori zan... karroza bat...

Azpaldion, kezkatsu ta guztiz arduratuta dabil, bere alabeak gizezko bategaz urteten daulako, eta au esan eutson egun baten, alabatxu maitea, ziur zagoz gizon ori asmu onagaz zugana ba dator?.

Bai ama, erantsun eutson alabeak, gizon itun eta ezkondua da.

### **Bedar bikaiña**

Arantza ta Miren, baserritarrak dira, lurrean lan egiten dabe ta emen dabe euren bizi-bidea, egun bate otsaraka-da barazki buruan eroezela joiazan enperantzarantz. Arantza etenbageko mormoxetan joian, obeto esateko ziarduan. Ostera Miren, bide guztian barrez eta abeslari.

Arantzak, bere adiskidea olan ikusirik esan eutson, olan barreka gogoz joateko, zer jazoten jatsu?. Zure otsarakadea ez da nirea baiño ariña, eta beste alde batetik zu ez zara ni baiño indartsuagoa.

Ara, nik neure otsaran zama arintzen dauan bedar bikaiña daroat, erantsun eutson Mirenek eta orregaitik igarri barik daroat.

Benetan bedar orrek bikaiña izan bear dau, erantzun eutson Arantzak. Ba, ez dakit zer emongo neuken bedar ori eukitearren, nire otsarakadea arindu daidan.

Mirenek jarraitu eban izketan eta esan eutson, ara, zama guztiak arindu ta neke guztiak gozotzeko indarra daukan bedarraren izena, auxe da, Eroapena.

ZAMA Aztunenak  
Arinduko dozuz  
Eroapenagaz  
Artzen ba dozuz.

## **Ikasle azkarra**

Manu, nire auzokide ikasle bat da, Ikastetxe Naguzitik urten-barria, eta an entzundako ezkarkeriakaz aitari adarra joten asi zan.

Aita, bi dagozan lekuan, bat bere ba dago, ez?.

Egia da seme, bi dagozan lekuan bat be ba dago, ziur.

Orduan izango dira bi ta izango da bat, ez? semeak.

Bai, ori olan da, seme.

Aita, bi dagozan lekuan iru be ba dira, bi ta bat iru dira ta.

Arraioa, diño aitak, oneik mutillok zenbat ikasten dabe gaur egunean.

Gabean afarirako maïatu ziranean, aitak, emazteak ekarri ebazan uretan egositako arrautz bietatik bat berantzat artu eban eta bestea bere emaztearentzat ipifi eban, gero seme azkarragana biurturik difotso, bi dagozan lekuan iru dagozalako, zuretzat seme, or geratzen dan arrautzea. Eta azpil utsa erakutsi eutson semeari.

## **Egiñak ostu**

Uri baten isuski-saltzaille bi ebiltzan kalerik kale egu-nero isuskiak saltzen. Batak, bost errelean saltzen ebazan bere isuskiak eta besteak iruan. Bost errelean saltzen ebazana gustiz artega ebillen, bere buruan biraka, zelan saldu leikezan ain merke besteak isuskiak.

Egun baten topo egin eben kalean eta alkar-izketan zear itaundu eutson. Ezin dot asmau zelan saldu daikezu-zan isuski orreik diru orretan? iru errelean. Ara, nik gaiak

ostu egiten dodaz eta eurak egitea besterik ez jat kostatzten. Zelan saldu deikezu zuk, iru errelean?.

Ez zaitetz larritu, gizona, esan eutson besteak. Guztiz erreza da. Nik, egindakoak ostuten dodazalako.

## **Aragi-izte**

Tamala da zoroaren buruz idazki barregarriak egitea, baiña uzte dot parkatuko dausteela.

Zoroetxe baten eguerdi guztietan igoten eban tellatura gaixotariko batek eta andik "eup" egiñez esaten eban, amabiak dira oraintxe ta jaurti daigun buskentza lapikora. Ondoren bere burua jaurtiten eban goitik bera. Baiña ango zoro-zain batek ba ekian aren zortasuna, ta bean sare aundi bat ipinten eutson, bertan bigunki atrapatzeko.

Egun baten gaixo-zaiña azpertz zan eta esan eban bere artean, egunero ez naz ibilliko orren arduraz, sarea kendu ta ipinten, eta gaur ez dautsot sarerik ipiñiko, ia buskentz ori zelan sartzen dan lapikora.

Gaixoak beti lez igon eban tellatura, ta goiko gallurretik beko barrena begiratz oiu egin eban, "amabiak dira oraintxe ta... gaur ez dogu botako buskentzik lapikora, aragi-izte eguna dalako. Ondoren nasai jatsi zan.

## **Gogaituta**

Lantegi bateko ugazaba bat guztiz asarre egoan, bere langille bat lanera egunero berandu etorten zalako. Azkenean geiago jasan eziñik, deitu eutson langilleari ta esan eutson.

Beti lelo bat esaten ez naz ibilliko ta... gaur diñotsut

azkenengoz, lanera sasoiz etorteko. Entzun dozu?. Azkenengoz diñotsut gero...

Ezkerrik asko, jauna, erantzun eutson langilleak, egia esan, neu be gogaituta negoan abesti bardin ori beti entzutean.

### **Alperrik ormea**

Erritxu baten ortu-deunaren ormea eraikitzen egozan langille batzuk, andik Txomin erritarra igaro zanean. Au, langilleakana urreratu zan nasai nasai ta lenengo agurtuaz, esan autsen, alperrik zabiltze orma ori egiten.

Zergaitik?. Erantzun eutsoen langilleak.

Ba,... or barruan dagozanak ezin dabe urten kanpora, tan kanpoan gagozanok ez dogu joan gura barrura, beraz alper-alperrikkoa da orma ori.

### **Gozea**

Nire adiskide Mikelen seme txikiena, azpaldian guztiz makal dabil eta olako unetan jazoten dan lez, bere amak eroan eban Osagi leagana.

An ebillen erriko Osagille jauna mutilla arakatzen, ollogorra lako erpeak belarrietako zulo etan sartuta. Tramakulua bular ganean ipinten dautso ta kirri-korro aundia sumatzen dautso. Azkenean mutillari itaundu eutson, mutiko, ba daukazu, obeto esateko, ba dozu jateko gogorik?.

Bai ta ez, erantsun eutson mutillak.

Zelan da ori, esan eban Osagilleak, azaldu eidazu ori.

Jan baiño lenago bai, jauna, baiña jan ondoren ez, esan eutson mutillak.

## **Amama**

Nire auzoko Pelipa guztiz arro egoan, irurogei ta amar urtetik gora egon arren, nezkatilla gazte baten itxurea eukalako. Illoba polit biren amama zan, baiña ez jakon izaten atsegin, amama deitzea.

Illobatxu baten urtebetetzea zan, eta onelako unetan oitura dan lez, bialdu bear eutson zorionpen bat bezuzaATEGAZ batera. Baiña zelan egin, emen eukan kezka aundia ta bere buruari biraka ebillen, azkenean etorri jakon asmakizun polit bat. Artu eban arkatza ta ingi bat eta idatzi eban, "Zure aitita ta beragaz bizi dan emakumeagandik, urtebetetze zorionsu izan daizula".

## **Aldikoz**

Joseba nire etxean berengo maillan bizi dana, guztiz larri aurkitzen da, ez dakit zein arazogaitik, baiña diruaz urri dabil. Bere buruan azmakizun azko daukaz eta biraka darabil zein urten bidea jakin eziñik. Azkenean bere adiskide lñakiagana joatea erabagi dau. lñaki diruduna da, ez aberatsa, baiña emoten ez zalea.

Ara lñaki, arazo aundi bat daukat eta diru apur bat bear dot bera zuzentzeko. Ogei bat milla laurleko ezke natortzu, ia itxi al ba daustazuz urte bete barruan ordaintzeko, esan eutson Josebak.

Arazoa da, bai, nik itxiko neuzkizuz, baiña tratu bat eginda daukat Banco Vizcaya deritxo diru-etxeaz. Onen bitartez, eurak ezin dabe saldu janari ta olako gauzarik,

eta nik ezin dot aldikoz dirurik emon. Esan bear da Iñaki dendaria zala.

## **Izenpe bi**

Uri aundi baten Diru-etxe baten aurrean, egunero eskeko bat jezarten zan bere lana betetzen, eta egia esan, ez joakon ain txarto bere bizia, diru politak ataraten ebazan.

Berak, eskekoak, aurpegi goibel eta apaltasunez, lelo au erabillen, "Jaungoikoagaitik amoin bat arren".

Diru-etxeko nagusiak ez eutson iñoiz emoten dirurik, egunero agurtu ondoren bere lanera arin joaten zan.

Baiña gure eskekoak, aldatu eban bere leloa ta barri onegaz asi zan, "Jaungoiko Aita ta bere semeagaitik, amoin bat, mezedez". Beti lez diru-etxeko nagusia eldu zan eta eskekoak esan eban bere leloa, au entzutean, bat-batera, nagusiak sartu eban eskua zakelera ta esanez olan bai, orain bai, atara eban dirua ta emon eutson eskekoari. Izenpe bi barik diru-etxean ez dabe emoten dirurik, buruan euki irakurle.

## **Jauralaria**

Au Mexikon jazo zan, Pantxo Billa ango leendakaria izan zan aldian.

Pantxok seme bat eukan eta guraso danak lez gura eban bere seme toki egoki baten ezarri, baiña bera lez iñoiz ikastetxera joan bakoa zan. Orretarako deitu eutson estaduko jaurleri bateri, esanez. Begira Manito, or doatzu nire semea zeure idazkaritzat jarri daizun, beraz ba dakizu



zer egin bear dozun beragaz. Ondo artu ta alogor obea emon, ordaindu.

Andik egun batzuetara deitu eutson jaurlariak Pantxori ta diñotso. Leendakari jauna, zure semeak ez daust balio idazkaritzarako. Ez ba daki ez idazten, ez irakurten.

Ori errez zuzendu leiteke, erantsun eutson Pantxok. Zeu jarri zaitez idazkaria lez eta nire semea jarri daitela jaurlari.

Gogo onagaz gauza guztiak zuzendu leitekez. Ara emen eredu on bat.

### **Petronilaren oilloa**

Nok ez dau ezagutzen oillo bat?. Zuek guztiok dakizue zer dan oillo bat. Amaikatxu oillo iztar janekoak izango zarie, bear bada. Baiña Petronilaren oilloa ez zan, antza, beste oilloak lakoa. Zenbat laztankeri egiten eutsozan berak, batez be goizeko bederatzik inguruan.

Esango dautsuet zergaitik?. Petronilarentzat garrantzi aundiko gauzea zan bere oillotxu ain maitekiro jagotea. Ez eutson ba ipinten egunero-egunero, utsik egin barik, arrautza gorri biribil bat?. Arrautza bategaitik ainbeste "koplá" esango daustazue zuek, baiña gura neuke nik Petronilaren narrua zuek jantsitea. Orduan esango zeuzkide "koplak" diran a la ez. Ezkerrak oilloak emoten eutsozan arrautza arei, osterantsean ez dakit nik zelan urtengo eban bizirik bere ortuko porru-berakatzakaz bakarrik.

Baiña bein baten, Petronilari auxe emon eutson buruak. Arrautza bat gitxi zala oillo ain azkar arentzat egunero, arrautza bat ipintea egunero gitxi zala. Asmakisunetan azi zan Petronilá, ze asmakisun gero?. Niri, onenean bere, oillari agirekada batzuk egitea ta arrautza bat geiago ipintea, emongo eustan buruak.

Oillotxu oneri, asi zan bere kolkoagaz berbetan Petronila, egunero baten emoten dautsot jatekoa ta arrautza bat ipinten daust. Oneik aurrera birritan emongo dautsot, eta arrautza bi ipiñiko daustaz egunero. Asmakisun polita.

Lorik be ez eban egin gau aretan Petronilak, eta bestaldeko oillarrak kukurrua jo ebaneko, an ikusi zeinkeen Petronila oillotokirantz arrapaladaka bere oillotxuari amantalean artogarau eroiola. Egazketa baten urten eutson bidera oilloak eta zein jarri ete zan pozago, oilloa artogarau aurrean ala Petronila bere oilloaren gangarra ain gorri ikusirik?. Jaten emon barik be, ipiñi al leikiozan arrautza bigaitik oillo arek. Baiña, bada ez bada be emon eutson janaria, olan ederragoak ipiñiko eutsozan arrautzak.

Artogaraue amaitu ebanean, legun-lenkiro anketatik artu eban oilloa eta abian jarri, arrautzatxua noiz ipiñiko. Pozik eskaratzeratu zan Petronila egun aretan, lortu bear ebazan arrautz bi areik gogoan eroazala. Sua biztu eban, ur apur bat berotzen ipiñi ta "malte" antzeko bat artzen egoanean, ze zoifñu edo zer entzun eben bere belarriak?. Ez eukan oillotxua poz-algaran, kar-kar?. Oillotokira abiatu zan, josi ebazan bere begoak abian zer ikusiko... eta, ba egoan zer ikusi an, lenengo ipiñi eutson arrutzea, ukabilelakoan zan, arrautz eder zoragarri bat. Oilloa besotan artu eban eta mosuka jan eban.

Orain atseden apur bat artu bear dozu, oillotxu, esan eutson. Astraka apur bat egingo dozu or etxe aurrean, euliek ta kotxoakaz olgau, geroago etorriko naitzue arto ta ore bero-beroagaz. Eta sukalderratu zan Petronila, guztiz pozik, amantalean arrautza gorria gordeta eroiala.

Bost minutu ez ziran igaroko, baiña Petronilari joandako urtea baiño luzeago iruditu jakozan minutu orreik. Larri

urten eban oilloari bigarrenez jaten emotera, beste arrautzatxua ipiñi egion. Kurra-kurra deiak oilloak entzun ebazanean, egazkadan etorri jakon Petrolinagana. Ez ebazan jango, ba, bere jabeak ekartsozan ore bero ta artagaraoa?. Bai pozik eta Petronila pozago, olako janariak eragindako arrautzea, bigarren arrautzea, ederragoa izango zalakoan. Oilloak biroa bete ebanean, Petronilak lantzantasan aundienagaz abiratu eban oilloa ta antxe itxi eban, bigarren arrautzea noiz ipiñiko.

Baiña luzaro itxaro arren, biotz-min bat eroan bear izan eban Petronilak ogera egun aretan Oilloak ez eutson bigarren arrautzarik ipiñi. Bai ba, iñotson bere buruari nasaitu gurean. Oilloak ez eban jakingo nire uzterik, eta. Biar adierazoko dautsot nire nai au. Nire gurari au.

Urrengo egunean bere, naiz eta Petronilaren aotik milla erreku entzun, oilloak ez eutson bigarren arrautzea ipiñi eta onelan urrengo egun guztietan. Oilloak ez eban betetzen bere jabe aren agindua.

Gogo txarrekoa ete da ba oilloa? zirautson Petronilak bere buruari, bere baitari. Ez, ez dot olakorik gogoratu be gura. Oilloak beti jokatu daust zintzo. Neu izango naz emen errudun, neu, ixaroten ez dakidalako. Bear bada oilloak, bigarren arrautzea ipinteko, asti luzeagoa bearko dabe. Eta oba izango dot, nasaitasunez itxaron.

Egunetan, illeetan ekin eutson Petronilak oilloari birritan jaten emoten, noiz edo noiz arrautza bi orreik artzeko asmuz. Baiña igarri ete dozu, irakurleok, itxaropen guzti onen amaia?. Oilloak illeetan bere ez eutson ipinten bigarren arrautzea, ta azkenez lenengoa be ez.

Zertarako ipiñi gero? esaten eban oilloak. Lanik egin barik be emongo daust niri janaria Petronilak, ain ona izanik, ain ona dan lez. Bizi egin bear dot orain, bizi.

Bizi bai, bizi. Nezka ona jarri jakon Petronila bere asmo txarrak igarri eutsozanean. Ainbeste astian jateko ta adisketasun onenagaz euki, eta gero lotsabako bat mizketuten ibilli zala jakin bear? Biotzbako maltzur zantarrak olakoak, artu bear eutson merezitako zigorra, samea kendo eutson eta gero lapikora. Ara, olan beintzat ez ebazan alperrik galdu izango orrenbeste artagarau ta ore. San Juanak lazter ziran lez, jai orreitarako ilgo eban oilloa.

A zelako San Juanak igaroko ebazan berari ezkerrek. Arrautzarik ez baiña, okelea ta saldea ugari izango ebazan. Aiztoa zorroztu eban, lumak gordeteko zorroa gertatu eban, odola artzeko ontzia garbitu... guztia gertuten ebillen gogotsu gure Petronila San Juan aurrean. Aiztoa eskuetan artuta oillotokirantz joaten ikusi ba zenduen, orduan jakin al zeinkeen, irakurleok, sorgin bat, zer dan. Anbotoko menditik edo atzetatik urteneko bat irudian. A ze atsegifñez ebagi bear eutson samea oilloari aito-sartada batez. Idegi eban oillotokiko atea, kurra-kurra deika joan zan oilloa egoan lekuraño, eta... Aitaren, Semearen eta Espiritu Sant... Baiña zer?. Zer jazo jakon gero Petronila gureri?. Ba zenkie. Oilloa ostu eutsoen. Zer diñot ostu?. Ostu baleutsoen, zelan edo alan lortuko eban barriro. Baiña ez, ez eutsoen ba, jan piztian-batek?. Antxe bere begien aurrean azur-lumak. Agur arrautzok... eta azpilka-dea.

### **Lakuntzako manzaiña**

Lakuntzako mandazaiña, astero birritan joaten zan lruñara, arraiñez beteriko zazpi mandoagaz, oneik gurdi bat eroen atsetik. Egun baten topatu zan bidean iru ikaslegaz, oneik be lruñarantz joiazan. Ikasleak mandazaiña ikusi ebenean, deabrukeri bat otu jaken. Alango

bide-bi ondoko sasi artean estalduko ziran euretariko bi ta mandazaiñagaz asiko zan berbetan irugarrena.

Otu eben lez, egin eben. Asi ziran alkar-izketan eta olan iñotson ikasleak.

Diru asko egiten dau gaur lruñan arraiñak. Ez zarie bizi txarto arraiñegaz zabilten mandazaiñak. Gura aifña irabazi, jateko iñok baiño arrain ohea, edateko ardaorik onena.

Bai... eta ikasleak..., sasirik sasi, asko jan eta gitxi ikasi.

Ori, ori. Gitxi ikasi ta ezin ezer aurreratu. Zuk, ostera, gero ta artu-emon aundiagoak.

Artu-emon aundiagoak... eta lan astunagoak.

Bai... Eta bruxapeko katanarrua lodiagoa.

Orrela joian ikasle maltzurra mandazainaren belarriak gozatzen. Bitartean, burutu eben euren lana beste lagun biak. Sasi artetik urten, eta mando lerroan ezarririk, mando bat ostu eban batek, bigarrenak, ostutako mandoaren kaprestua ta lepokoak soifñean jantsi ebazan, eta mando saillari lotu zan.

Alako baten, mandazaiñak atsera biurtu eban burua, ta gizon bat mando antzera loturik ikusi ebanean, beragana joan zan guztiz arriturik eta esan eutson.

Seme, zer egin dozu nire mandoagaz? Nora eroan dozu?.

Neu naz zure mando a, erantzun eutson ikasleak.

Eñeee... Zu?.

Bai, ni. Orain lau urte, oben baltz aundi bat egin neban, bai, ta abadeak mando biurtzea agindu eustan penitetziz. Oraintxe lau urteok bete dodaz, ta emen ni gizon biurturik barriro, esan eban ikasleak.

Arraio, arraioa. Bai, emon dautsut sorta larregi, ta zaldale gitxiegi. Guzti onen parkamena ezkatzen dautsut. Parkatzen daustazu?. Esan eutson mandazaiñak.

Bai jauna, bai. Guztia parkatuta dago. Iñoan ikasleak.

Bere basta ta guzti itxita, joan zan ikasle ori. Eta mandazaiña etxeratu zanean, mando bat gitxiagoaz biurtu zanean etxera, esan eutson emazteak.

Ene ba da ta ni... Zer... jokoan galdu dozu mando eder a?.

Itxaron, itxaron apur bat. Gauza arrigarri bat gertatu jat gaur, iñotson mandazaiñak, Iruñako seme gazte bat mandoturik ibilli da neugaz lau urte azken oneitan. Eta azaldu eutson bere andreari, ikasleak edestu eutson guztia.

Au entzunik andreak jarraitu eban, zer diñostazu, gizona?. Eta ez dautsozu parkamenik eskatu?.

Bai, andrea, bai. Baita berak be gogo onez emon.

Bai, amaika bider esan dautsut nik, mandorako politegia zala a, esan eban andreak.

Andik epe laburrean, Tafallako azokara joan zan gure mandazaiña ta an alde batetik bestera ebillela, or non ikusten daun, ikasle maltzurak ostutako mando polita.

Beragana, mandoagana, urreratu zan eta aren belarrietan ezpanak ipifirik eta ixil-ixilik esan eutson, zer beste oben baltz anbat egin dozu orain be, ala...

Erosi gura dozu? esan eutson saltzailleak, au, jakiña, ez zan ikaslea, onek arin saldu eban mandoa, mandazaiñagandik aldendu zanean.

## Lau urdailleko

Gaur izkirimiri batzuk idatziko dautsuedaz, Urtarrilla-ren aldatza ain neketsua izan ez daiten. Niretzat, egia esan, urten asierako illeak eta azkenekoak, bardin zamarrak izaten dira, beti neketsuak, baiña aren astuntasuna, gogotsu ta egunero jokatu ezkeror arindu egiten da. Baiña goazen arira, eta esan daigun erri baten jazoriko arrigarri bat.

Bere enparatza nagusian, erakusten zan gizon bat, "lau urdailleko" esaten eutsoena edo eritxona ezizenez. Erri aretan jaiak ziran eta olako ikusketak ugari izaten dira errietako jaietan.

Ikusleen artean gizon lodikote ori agertu zan, eta bein-goan jan ebazan kilo bat lursagar, amabi arrautz, beste kilo bat okela, ganera kilo bi mats, kilo biko ogi bategaz, guzti oneik lau azunberdiko ardaoz bustita.

Berari adi-adi egoan bat, asi zan oika, barriro, barriro... eta jakifña, bat asten danean enparaua atsen doa, ardiak artaldean lez, eta danak asi ziran oiuka, barriro, barriro.

Gure gizona barriro asi zan jaten eta iruntsi ebazan lengoen ganera, kilo bat macarroi ta oillosko bi, ogia ta ardaoa. Ikusleak barriro oiuka asi ziran, barriro, barriro, geiago jan dagiela eskatzen.

Orduan erakusketako jabeak, itaundu eutson gizon lodi oneri, Mezedez, barriro jango zeunke?.

Jatun onek erantsun eutson, ederto. Baiña olan jarraitzekoan, etxera afaria jaten joateko astirik ez dot izango.

Gaur egun garestiegia da olako gizon bat etxerako.

## Lurrako atsegin-lekua

Antziña gizon aberats bat, gaztelu aundi baten bizi zan bere emazte ta Atzel bere seme bakarragaz. Gizon au, Kadish eritxon eta bere etxean senide urruna zan umezurtz Aksan izenezko nezkatilla bat bizi zan. Atzel goia zan, ule ta begi baltzakaz eta Aksanek begi urdiñak eta ule gorrizka eukazan. Biok alkarregaz azi, ezi, ikasi, jan eta olgatu egiten eben eta danak uste eben alkarregaz eskonduko litzakezela zarragoak izatean.

Alako baten, Atzel gaixorik jausi zan. Bere gaixotasuna ezezuna zan, geroago ta txartoago egoan eta azkenean mutillak ilda egoala uste eban.

Au nondik atara ebala mutillak esango daustazue, bera ilda egoala.

Txikia zanean, atsegin-tokiari buruz ipuiñak esaten eutsozan iñude bat euki eban. Atsoak esaten eutson, Atsegin-tokian ez zala bear ikasketarik, ez bear egiterik, an okelarik onena jaten zala, bakoitzat berak gura ebanerarte lo egiten ebala ta ez egoala iñongo bete-bearrik.

Alper berez alper aundia zan. Ez eban gura goizeetan jagi ez ikasi. Egun baten bere aitaamaren irabaspideak artu leikezela ba ekian. Atsegin-tokira joateko lenengo il bear dogunez, mutillak arin iltea erabagi eban. Bere gurasoak arduratsu egozan eta bere emeztegaiak ez eban beste gauzarik egiten, negar ta negar baiño. Senideak al leikiena egin eben, berak bizi zala ikusi egian, baiña alperrik zan. Berak iltea bakarrik gura eban. Zergaitik ez daustazue lurra emoten?. Zuen errugaitik ezin naz Atsegin-tokira joan? esaten eban. Osagille asko joan ziran Atzelegana, baiña ezin eben ezer egin. Beste alde batetik, mutillak ez eban jaten eta berba gitxi egiten eban, orregaitik bere senideak benetan ilgo zala uste eben.



Kadish egun baten Osagille ezagun eta jakinstu bate-gana joan zan, Yoetz Osagillea eritxona zan. Aitari entzun ondoren, Osagilleak esan eutson Kadisheri, Zortzi egun barruan zure semea osatuko dot, baiña nik diñotsudan guztia egin bearko dozu, naiz ta ganorabako lez eretxi nire aginduak.

Kadishek baietza emon eutson eta Yoetz mutilla iker-tzera joan zan gaztelura. Kadishek etxera eldutean, bere emazte ta morroei, Osagilleak esango dauana egiela esan eutsen.

Yoetz eldu zanean, Atzelen logelara eroan eben eta mutilla zuri-zuri ta argal-argal ikusirik diñotse. Barauagai-tik egoan ain argal mutilla. Zergaitik daukazue ilizotz bat etxean?. Zergaitik ez dautsozue emon lurra?. Itz oneik entzutean, gurasoak larri geratu ziran eta Atzelek esan eutsen, ikusten dozue?. Neu nengoan egian.

Naiz eta Kadish eta bere emaztea arrituta gelditu, Osagillearen itzak gogoratu ebezan eta illeta egiteko gau-zak gertatzen asi ziran.

Yoetzek logela Atsegin-toki baten erako eskatu eban. Ormak saten zuriagaz jantsi ebezan, leioak ixi ta kandelak egunez eta gabaz argi egiten eben. Morroiak zuri ta egoa-kaz jantsita egozan, aingeruak bezela. Atzelek guztiz po-zik lo egin eban gau aretan. Urrengo goizean izartu zanean, logela ezezagun baten egoan eta non dagoan jakin gurarik, esan eban. Non nago?.

Atsegin-tokian jauna, erantzun eutson morroi batek.

Goşe naz. Ekarri eidazuz okela ta ardao sakratua, esan eban Atzelek.

Morroiak txalo batzuk egin ebazan eta beingoan beste morroi ta iñude batzuk agertu ziran, lepoetan egoak eukezela. Euren eskuetan ekarren okela, arrain, igali ta

gozoki ugari ta morroi bizartsu batek edontsi bete ardao onenatarikoa emon eutson. Atzelek ederto jan eban gutzia ta lo ondiño obeto egin eban. Eta nok ez olan jan eta edanda?.

Izartu zanean ez ekian eguna ala gaba zan, guztiz illunean egoalako. Ondoren, janaria aurregunean lez emon eutsoen, ona baiña bardin bardiña. Eta mutillak itaundu eban.

Ez daukazue, ogi, akeit eta esnerik, emen?.

Ez jauna, emen beti bardiña jaten da, erantzun eutson morroi batek.

Gaba ala eguna da?. Itaun barria egin eban.

Atsegin-tokian ez dago egunik ez gabarik, esan eban morroiak.

Zer egingo dot orain?. Itaundu eban Atzelek.

Emen ez da iñoiz ezer egiten, esan eutson morroiak.

Non dagoz beste Deunak?, diñotso Atzelek.

Atsegin-tokian sendi bakoitzak bere lekua dauka, iñoan morroiak.

Eurak ikusten joan naiteke?, jarraitu eban Atzelek.

Emen etxeak euren artean urrunegi dagoz, morroiak.

Noiz etorriko dira nire aita-amak eta nire emaztegaia, Atzelek.

Zure aita ondiño ogei urte geiago biziko da, zure ama ogeita amar eta Akzan Berrogei ta amar, esan eutson morroiak.

Bakarrik egon bear dot emen ain luzaro?. Zer egingo dau Aksanek?.

Bai jauna, bakarrik egon bear dozu. Aksan orain zuzgaitik itun dago, baiña laster mutil gazte bat ezagutuko dau ta beragaz eskonduko da.

Atzel jagi zan eta logelan ibiltan asi zan. Zeozer egin gura eban, baiña ezin leikean ta ganera ez ekian zer egin. Berak Aksen ikusi gura eban, berba egin lagunakaz...

Egun baten, aspertuta morroi bateri esan eutson, orain ikusi dot bizitza ez dala neuk uste neban ain txarra.

Bizi-izatea zailla da. Ikasi, lan egin, irabaspideak egin dozuz. Emen errezagoa da bizia.

Egurra ebagi ta arraiñak artu naiago dot emen egon baiño. Noiz arte egongo naz emen?

Betiko.

Betiko?. Burua il gura dot.

Illak ezin leikee burua ill. Ilda dagoz. Esan eutson morroiak.

Zortzigarren egunean, morroi bat, ondo ikasia, Atzelegana joan zan eta esan eutson, Jauna, uts bat egon da. Zu ez zara il. Emendik joan bear dozu.

Bizirik nagola esan gura dozu?, esan eban Atzelek.

Bai, ta neuk lurrera eroango zaitut.

Atzel, pozaren-pozez, aterantz abiatu zan, baiña morroiak begiak estaldu eutsozan zapi bategaz, esanez Nagusiaren agindua zala. Bere etxeko ibiltegian gora ta bera mutilla eroan eban luzaro ta azkenean bere sendia egoan gelan, begietako zapia kendu eutson. Atzelek aita-amari mosu bana emon ondoren, Aksari itaundu eutson, ondiño maite nozu?.

Bai, ondiño maite zaitut, erantsun eutson.

Orduan ezkonduko gara. Alan egin eben, egun batzuk igarota ezkondu ziran eta Yoetz Osagillea omenezko bazkaria izan zan. Adiskideak urruneko urietatik ezkonbarriei opari asko ekarri eutsoezan eta jaia zazpi egun ta zazpi gabatan luzatu zan.

Atzel eta Aksak oso pozik bizi ziran eta Atzel aberrian saleroslerik onena zan. Eztegu ondoren arte, Atzelek ez eban jakin Joetzek osatu ebanik eta guzurruzko Atsegin-toki baten bizi izan zanik. Senar-emazteak sarritan euren seme-alabei ta euren illobei Atzeleri jazorikoa ta Yoetz Osagillearen osabidea edestuten eutseezan eta beti lez itz oneikaz amaitzen eben.

Eta jakiña danez, Iñok ezin leike esan zelakoa dan Atsegin-lekua.

### **Kaxkurrio ta bere andrea**

Ipuin au Esopori irakurri neutson. Baiña, Greziako ipuinlari arek non jazoko eban, Plaentzian izan ezik?. Izan bere, erri onetan jazoten ez danik, ez da beste iñon be jazotzen.

Baiña goazan arira. Emen be ez da guztia poza ta barrea, beztela ikusi andra-gizon onein gertaera. Esopok berantzat artu ba eban bere, au Plaentziako dala, beintzat, Eibartarroi umeak giñela orrela esaten euskuen, eta orrela izango da. Edo, Esopo Plaentziarra ez ete da gero?. Kolón be emengoa dala diñoe.

Edestu daigun ba, zeatz ta meatz, eta emakumeak parkatu, orain be zuek txarto itxi bearra Nik ez dakit zergaitik, baiña beti zuek andrazkoak daukazue errua. Mexikon be gizonezkoei "Txarro" deitzen dautsee ta emakumei "Txarra". Diñoenean zeozergaitik izango da.

Kaxkurrio ta bere andrea, bata zu ta bestea ni, beti ebiltzan eztabaidan. Gizonak zerbait edan be egiten eban eta andreak gizonari, mozkortuta etxera eltzen zan bakoi-tzean... Ori da, ori, gizona etxera etorteko ordua, ori da, gizonaren ganorea ta ezitza. Zuk egiten dozu, etxea uztu ta edantegiak aberastu. Baiña ez, orrela ez da, au egun baten amaituko da, egun baten egin bear dot egitekoa. Bai, egun baten neure burua bota bear dot erre kara ta kitu. Olan betiko atsedena artuko dot.

Orrela ebillen emakumea beti, baiña Kaxkurrio be ez zan mutua, onek bere ez eukan miña agoan geldirik eta berak be sekulakoak esaten eutsozen andreari. Orrelakoa zan Kaxkurrio ta Antoniren ezkontza ondorena.

Egun baten, beste askotan lez, Kaxkurrio egundoko mozkorragaz agertu zan etxean, eta andrea ikusi orduko asi jakon oiuka, mozkor..., mozkor... beti mozkorragaz...

Ixildu zaitez, txilin ori... esan eutson gizonak Antoniri.

Zer?. Ni ixildu ganera? Zu, mozkorti bat eta besterik ez zara ta neu ixildu... baiña egun baten ixilduko naz betiko...

Orrela ba'litz... zoriontsua ni.

Zoriontsu diño zu, zoriontsu? Berealaxe bota bear dot burua ibaira... eta urten eban Antonik etxetik.

Jardun bai, esan eutson Kaxkurriok. Geiago barik, Antonik leioa idegi eban eta bere burua bota eban ibaira.

Arraio, arraioa..., iñoan Kaxkurriok bere-kautan, esan ta egin ganera. Ez neban uste egingo ebanik. Andra ona ez da, baiña orrelan ezingo dot itxi. Artu eban argi-ontsia ta urten eban andrea billa. Bazter guztiak arakatuaz, joian ibai baztarretik gora ta orretan erriko adiskide biaz aurkitzen da, Txomin ta Perugaz, eta oneik ikusirik itaunduten

dautsoe, zetan zabiltz, Kaxkurrio sasoi onetan argiaz? Anguletan?.

Ixildu zaiteze, esan eban Kaxkurriok, nire andra ziztrifak bere burua bota dau ibaira ta emen nabil aurkitu gurean.

Baiña Kaxkurrio, difnotsoe barriro adiskideak, zingirantz zoaz. Ez dakizu ba, ibaiaren urak berantz doazala?. Ur-korrontak berantz eroango eban eroatekotan zure andrea.

Bai zera... Ezagun da nire andrea ez dozuena ezagutzen. Ez dakizue ondo aren aurko-joera. Orain be, ziu nago, nire aurka egitearren gora egingo ebala. Gorantz joango zan. Ez daukat orretan zalantzarik.

### **Ibillin Israelgo erritxua**

Euskal erritxu bat dirudi izenez, baiña Palestinan aurkitzen da. Kristauak eta Maomatarrak nastean bizi dira bertan. Maometarrak bi milla biztalen dira, Gerkar Ortodoxoak iru milla, Ipar Legeko Melkita Katolikuak bosteun.

Galilean zear ondo ezaguna dana, Aita Elias Chacour da, abizen motza euskaldunen belarrietarako. Bere bizitzaren urteen erdiak, abade soifeko jantzita, bizar baltz, begiak urdin zorrotzak Aita Chacour eretxietan ez dago batera Palestinako gizartearen geienekaz. Bera, batez be, bake zalea da. Ebillin erritik urrun barik, goi-aldean, ton-tor bat ikusten da. Orain ainbat gizaldi an izan zan "Mendiko Berbaldia". Aita Chacourek jazoera orretan ipiñi gura dau ango biztanleen ardurea ta oarkuntza, Maisu onaren irakatsiak gogoratu ta jarraitu dagiezan. Orain urte batzuk Aita Chacour, On Elker Kamara Brasileko Gotzaiñagaz batu zan. Adiskideak ziran biak. Pax

Kristi ta Lagun Alkartuaren Itzaldia entzun eben Ipar Ireland aberrian. Laguntzea jarraitzeko, indarkeri gora-berrak aztertu ebezan Elias bazkide dan batzordeak zuzenduta. Aita Elias abade Katolikua da ta bere zeregiña arduretsu beteten dau. Arduratsu ta artega dabil, Toki Santuetan diran Kristau arteko ezbarditasunari begira. Baiña bere ardurarik aundiena notiñak dira. Ango Kristauak nozean bein konkortuta dagozanean, Elias Nagusiak, bere lan-arazoen ganera barriak leporatzen dauz. Alkartzeko tokiak, idaztegiak, ume-lorategiak, kirol-landak. Orretarako zurtasuna, begirune ta gizabide aundiz orniduta ego-tea bear dauala, errez sumatzen da.

Aita Eliasek gertatu dauazan tokiak eta egin dauazan gauzak, Maomatarrak naiz Katolikuak naiz Druzek naiz Ortodoxoak erabilliko dabez, bat eginda. Orain dabil Israelgo lenengo bake-biltokirako dirua batzen. Aita Eliasen abotsa une batsuetan saratatsua da. Berak gura dauan indarkeri-eza, Ebangelion, Lukasek daukazan Jesusen esakunetan oiñarritzen dau. "Sua lurrera ekarten etorri naz eta zer nik gurago iziotu daiten baiño?" Aita Elias gar-indarrez erretan dauan sua, maitetasuna da.

Ona emen James Foresti idazleagaz izan eban alkar izketaren laburpena.

Noiz izan zan Israelgo Jaurlaritzagaz izan zenduan lenengo artu-emonan?

Nik sei urte nebazala uste dot. Nire aitak esan eustan, gu sei neba-arreba giñan, Germany eritxon laterri baten, judatarrak il egiten ebezela txerren anker baten aginduz. Baiña gu ume koskorak giñan eta urruñeko barriak larregi ez genduzan ulertzen, munduaren muga barruan Germany egoanik bere ez genkian. Aitak esaten euskun andik iges gure artera, Galileara, judatarrak etozala. Baztuk ganera gure artean geratu gura ebela. Guk Kristauak

izanik ondo artu genduzan, lagundu geuntsen eta janariak eta edaririak emon bere bai. Aitak gudariei aurpegi ona ipinteko agindu euskun, eta umeak pozik egin genduan ori.

Orduan ikusi neban lenengoz gure aita ardi bat ilten, jatordu bat egiteko. Erritarrak olan gura eben eta gudariak etxeetan geratu ziran. Egun batzuk geroago giltzak agintari batek batu ebazan eta ziurtasunagaitik egun batzue-tarako urten bear gendula esan euskuen. Bera geratu zan erri-zaindari. Baiña egunak, asteak, illeak eta urteak joan dira, ogei ta amar urte ori jazo zala.

Eta zuek erritik urtenda, zelan bizi ziñien?.

Txarto, jakiña, baiña alegiñak egiten ondoen bizitze-ko. Egun batzuk. Egun batzuk orio-ondoan azpieran. Gabak otsak izaten ziran. Laster aurkitu euskun aitak atz-zulo bat. Gero erri ustu batera joan giñan eta emen etxe ustu bateko gela estu batera sartu giñan eta antxe giñan sendi guztia.

Olan ordaindu euskuen, guk ostatuz artu genduzan.

Emen amaitzen da Aita Elias Chacourren buruz aldiz-kari baten irakurri nebana. Baiña egia esan, Judatarren buruz asko idatzi da. Mendez mende erri zapaldua izan da baiña bere bizkortasuna ta gogo bizia agertu dau une larrietatik urtenez. Kondairak diñoskuenez, naiz eta kon-daira sarritan guzurtia izan, gizaldi guztietan arerio aundiak izan dauz, baiña abenda zaar au, aurrera joan da menez-mende ta bere langilletasunaren bitartez toki guz-tietan zabaldu dauz gizon ospetsuak, sarritan aberastasu-naren bitartez. Amerika ta Europa osoan zabaldua dagoz milloka, nire eritxiz umetsuak izan bear izan dabe, ba da ain beste ilketa egin arren euren arerioak eta batez be, Germanytarrak, ondifo munduan zear gizarte aundia da.



Nik gauza bategaitik, beste gauzan ganeatik, begi onez artzen dot erri au, bere abertzaletasunagaitik. Gogor jokatu dabe ta jokatzen dabe euren aberriagaitik eta ludi osoa euren adi-adidago. Or dabiltz Arabitar alper orrek, eurak zapaldu gurarik, baiña guztiz gaitz egingo jake.

Ba dauka erri onek zeozergaitik eredu izan guretzat, euskotarrantzat. Esan dodanez euren abertzaletasuna neurri-bakoa da, ori agirian dago ta indar orregaitik egiten dabe lan ikaragarria. Ez dabe galdu gura euren nortasuna ta azkatasuna ta orretarako biderik onena euren izkuntza ta kulturea zabaltzea ta sakontazunez ikastea da. Ondo ikusi dabe izkuntza dala, erri baten oiñarria ta biotza.

Oiñarriaren ganean, oiñarri on baten ganean, ezarri leiteke erririk aundiena gero biotzak, lanak eta gogo bizi batek emongo dautso bizitza egoki bat. Ez daigun ba, aitzu erri onek emoten dauskun eredu. Zabaldu daigun guk bere gure izkuntza. Sartu daigun gure erritarren biotzetan euskeraz ikasi ta egiteko gogo bizi-bizi bat eta gure etxe, kale, erri ta uri guztietan ez daitela entzun euskerea baiño.

## **Idiak egaz**

Erri txiki bateko eiztari bi egozan izparringia irakurten euren etxe aurrean eta batek esan eutson besteari. Zu Shanti, entzun emen zer diñon, Estados Unidosen idiak egaz egiten dabela. Olakorik, aundiagoak be entzungo doguz ondiño. Ba ori diño, idiak egaz eroan dabezela leku batetik bestera bitarte urrunean.

Zeren, eroan izango ebezan, egazkiñen, esan eban besteak.

Bai ba, jakiña. Barri ori orain berrogei urte esan ba zan, iñok ez eban ziñistuko.

Orain berrogei urte diñozu?, ez da oraintxe bere. Izan bere askok ez dau ziñistuko.

Zu, asmu bat eldu jat burura, jarraitu eban lenengoak. Ia, esaidazu, ba.

Izpar onegaz askari bat irabasiko dautsegu Astokillo ta Mandokillori. Arratsaldean edantegian arrapatuko doguz, esango dautsegu idiak egaz egin dabela ta eurak ezetz esango dabe, ziur. Mutil onak dira aurka egiten. Orduan guk askari bat jokatuko dautsegu laurontzat. Zer deritxozu?.

Ederto deritxot, erantzun eutson.

Arratsaldean, Astokillo ta Mandokillo eiztari biakaz edantegian batzen dira ta eiztariak esan eutsen. Ba daki-zue Estados Unidosen idiak egaz joan dirala leku batetik beste batera oso urrun?.

Ikastolako mutiko batzuk garala uste dozue, ala? esan eban Astokillok.

Ze mutiko ta mutiko bako. Guk diñoguna egia da, izparringi onetan ipinten dau, diño Shantik.

Eztabaida bat zortzen da lauren artean eta azkenean erabagitzen dabe askari on bat laurentzat jokatzea.

Galdu dozue, iñoen eiztariak, irakurri or zer diñoan.

Irakurri eben Astokillo ta Mandokillok eta jarraitu eben. Emen ipinten dauana ez da zuok diñozuen lez, au ez dago argi. Auzi au zuzentzeko epaitzaile bat bear da eta berak esango dau zein aldera jausten dan auzia. Iru izendatu bear doguz, zuek bat, guk beste bat eta irugarena, nor obeto, edantegiko nagusia.

Lurak emon eben ontzat irukotxa au ta urrengo egunean bildu ziran edantegian eta epaikari-irukotxak

agindu eban izparra irakurteko ta Shanti asi zan zeregin onetan.

New York. Asshead Bazkunak amabi idi bialdu dauz Dakotatik Txikagora egazkin aundi baten amalau orduan beterik uri bien arteko 1.500 Km. Bultziz baiño ariño ta merkeago egin ei da eroatea, ta Asshead beste amar egazkin eskatu dauz Pittsburgoko egazki-lantegi baten.

Orra da, diño eiztarik, zelan egia dan idiak egaz joan dirala, esan eban Shantik.

Zuek zer diñozue? esan eben epaikariak Astokillo ta Mandokillori.

Guk diñoogu, idiok ez dabela egaz egin, egazkinean eroan dabezela, Astokilloren erantzuna.

Baiña dana dala, idiak goitik, aizez joan dira, diño eiztariak.

Eurak ez dira joan, eroan dabez, esan eban gogor Astkillok. Ori izango litzake, Amerikara itxasoz joan dana, uger edo igerian joan dala esatea lez. Durangotik Bilbora ordu baten bultziz datorrena, ariñeketan bide ori egin dauala esatea lez. Bultziz eroaten dabenak ez dau ariñe ketarik egiten, egazkiñez daroenak ez dau egaz egiten.

Epaikariak ebatzi eben Astokillo ta Mandokillo zuzen egozala, ta beraz, askaria irabasi ebela.

Eistariak lotsatuta, ordaindu eben askaria ta alde egin eben andik, atsetik barre egiten eutseela edantegikoak.

Sekulako gogoz iruntsi eben Astikillo ta Mandokillok eiztariei irabasitako askaria.

## Bizar motzaillea

Nire auzuneko gizon batek beso bat gudan galdu eban eta bein baten lenengoz joan zan bizarra kentzen daben toki batera. Jezarri zan aulkian eta asi jakon zeregin ori betetzen bertako langille bat. Itxura danez ez zan guztiz trebea, bada ebagi baiño atara geiago egiten eutsozan bizarrak nire lagunari. Gizajoa izerditan egoan, larri noiz amaituko. Bizar-motzailleak alkar-izketa apur bat egin gurean esan eutson, Zu ezagutzen zaitut eta ez dakit zergaitik, zuri moztu dautsut bizarra orain arte, ez?.

Ez, niri ez, erantsun eutson nire auzokideak, nik besoa gudan galdu neban.

## Urrutizkiña

Erritxu bateko abade batek Igandero eroaten ebazan Meza ondoren eleiz-gelara, ipuin baten bitartez azaltzeko Kristau-ikasbideak, umetxuak.

Egun baten otoitzaren buruz egoan berbetan eta esaten eutsen umetxuari, otoi egiten dozuenean Jaungoikoagaz berbetan zagoze, baiña bera ez dozue ikusten. Jaungoikoak zuek diñotsozuen entzuten dau. Azaltasun geiago emon gurean, jarraitu eban, ara, zuek urrutiskifetik itz egiten dozuenean norbaitegaz, entzuten dozue berak diñoana naiz eta ikusi ez. Otoitza bardiña da, zuek berba egiten dozue Jaungoikoagaz baina ez dozue ikusten, bera urrutizkiñeko ariaren beste aldean dago zuei entzuten.

Une onetan mutiltxu bat jagi zan eta itaundu eban, Jauna zein zenbaki dauka?.

## **Ulea moztu**

Diru-arazoak arinduteko, emakume batek bere iru seme-alabari berak moztuten eutsen ulea ta bere gizonak iñoanetik naiko ondo. Alan da guztiz Anderrek, au zan gizonaren izena, ez eban gura izaten berari ebagi egionik. Bildur zan lagunak txantxetan asiko zirala beragaz ulea ain ondo mozturik ez ikustean.

Azkenean ausartu zan eta jezarri zan aulki baten izparringia eusketan eukala irakurteko. An ebillen bere andrea artesikaz kris ta kras bere lanean. Egunkariaren lenengo orria irakurri eban eta biurtu bear eban bigarreneara, au egiten asi zanean, entsun eban bere andreak iñotsola, mezedez itxaron apur baten, ondiño ez dot nik irakurri orri osoa.

Asmako dozue zelako burua geratu jakon Anderreri.

## **Gaixo zalea**

Lantegi bateko nagusi bat guztiz atsegin egiten jakon iñondiko gaixoaren buruz itz egiten. Bere lantegian emakumeak ziran geien eta eurakaz sarritan egoten zan gai onen buruz itaunka euren sendi ta adiskidearen osasunagaitik. Berak gaixo guztiak euki ebazan. Esaten ba eutsoen batek urdaillako miña eukala, berak be gaitz ori eukikoa zan ta bardin beste edozein gaixoaz.

Egun baten, adarra jotearren, lankide emakume batek, esan eutson, nire loba bat osaetxean dago. Bere aurpegia poztu zan, ba eukan zeretaz berba egin eta arin itaundu eutson nezkatileari.

Zein osa-gelan aurkitzen da?.

Jaio-gelan, erantsun eutson, nezkatileak, Zu ez ziñan iñoiz egongo toki orretan ez?

Bai, zelan ez, esan eban gizonak, zuk dakizunez gizonzkoak bere olako tokietan jaioten dira.

### **Itzaltasuna**

Iru mutil koskor egozan bein baten, ikastolatik urten ondoren etxerantz joiazala, euren osabaen itzaltasunaren buruz eztabaidan.

Eta batek esaten eban, Nire osaba bat abadea da, ta danak deituten dautsoe, "Reverendo".

Antza dagonetik, au Ameriketara jazorikoa da.

Bigarrenak esan eban, nire osaba bat "kardenala da, ta notintsak "Eminencia" esaten dautsoe.

Irugarrena ez zan atsean geratu, ori ez da ezer, nire osaba bat 150 kilo astun da, ta bera ikusten dabenean, esaten dabe "Dios mio".

### **Diru-aurreratzea**

Guraso batek beti esaten eutsen bere seme-alabari, gizabiderako onbide onenatariko dala diru-aurreratzea.

Egun baten bazkari orduan, semetariko bat agertu zan izerditan arnasea be artu eziñik eta ostaz ostaz esan eutson bere aitari, aita, gaur berrogei laurleko aurreratu dodaz. Autobusean etorri bearrean, oiñez arifñeketan eldu naz etxera.

Ez dozu iñoiz ikasiko, urrengoan taxis baten atsean etorri zaitetz arifñeketan eta olan diru geiago irabasiko dozu.

## **Erregenak**

Errege egun aurea zan eta aita batek bere seme-txuak zer gura eben jakiteko, itaundu eutsen.

Umetxuak, idatzi dautsozue Erregeri?.

Bai aita, idatzi dautsoegu, esan eben umeak.

Eta zer eskatu dautsezue? itaundu eban aitak barriro.

Sarriago etorri daitezela, aita. Urtean bein bakarrik etortea oso gitxi dala.

## **Lapurrek alperrak dira**

Bein baten, nire kamiogaz nenbillela, tramankulu onek ikoti batzuk egin ondoren bidean gelditu zan aurrera joan eziñik. Laster igarri neban kaltea zein zan. Bateria, deritxona, agortuta egoan eta ez neban beste biderik izan, urrengo erriraño joan eta bateri barri bat erosi, asmu onegaz abiatu nintzan nire tramankulu apurtua lepoan arturik. Eguna guztiz bero zan, sargoripean, andik ordu batera izerditan eldu nintzan errira, tresnategi batera sartu ondoren konturatu nintzan dirua zori txarrez kamioan itxi nebala aitzuta.

Tresnategiko arduradunari esan neutson bateri barri bat bear nebala, baiña dirua aitzuta itxi nebala ta beraz ez neukala dirurik ordaintzeko. Arduradunak bateri barri bat emon eustan nire berbearen orde.

Itzuli nintzan kamioara ta ezbearra zuzendu neban arin. Asti labor bat barru tresnategian izan nintzan zorra ordaintzeko. Orduan esan neutson arduradunari, ia zelan itzi eustan bateri barria zorrean, ni berantzat ezezuna izanik?.

Begira jauna, esan eustan arduradunak, gaurko be-roaz bost kilometro bateri astun bategaz dabillena, ezin leiteke izan lapurra.

## **Ume galdua**

Ama-semeak uri aundi bateko kaleetatik zear joiazala, ain beste notin artean umea galdu zan, au ez da arritze-koa, larregitan jazoten dira olako ezbearrak. An egoan mutil gizajoa larri, zer egin jakin barik.

Alako baten, uri aretako uri-zain bat urreratu jakon eta bakar-bakarrik ikusirik itaundu eutson, zer jazoten jakon.

Jauna, esan eutson umeak, ikusi dozu kale oneitatik zear ama bat, neu lako ume barik?.

## **Zalduntasuna**

Beiñola joian gizon adifeako bat, zaartzaroa urrago eukana, autobuz bete bete baten zutunik, berantz begiratu ebanean ikusi eban mutil gazte osasuntsu bat, nasaitasun aundienagaz jezarrita. Aldi aretan gazteak jezarlekuak itxiten eutsezan eurak baiño zaaragoei.

Mutillak begirakada bat zaarrari eginda gero esan eutson, Jauna, parkatu, zalduntasuna ondiño ez da il, es uste izan il danik. Nekez illa neu naz.

## **Lana**

Ander nire adiskidea azpaldion guztiz makal dabil, ez da ondo aurkitzen eta orregaitik Osagille bategana joatea erabagi dau. Nik lagundu dautsot eta etxe aurreko edan-



tegi baten itxaron dautsot. Agertu danean itaundu dautsot, zer esan dautsu Osagilleak?.

Ezer ez, betiko leloa, esan eban Anderrek, ez edateko, ez erreteko, nire gaixoarentzat guztiz kaltegarriak diralako. Baiña goizeko seiretan jagi ta lanera joatea kaltegarria dala ez daust esan eta orixe da, ain zuzen be, ni makaltzen nauana, lanera joateak.

Zer izan bear dau lanak kaltegarria, lana gizona goraltzen dauan gauzarik ederrena da, osasun-iturria, esan neutson.

Gabon-abestiak dira orrek, erantsun eustan. Ori olan balitz, uste dozu aberatsak itxiko leukeela lana?.

## **Lo kukutxua**

Lazaro Errotako, Meza nagusira joan zan Igande baten, Meza nagusia beti izaten da apur bat luzea, batez bere mezara gitxitan joaten diranentzat. Beti lez abadea asi zan itzaldia egiten eta gure Lazaro loak artu eban.

Abadea bere berbetan gogor ebillen eguneko Ebangelio azaltzen eta egun aretan beste Lazaroarena zan, Lazaroren berbizkundera. Une baten abadeak esan eban, arrigarriak dira Kristok egiten ebazan mirariak. Bein baten joan zan Kristo ildakoaren etxera, Lazaronera eta ilda ikusi ebanean Lazaro esan eutson, Lazaro jagi zaitetz. Berba onek abots aundiagaz esan ebazan, indartsu ta gure Lazaro lotatik atara eban, onek, ikaraturik eta begi biak igurtzita, diño, Jauna parkatu, lo-kukutxu bat baiño ez da izan. Oben txikia Lazarontzat.

## Oillarra

Gaur egunean ugari dabiltzan Txangolari orreitariko bat, joan zan Lemoatik gora Gazteiz bidean. Dima aldea zan eta baserri baten aurretik igarotean, oillo bat zapaldu eban bere berebillagaz eta, jakiña, il. Gelditu zan txangolaria etxe aurrean, urten eben berebilletik eta artez joan zan etxe aurrean egoan baserritarragana kaltea ordaindu nairik eta esan eutson, ikusi dozun lez, oilloa garbitu dautsut eta ordaindu gura dot. Eutsiz milla laurleko, uste dot ondo ordainduta dagola.

Bai, baiña... oillarra be ordaindu bearko daustazu, erantzun eutson baserritarrak.

Oillarra?. Oillarrik zapaldu ez ba dot? esan eban txangolariak.

Ez, baiña..., jarraitu eban baserritarrak, gure oillarra guztiz maitamendurik egoan oillo onegaz eta ezbear au jakiten dauanean, ilgo da biotz-naigabez. Iñoan baserritarrak.

Txangolariak irribarretxu bat egiñaz, beste milla laurleko emon eutsozan.

Oneik baserritarrak dakien beste. Latin irakatsi izan baleutse, zer ez ete eban asmauko gure Patxikok. Patxiko zan gure baserritarraren izena.

## Ezkontza

Emakume adiskide bik topo egin eben kalean. Iru urte inguru ziran alkar ikusi ez ebela ta ba euken alkarrei zer esan. Euren alkar-izketan batek diñotso besteari, Zelan Pantxika?. Zelan da zure bizitza?. Ez diñaustazu ezer,

alako zure maitasun aundi aren buruz, zure Pako kutune-  
tzaz.

Ez eistazu aitatu be egin, esan eban bestea.

Zer, ba? Asarratu zifien ala? jarraitu eban lenengoak.

Bai zera... urte bi luze dira eskondu gifala.

## **Gizona sortzea**

Nik uste neban eta zuek be or ur ibilliko zarie, Jaun-  
goikoak gizona lenengo egin ebala, erpel batetik, eta  
gero, onen saietsetik, emakumea. Orretantxe be oker ei  
gabiltz, lengo egun baten adiskide batek esan eustan lez.  
Lenengo emakumea sortu e i eban. Eta gauza txukunago-  
rik ez eitekela asmau ondoren, amaitutzat emon eban  
bere lana.

Baiña gerotxuago konturatu ei zan, izate ain txukun  
ori zaindu, ondo jagon eta bere erosketak guztiak ordain-  
duko eutsozan lagun bat bear ebala, ta... orduan, orduan  
sortu ei eban gizona.

Nire adiskideak, adarra jotekoasmus esan ba eustan  
ori, ez dakit, baiña egia dala edo antza daukala, ezin  
ukatu.

## **Errokea**

Mutillak, iñoan Kerolimok adiskide artean. Zalapatar  
gogorra euki dot gaur goizean nire andreagaz.

Eta nok irabasi dau erronkea? itaundu eutson taldeko  
batek.

Neuk, gizona, neuk. Gogor asi da baiña makurtu da,

arraioa. Mututa itxi dot, esan eban Kerolimok.

Ori da ori Kerolimo, gizon bat ba daukagu gure ar-tean, beintzat. Baiña esaiguzu, mezedez, zelan izan dan. Jakin gura dogun ezkeru, zer esan dautsozun ori lortze-ko. Esan eban taldeko batek.

Ara ba, errez izan da, diño Kerolimok. Amaitu dira eztabaida guztiak, esan neutson, erosi eizu jantsi ori. Erosi daikezu jantsi ori. Eta kitu.

Emakumeak beti irabasi, betikoa.

### **Griña txarra**

Eustaxio nire auzunekoa, gizon langillea ba da, baiña bere gauzatxuak daukaz, griña txar batzuk. Bere ogi-bide barrian ille bete daroa ta pozik dabil. Lengo egun baten deitu eutson bere nagusiak eta an doa gure Eustaxio kezka betetik, zer entzungo ete dabenez.

Entzun dodanez, diñotso nagusiak, zu ez zara gizon guztiz zintzoa ta ituna. Zurrutadak, joko ta emakume-zale zarala diñoste.

Eustaxio gizajoa, aldizka asi zan erantzuten eta diño, zuzendari jauna... ni... ba...

Nagusiak ebagi eutson berbatea. Egon zaitez ixil-ixilik, itz bat be ez geiago. Gaur gabean batera, alkarregaz, urten bear dogu biok.

### **Otsoaren ardi jateak**

Nik ba dakit otso-ipuiñak bildur emoten dautseela irakurlei, batez be ume diranei, baiña gaur emen edestuko

dodan onek ezin leio dardara aundirik iñori eragin. Bai zera dardara. Otso gizajoa zutunik ezin da egon. Otso guztien aitita dirudi, ia agin zaar bi be ez daukaz. Bere gaztaroan eiztari ona ta trebea ei zan, baiña azpalditxuan, beintzat ez eban agertzen trebetasun aundirik. Buruko miña makala emoten eutson eguneroko janaria aurkitu bearrak. Jo artaldiko artzo batzuekana, eta arin eukazan artzain ta txakurra atsetik. Baserrietako olloetara joaten ba zan, oillo ordez makillea aurkitzen eban. Bene-benetan be, ia aitz batetik bere burua botatzeko egoan. Itxaropen guztia galduta eukan.

Baiña goseak sarritan burua argitu egiten dau, eta otso oneri be itxaropen izpi bat sortu jakon bere barnean. Asmakizun bat bururatu jakon.

Izan be, egia da mutil, iñoan bere buruari, azkenean asmatu dot biziera on bat. Artzaiña lez agertuko naz ardien aurrean eta armusu ta bazkari ederrak eukiko dodaz oraindik aurrera. Buru apur bat eukiteak zer balio dauan, gero... Adurra erion abotik gure otsoari pozaren pozez. Zelan baiña artzain jantsi?. Non aurkitu artzai jantsiak?.

Ainbeste bider makillaka ta txakurren zaunka artean eragin eutson artzaiñagana bira bat egiteko asmua artu eban. Bear bada orduntxe izango eban erea artzain ta txakurrei ordurarteko zor guztiak ordaintzea. A, poza otsorena. Berak uste eban lez urtengo eban guztiak, ardiak lo, txakurrak lo, artzaina be lo. Une berezizko bat eukan bere asmakizunak betetzeko.

Naiko bildurrez, baiña iñon gelditu barik jatsi zan artzain ta txakurrak egozan lekuraño. Atzainagana eldu zanean, arreta aundiz, soiñeko, oiñeko ta makillea ostu eutsonzan. Gero soiñekoak jantzi, ipiñi oiñetakoak, maki-  
llea artu eskuetan eta artzain bat balitza lez, ardiei adi-adi

ta kiñuka asi jaken. Irribarrea be urteten eutson gizajoari noizik bein. Eta nori ez, alako kolkokadea kolko barruan ikusiaz?. Egunero ardi bat janda bere, ba eukan zati bate-rako. A izan eban, beraz, asmakizun argi ta etorri onekoa. Eta bere garaipena ospatu gurean, artalde guztiaz zelai-zear ibillaldi bat egin bear ebala bururatu jakon. Ardirik gizenenak begiz joteko erea be izango eban onelan. Baiña ardiak lo egozan eta izartzeko, txistu edo zeozer abots egin bear eban. Baiña, gure otso lelo onek, txistu ordez ez dau aitzak eurak be ikaratuteko erako orro izugarri bat egiten?.

An zan larritasuna, arifieketa ta iges egitea edo egin gurea. Ardi guztiak igeska mendi alderantz, txakurrak ausi-ausika, inguruan artzaina erdi billosik, beste ludiko gauzaren bat ikusten ba egoan lez...

Arraio, arraioa, esan eban bere artean artzainak. Ez daroa ba, buztena agirian?. Otso madarikatu ori, lapur lotsabakoa, il bear zaitut esanda, beingoan atrapau eban otsoa ta makilleagaz bero-bero eginda bialdu eban artzai-ñak gure otsoa, txakurren ausi ta aginkada artean.

Bildotz ta ardiak jan bearrean, ilteko zorian urten eban artaldetik. Gizajoa, bera bai, jan eben laster bela ta mi-ruak. Urrengo bide ondo baten aurkitu eben ilda.

## **Arte ta ingea**

Inge me-me baten lepotik arte sendo batek barre egiten eban. Eta erruki antzera au ifnotson ingeari. Zu zara makala, inge errukigarria. Zergaitik ez zagoz beti zuzen ta tente, neu egoten nazan lez, aizerik aundienagaz be burua makurtu barik?. Begiratu niri, burua edoietaraño jasoten dot, eta ez dot ezergaitik berau makurtzen. Ekaitz gogorrenari be aurpegi emoten dautsot.

Orixe esanda gerotxuago aize-bolada ikaragarri bat eldu zan, eta ingeak, burua makurtu bakarrik egin eban, arte arroak, ostera, lurra jo bear izan bear eban aizearen indarrez.

Au sarritan jazoten da, arroak eratsi ta ezereztuak diran bitartean, apala errez-errez igesi ei dau arriskuetaik.

## **Eskribaua ta errotaria**

Erri txiki baten bizi ziran, adiskide aundiak biak, eskribau bat eta errotaria. Beti ebiltzan txantxetan alkarregaz, eta adarra joteko asmuz onelan esan eutson eskribauak errotariari.

Entzun dot zerura errotaririk ez dala joaten. Zergaitik ete da?.

Errotariak bere buruko uleak igurtzirik eta geldiro geldiro esan eutson. Nik ez diñotsut asko joaten diranik, baiña bat, beintzat sartu zan bein.

Eskribauak jarraitu eban, esan, esan, zelan izan zan ori?.

Nik ez dakit zelan sartu zan, baiña bai, zelan ebillan, esan eban errotariak.

Zelan ebillan ba?.

Jai aundi bat egitea erabagi eben zeruan, errotaria bertan ikusi ebenean. Eta eskribau bat bear orretarako, diñotso errotariak.

Zetarako eskribaua?.

Jai aretako gora-berak artu bear ziran gero ingietan gordetzeko. Asi ziran aren billa, eskribauaren billa zeruan, jo batera ta jo bestera. Alegin guztiak egin arren, alperri-

koa izan zan. Zeru osoan ez eben aurkitu eskribau bat be.

Ikaskai ona emon eutson errotariak.

## **Aitaren laguntza**

Sendi bateko umetxua ikastolara asi da ikasten. Bai ikastolara orretarako joaten da.

Bere aitak geiago irakatsi gurean, ikastolako ariketak egiten lantzen dautso.

Baiña bere aitak ikusirik larregi zala laguntza ori, esan eutson, ez dozu uste, alako baten irakaslea konturatuko dala, etxean egindako ariketak, zure ariketak, neuk egin dagozala?.

Bai egia da, uzte dot sumatzen asi dala. Atzo esan eustan eziñekoa dala ainbeste burugabekerineuk bakarrik egitea.

## **Lapurra**

Bein baten lapur bat epai-etxera eroan eben lapurretan arrapatu ebelako. Lapur berezia zan, ostu ebazan al izan ebazan gauza guztiak denda aundi baten, baiña dirua bertan itxi eban.

Jazoriko onen auzia eldu zanean, epaikariak itaundu eutson lapurrari, Zelan izan da ba, ainbeste gauza ostu ta diruari ukaturik be ez egitea?. Dirua bertan itxitea?.

Zu be asarre nigaz epaikari jauna? erantsun eutson



lapurrak, nire andrea be asarratu da nigaz dirua bertan itxi nebalako.

## **Danen naierara ezina**

Gogora jatost nire aitagandik entsuneko ipuin bat. Ipuin onek diño, antzina baten joizala aita- seme bi euren astoagaz senide batzuei ikustaldi bat egitera, arein errian jaiak ziralako. Antzina ta ez ain antzina, senideen errieta-ko jaitara joatea bearrezkoa zan, orain oitura au apur bat galduta dago.

Astoa traillan artuta joan ziran ba gure aita-semeak eta gizon talde bateaz topo egin eben. Euren albotik igarotean entzun eben zelan batan batek iñoan, ori da zuzengabekeria, asto gazte ta indartsu daroe ta eurak oiñez doaz. Au entsunik, gizonak artu eban bere semea eskuetan eta ipifi eban asto ganea, ondoren jarraiturik euren bidean. Andik laster beste emakume ta gizon talde baten aurretik igaro bear eben. Talde aretan be ba egoan zer esan, euratariko batek esan eban, mutil gaztea asto ganean ta gizon adifñekoa oiñez doa, ori ez da zuzena. Orduan gizonak igon eban asto ganera ta aita adifñekoa ta mutil gaztea biak, joiazan astoan. Jarraitu eben euren bidean ta barriro beste talde bat aurkitu eben euren bidean. Talde onen eritxia be ez bardifña zan, ori txarto dago, esan eban batek, gizon gazte ta mutil osasuntsu bi asto gizajo baten ganean.

Jatsi ziran biak asto ganetik eta an egozan zer egin ez jakifñik. Seme, esan eban aita, zer egingo dogu?. Ez jaku geratzen besterik, astoa lepoan artu ta eroiea baiño.

Irakurle, gogoan euki ezizu, beti egongo da norbait egin dozunagaitik zeozer esateko, batzuk ontzat artuaz beste batzuk ez ain ontzat eta askok txartzat, baiña ba

dago bide zuzen bat gure bizitzako jokaerarako. Ez eizu iñoi izi iñori txarrik egin, kalterik egin. Ondiño ba dago zuzenago bat, niretzat zuzenena. Lagundu ta mezede eiozu zure lagun-urkoari naiz eta zure arerio izan. Izan bedi gure eguneroko elburua jokaera au.

## **Edurra, azeria ta txakurra**

Egun areitan edurtze aundia za. Goi ta bee, guztia egoan zuri zuri. Baserri baten jazo zan au. Baserriak txakur barik ez dira egoten eta gure ipuiñeko baserrian, ba egoan bat, batzuetan loturik atari aurrean eta beste batzuetan azke. Edurtze ta egun otsetan azkatu egiten eben, otsak il ez egian.

Egun baten agertu jakon txakur oneri, azeri bat, gosez eta otsez ia erdi illik. Dar-dar egoan gizajoa, ta txakurrari esan eutson. Zu txakur otsez il bear dot. Itxi eidazu oillotegian lo egiten biar arte, biar goizerarte beintzat.

Azeriari oillotegia itxi?. Txakur ederra izango nintzake. Ederto zainduko dot orretara nire jabearen oillotegia, esan eutson txakurrak.

Ez dot ezer txarrik egingo, lo bakarrik egingo dot, bene benetan diñotsut. Gogoratu eizu beztela non igaroko dodan gaba. Ez dot ezer txarrik egingo. Nire itza emoten dautsut, iñoan azeriak.

Azkenean txakurrak amore emon eban. Azeriaren itxurea ikusirik, beragaz errukitu zan eta oillotegian sarzen itxi eutson.

Biramonean be edurtze bardiña zan eta azeriak txakurrari barriz be oillotegiko ostatua eskatu eutson.

Txakurrak guztiz asarratutik esan eutson. Ez daukazu

lotsarik, zelan ausartzen zara barriz oillotegia itxitea?. Etxeko andrea guztiz asarre dabil oillorik onena uts dala ta. Ta txarrena neuri botatzen daust errua.

Ni ez naz izan, esan eban azeriak arpegi gogorragaz.

Zu izan ez ba zara, nor arraio izan da ba?. Txakurra geroago ta aserreago egoan.

Ba, ni ez naz izan, jarraitu eban azeriak, arpegi gogorragaz.

Zu izan ez ba zara, nor izan da ba? diñotso txakurrak. Eta orain zelan zindotuko dot nik, jabearen aurrean, azeria oillotegian eta ni gaba guztian ixil ixilik egon nazala?. Autortzen ez ba dozu, ez ba diñozu egia, ez dautsut geiagotan ostaturik emongo.

Ara ba, neu izan naz, neuk eroan neban eta jan dot, esan eban azeriak burua apur bat markurturik.

Eta emon zeustan itza?. Zelan ez dozu betetu emon zeustan itza?, diñotso txakurrak.

Gogoa ba dot iñorena ez artzeko ta bene benetan gura neban bete nire itza, baiña sarritan azekeria aundia-go izaten da gogoa baiño, iñoan azeriak. Ez dot geiago egingo.

Ez, ez dozu geiagotan egingo, ez, ez dautsut emongo aukerarik orretarako. Ez dautsut itxiko oillotegia ostatu lez. Gura ba dozu neure txabolea itxiko dautsut eta bertan be lotuta lokarri onegaz, diñotso txakurrak apur bat lagundu gurean.

Baiña lotuta? esan eban azeriak, bera azke bizitzeko jaioa zan. Ori jazoten da larregitan gure gizarte onetan. Norberen azkatasunagaitik, bakoitzaren azkatasunaren alde borroka gogorak, baiña besteak al ba dira menperatu, zapaldu ta bear bada il.

Ezer egin bear ez ba dozu, bardin da, ederto lo egingo dozu, epel epeletan, esan eutson txakurrak.

Azeriak ez eban ikusten urten biderik gaba aretan aterpean lo egiteko ta azkenean baietza emon eutson.

Biramon goizean, txakurra joan jakon azeriari ta esan eutson. Egun on, azeri jauna. Ondo egin dozu lo?.

Ederto, esan eban azeriak, emen txakur usaifña ba dago baiña. Noiz azkatuko nozu?.

Beingoan, itxaron apur baten. Txakurra ba doa oillo-tegira ta oilloei esan eutsoen. Atso zuen laguna eroan ebana, lotuta daukat nire txabola aurrean. Etorri zaitetze neugaz.

Oillo guztiak aldran ta karkaxaka urten eben oillote-gitik eta joan ziran azeriaren aurrera, jarri ziran bere aurrez aurre. Txakurra guztiz arro egoan eta oilloak arriturik eta itaunka alkarregaz, zelan txakur batek azeria lotu leiken.

Salkuntza egin daustazu, diñotso azeriak txakurrari.

Baita zuk bere niri atzo, erantzun eutson txakurrak.

Zergaitik dakarstazuz oillo guztiak nire muzturraren aurrera?, esan eutson azeriak.

Atzo eroan zenduana zein dan jakiteko, diñotso txakurrak oilloaren aurrean.

Zelan ikusiko dot emen, atzo eroan ba neban?, erantsun eutson azeriak.

Oillotxuak, au da, atzo zuen lagun Melisa eroan ebana?, itaundu eban txakurrak, lenengo aurkitu ebana eroan eban?.

Orixo da, bai, esan eben oilloak algaraka, baiña ez eban eroan lenengo aurkitu ebana. Bai zera. Gaba osoa

azke ebala esan euskun eta guztiak benan banan ikusten ibilli zan eta guztiak ukututen zein lodian dagon jakiteko. Azkenean ederrena, lodiena eroan eban.

Iraun au ez dautsut parkatuko, esan eban min miñez azeriak.

Iraiña bakarrik ez zan. Ba dakizue zer dan, azeri batentzat ainbeste oillo eder eder bere muzturren aurrean ikustea ta bera gosez illik egotea?.

Azeriari pizti zuur bat lez begiratzen jako, baiña ipuin onetan ikaskai ederra artu eban gure txakurragandik. Ludi onetan be azeri larregi dagoz, iñoren lepotik bizi gura dabenak, beste batzuen izerdiaz eurak ondo bizi, neke gitxiiaz eta lan gitxiagoaz, iñori lan eragin eta eurak irabasiak zakeleratu. Ez gaitez an izan iñoiz azeriak, gizon zintzoak baiño.

## **Adigabea**

Andrazkoak ez dira bakarrik adi-gabeak, gizonetan be ba dira oneitariko izakiak. Emen ikusiko dozue zer jazo jakon On Ujuniori...

On Ujunio gizon langille ta zintzo bat da, beste asko lez bere sendiagaz bizi da, andra ta seme-alaba biaz. Diru-etxe baten egiten dau lan eta ondo ikusia da bere lankidekaitik.

Lengo egunean, goizean, guztiz nasai egoan bere etxean akei-esnea artzen, egun aretako egunkaria irakurten. Bere gogoa ez egoan gela aretan, irakurten egoan izparretan baiño. Ikusirik akeita amaitu ebala, esan eutson bere andreari, laztana, atara eidazu beste akei-esne bat.

Bere andreak guztiz arriturik, egunero lanera joaten

dan ordua igarota egoala ikusirik, esan eutson, baiña ba dakizu ze ordu dan? Gaur ez dozu joan bear lanera ala?. Zein jai da gaur, ba?.

Errekontre, esan esan gizonak. Lanean nengoala uste neban.

## Ezkontza

Zendi bateko alaba gazteenak, ezkontzeko asmua azaldu eutson bere aita-amari. Baiña ezkontzea gauza garrantsitsua da. Esakera zaar bat dago gure errian diñoana, "ezkondu bein bakarrik egiten da". Bai ba dakit, ori leen zan, orain zazpi bider arte ezkondu ei leiteke.

Baiña goazen arira, ipuin onetako gurasoak, senargai ezagutu gura eben ezkondu baiño lenago, gauza egoki ta ziozkoa. Egun baten eroan eben mutilla bere gurasoak ezagutzak egiten bere emaztegai maitaren etxera. Onelako unetan, bazkari ona izaten da, ez dakit lotsea edo larritasuna apurtzearren ala zergaitik, baiña olan izaten ei da beti. Jan eben ondo ta edan be neurrian, larregi barik, baiña ondo. Bazkaldu ondoren mutil gaztea barreka ziardun bere aitagiñerrabagaiagaz eta eldu ziran euren alkar-izketan astun ta itunara, ezkontzataz berba egitera, ta zaarrak diñotso mutillari. Zu gazte zeren billa zatoz nire etxera? nire alabearen billa ala nire diruaren billa?. Sendia au, nezkatillearen sendia, diruduna zan.

Gazteak, apur bat lotsatuta ta burua makurturik diñotso. Ara Jauna, nik zure alabea maite dot eta orregaitik ezkondu gura dot beragaz. Niri diruak ez daust bat be lebarik.

Erantzun polita ez, irakurleak. Zuek be emongo zeunkee ontzat eginkera au. Maitasuna ondasunaren ganetik.

Baiña gure ipuiñeko gizonak ez eban olan pentzatzen eta esan eutson mutillari.

Joan zaitez emendik, alde egizu etxe onetatik. Guk ez dogu bear gure etxean lelorik.

## **Itxurea**

Nire adiskide emakume bat, alarguna bera, guztiz erakargarria da. Bein baten bere lankide baten ikustaldi bat euki eban bere etxean. Arratsaldea zan eta asti luze bat alkar-izketan egon ondoren, illuntzean urten eban gizonak berebillan bere etxera joateko asmuz. Baiña zori txarra, alegin guztiak egin arren, berebillak ez eban abiatzen. Ezin eban mugidu ta azkenean itxi bear eban emakume-alargunaren etxe aurrean.

Urrengo egunean berebilla bertan aurkitzen zan, an jarraitzen eban, alargunaren etxe aurrean.

Gizona ez dakit zelan, baiña joan zan bere etxera. Andreak, alargunak, gizona aldendu ondoren, agerkizun aundi bat ipiñi eban berebillean, izki aundiakaz olan iñoa-la, "Nasai, taxisen joan da bere etxera".

Norberaren itxura ona egoki da zaintzea. Ipuiñak ipuiñak dira, baiña jazo leitekez olako gauzak, bai ala ez,?. Nik uste dot baietz. Zer deriotxozue?.

## **Telebista gallua**

Beste sendi baten be, ba ebiltzan alkar-izketan senar-emazteak, andra-gizonak dago obeto. Euren gaia, egun onetan, telebista-gallua zan. Auzoko danak euken tramankulu au, baiña eurak ez. Eta jakifia, ezin izan auzo-

koen ezbarदिñak eta orregaitik andreak erabagi eban erostea. Gizonari baimena eskatuaz esan eutson. Koxanton, olan dau izena gizonak, dirua atara bear ko dozu?. Dirua bear dot erosten joateko. Baiña Koxanton ez da dirua iraziten zalea, nekez ta lan gogorren bitartez irabasita daukaz bere apurak. Belarri atsean atz apur bat egिñez eta baserritarren maltzurkeriaz दिñotso bere andra maiteari. Ezin daiteke ba, Maiñexi maitea, beingo baten dirurik diruetxetik atara. Guk diruak eroan ondoren diru-etxera, beste askok eta askok eroango eben, eta erein diruak gurean ganean egongo dira ta ba dakizu zer gertatzen dan, gure diruan ganean dagozanak kendu arte, guk ezin dogu dirurik atara.

Zer jazo ete zan, erosi eben tramankulua ala ez?. Emen gauza bi jazo eitekezan. Bata, andreak bakeagaitik, gizonaren urteera ontzat emotea ta tramakulua erosi barik gelditu. Bestea, andreak bere ortzak atara ta garratz ta sutsu, bearrezkoa zan bezelako erantsuna emotea ta dirua atara diru-etxetik, naiz eta berengo maillan aurkiru diru au.

## **Ameriketara zetarako**

Baserri bateko mutil gazte batek, Ameriketara doala aurreko egun baten दिंhaust.

Ameriketara, zergaitik zoaz?, itaundu neutson.

An urte batzuk eginda diru pillo bategaz etortearren errirantz, esan eustan.

Ekarriko ete dozu ba... diru pillo ori, esan neutson.

Batzuk ekarri dabe beintzat, jarraitu eban berak.

Askok ez, zenbat dira amabost urte oneitan erritik



Ameriketara joan diranak?. Berrogei bat bai, ta zenbat itzuli dira errira diruaz?, esan neutson. Or daukazuz Urlia, Berendia, Sandia, or daukazuz... Bai, ba dakit laugarrena zein dan. Guztira lau atsera etorri dira, eta zenbat diru ekarri dau, geien ekarri dauanak?.

Berrogei milla erreal ekarri dauana bere, ba da, esan eban mutillak.

Orrexek geien, Amerikan zazpi urte eginda, esan eban.

Eta gitxi deritxozu ala?. Emen zazpi urtean nok aurreratu dauz orrenbeste diru?.

Aurreratu ez?. Bai aurreratu, orain azalduko dautsut, esan neutson.

Orixe ez daustazu argi ipiñiko, iñoan berak.

Ara, Ameriketatik ogei milla laurlekoaz etorri dana, zazpi urtean bertan egonda, nil lez dakizu zuk be, zelako bizieraegin dauan an, berak sarritan esan daukuz ango gora berak. Ardaorik ez edan, ez errekiñik, ez akeitik, bizi izateko bear bearrezkoa dana bakarrik erosi, orren gogoa ez da izan besterik, dirua aurreratzea baiño. Orrek egin-dauana, emen egin ezkeru, neuk difoutsut, Amerikara joan barik orren beste diru emen be aurreratuko dozula. Begira, ara, or doa lzerdiko Joshe, orrexek esango dausku ango bizieran barria, azalduko dausku arazo au.

Mezedez Joxhe, itxaron apur baten. Zenbat alogor irabasten dozu Bilboko nasan?, esan neutson.

Berrogeta bost errial, erantzun eustan.

Adi egon ba, nik uste dot Ameriketan lez bizi izango balitz, aurreratuko leuka zala egunean ogerleko bat baiño geiago. Atara daiguzan kontuak. Urteak daukaz irureun eta irurogeita bost egun, urtean ba, orren beste ogerleko aurreratu. Or ez dago ez bairik, argiago ezin. Zazpi urtean,

zazpi bider irureun eta irurogeita bosteko edo ogerleko.

Bai alantxe da, ezin ukatu lei, esan eban mutillak. Ene alantxe da.

Beraz, Ameriketara joan bearrik ez dago dirua aurrera-tzeko, emen be egin leike an lez, emen be orretarako gogoia ipiñi ezkeru, dirua egiteko asmuz, alperriko diru irazitze guztiak kendu ezkeru. Ortxe daukazu nasan lan egiten dauan Joshek ondo begiratu ba dautso irabasten dauanari, emendik zazpi urtera, zelako dirutsa eukiko dauan.

Ameriketara ez joan ba, euskotarrok. Etorri ona, Bilbo aldera ta aurreratu dirua. Urte bete batzuk barru, zuen etxeetatik urrun barik moltso polit baten jabe izango zarie. Ameriketara asko doaz ta an dabiltz barregarri geienak. Asko dira etorri gura dabenak atsera euren etxeetara, ta ezin dabe. Ameriketan be, lan egin bear bizi gura ba da ta askoz geiago dirua aurreratu gura ba da. Emen be ba dago an beste irabaste-leku.

## **Berezkuntza**

Nire auzoko mutil gazte bat joan zan egun baten lan-tegi batera lantoki billa. Bertako nagisutariko bat asi jakon azterketak egiten eta azkenean esan eutson, ba daukazu berezkuntzik lan anbatan buruz?.

Al izanik Jauna, gurago neuke zuzendaritza taldean izatea, esan eutson gazteak.

Zer? zoratuta zagoz ala, leku ori eskatzeko? esan eban nagusiak.

Zergaitik? bearrezkoa da lan orretarako? esan eutson mutillak, zorotuta egotea?.

## Autezkundea

Amerikako Ohio uri aundian, auteskundeak ziran eta orrelako aldietan jazoten dan lez, andragizon bi alderdi baten alde ebakundeak egiten ebiltzan etxerik etxe. Deitu eben ate baten beste askotan lez eta urten eban neskatilla gazte lirain batek ulea kizkurtzeko tresnakaz bakarrik, ori da, guztiz billosik.

Emon eutsoezan orri batzuk barbarik egin barik eta aldendu ziran etxe aretatik ixil ixilik. Kanean zear joiazala gizonak esan eutson emakumeari. Itzala da, esan eban guztiz arrituta bere lagunagaitik.

Bai, egia da. Nire sasoian nezkatilla batek ez eban urtengo atera olako tresna batzukaz buruan, ulean, ipiñita.

## Legea

Nik beste adiskide bat daukat izokiñek arrapatzea guztatzen jakona. Lanik ez daukan guztian joaten da bere tresnakaz ibaira. Erbestera joan zan baten ango txalupa bat eta gizon bat artu ebazan laguntzeko. Ondo ordainduta gero. An joan ziran ibai gora naiko urrun ta geroago ta urrunago. Bere laguntzaillea, artega ta larri joian, gizon onek, nire adiskideak, baimenik ez eukalako arrantzan egiteko eta laguntzailleak esaten eutson zein zerga ipiñiko eutson urizaiñak, atrapau ezkeru, txalupea kendu, arrantzatresnak kendu ta ganera eun milla laurleko ordaindu bear, baiña berak, gizonak, arrantzaleak, jarraitzeko aginten eutson.

Azkenean arraunean joianak, geiago jasan eziñik esan eban, au larregi da niretzat, esan bear dautsut, uri-zaiña neu nazala.

## Baltzolako gizona

Dima deritxon erri txikian, koba edo arri-obe batzuk dagoz, baltzola deritxonak. Orain larogei bat urte izango da gitxi gora bera, emen esango dodana jazozala.

Egun baten, Baltzola auzuneko mutiko bat, koba aldean ardi-zain ebillen, jezarri zan kobearen berengo zulo aurrean eta an egoan txilibitua joten edo onetariko zeregin baten. Onetan entzun eban sarata bat koba barruan eta burua biurtu ebanean ikusi eban barrutik gizon bat urteten, edo gizon antzekoa, ikaragarri bat beintzat, ule ta bizarra gerriraño eukazan eta soifnekoak triskil-triskil eginda. A zan bildulgarria.

Mutillak, zoratuta lez, iges egin eban, baiña gizona atsetik deidaka egoan ez bildurtzeko bera be gizon bat zala ta ez eutsola ezer txarrik egingo, eta guzti au, euskeraz ifnotson. Mutikoa arin-arin joan zan bere etxera ta edestu eutsen etxekoei jazoriko au. Oneik ezin sifistu eben, koba aldera urreratu ziran eta..., antxe egoan basatia. Alkar-itz egin eben eta basatiak esan eutsoen argin bat bear ebala, koba barruan lan bat egiteko, bertan urte batzuk egiteko asmuz etorri zala ta.

Baltzolarrak Dimako endorea jakitun ipifii eben, onek txapel okerre esan eutsoen bada-ezpadan, oneik joan ziran kobara, atxilotu eben basatia ta Arteagara eroan eben eta gobernadoreari izparra bialdu.

Basatia bilbotarra ean, eukidun sendi batekoa, itxas gizona, ontsietako Nagusia. Gorbean, aurrerako urte bian bizi izan zan basatia lez eta barriro Baltzolarra etorria orretariko urte batzuk an igaroteko asmuz.

Esaten eben, gizon arek ez ebala jaten bedarkia baiño, bein be ez okelarik ez koiperik. Jantsi edo soifneko arin bategaz ibiltan zala, Negu ta Uda, ta otsik aundienagaz

be ez ebalá ipinten soifeko geiágo. Jakifia, okerra arin zuzendu eben, eta itxas-gizona barriro itzuli zan Baltzolará bere náia betetzeko.

### **Senarraren ordezkóak**

Beifíola andra gazte bat alargun geratu zan, au ez da arritzekoa, egunero jazoten díra onelako ezbearrak. Bere andra lagunak joan ei jakozan euren samin-agurra edo atsekabea erakustera eta bide batez adierazotera, beste ezkontza barri bat ondo etorriko leiokela oindiño andra gaztea zan ezkeró, il jakon senarraren utsunea betetzeko beste senar gazte bategaz.

Ezkerrak emon eta gero, alargunak au esan eutsen bere andra lagunei. Ara, nik il jatan senarraren utsunea betetzeko ez dot bear senar barririk, txakurra ta katua daukadaz ta. Txakurra egun osoan egoten da ixildu barik, ausika ta asarre beti egoten da egunero, eta katua, barriz gabetan ez dot ikusten ifioiz be nire etxean urrengo egunerarte. Olan da, diñotsuet, ez dot izaten senar-utsunerik.

### **Umearen negarra**

Gizon batek, topo egiten dau kalean ume bategaz. Umetxua negar baten aurkitzen da ta gizonak lagundu gurean diñotso, Zergaitik egiten dozu negar?. Zergaitik zagoz negarrez?.

Umetxuak, sotinka erantzuten dautso. Ogerleko bat galdu dodalako.

Eutsi ogerleko bat eta ez eizu geiágo negarrík egin eta ipiñi eutson bere eskuan diru ori.

Baiña mutikoak negarrez jarraitzen eban. Orduan gizonak barriro diñotso, orain zergaitik egiten dozu negar?. Zergaitik jarraitzen dozu negarrez?.

Ogerlekoa galdu ez ba neu, orain bi eukiko neukazalako, erantzun eutson mutillak.

### **Arotz gitxi-jakiña**

Ara emen, zer jazo zan erri txiki baten. Bizi ei ziran gizon jakintsu ta arotz gizajo bat, au iñoiz be erritik urtenekoa.

Lenengo aitatu dogun gizona jakituna ba zan, baiña aitzukorra be bai eta gabarik geinetan bere etxeko ate nagusia itxiten ebanean ogera joateko, aitzuten jakozan bere txakurra ta katua ta oneik kanpoan geratzen ziran. Goizalderantz etorten ziranean etxera ta atea ixita aurkitu, txakurra asten zan ausika ta katua miauka, ta orduan euren jabeak ogetik urten bear izaten eban atea iregitzeko abere bi onei.

Jakintsuak arazo au zuzentzeko, arotz gizajoari agindu eutson zulo bi egiteko ate nagusia bean, aundia txakurarentzat eta beste txiki bat katuarentzat.

Au entzutean, arotz gitxi-jakiñak, esan eutson, Jauna, zulo bakar bat naiokoa da ta bera aundia txakurra sartu daiten eta katua zulo onetatik sartuko da etxera.

Olako jazorikoak izan leitekez, naiz eta oso jakintsua izan.

### **Lakarioa**

Senar-emaste bi, eztabaida gogorrean ebiltzan illuntze baten.

Zuk gura dozuna esango dozu, iñoan andreak, baiña jakin eizu ni ez nintzala ibilli zure atsean. Au argi ta garbi euki eizu zure buruan.

Gizona be, ez zan geratu ixilik, erantsun eutson, bai, ondo be bere andreari. Lakarioa be ez da ibilten saguaren atsean, baiña arrapau egiten dau.

## **Zigorra**

Mutiko bi, ikastolako lana aurrean, jolas orduan, alkarrei muturrak berotzen ebiltzan. Onetan agertu zan irakaslea ta bieie esku banatik oratuaz, esan eutsen. Ikastolara biok, eta zigorrez 500 bider idatzi bearko dozue bakoitzak bere abizena, etxera joan baiño lenago.

Ez da eskubiderik orretarako. Bidegabekeri aundia da ori, esan eban batek.

Zer dala ta da bidegabekeria? esan eutson garratz irakasleak.

Orren abizena Ea dalako ta nirea Gabikagogeaskoa.

## **Geroago ta garestiago**

Bai, egia da, gauzak beti dagoz garestiago. Olan ba goáz, ez dakit nora elduko garan. Olan ebiltzan alkar izketan andra adiskide bi, eguneroko erosketatan egon ziran egun baten. Atzo baiño garestiago dagoz gaur gauzak, esaten eutson batek besteari. Egunetik egunera guztia doa gora, aragia gora, arraiña gorago, indabak gora, guztia doa gora. Olan jarraitzen ba dau goratze onek, senar bi gitxienez bearko doguz janariak erosteko.

## **Edantegian obeto**

Pellori ta nori ez, izaten jako atsegintsu ardaoa. Bear ba da larregi. Egun baten, sarritan lez, beranduarde iraun eban Pellok zurrutadaka, edantegirik edantegira bere adiskide batzuekaz, betikoakaz. Gabaz berandu, etxerako ordua zala ta, urten eban asmu orregaz eta joan ziran bakoitza bere bidetik euren etxeetarantz. An joian Pello bere. Bidea zabalak izan arren edo bear ba da, zabalagoa bear ebalako, orra or non zapaltzen dauan berebil batek. Gizajoa azur batzuk apurtuta Bilboko Osaetxera eroan eben.

Bere etxeok ez bear au jakin ebenean, beingoan joan ziran semea ikustera. Amak naigabez beterik difotso, ene semetxu biotzekoa, baiña zer dala ta egoten zara ain beranduarde edantegian?.

Ara ama, erantsun eutson semeak, edantegian ez nau zapaldu berebillak. Oba neban bertan geratu ba nintzan gaur arte.

## **Dirua emon**

Txanton eta Txomin adiskide aundiak dira, sarritan ibiltzen dira alkarregaz ardao batzuk artzen kaletatik zear. Olako egun baten Txantonek esan eutson Txomiñeri. Ede-rra egin dozu, ogei milla ogerleko itxiko zeuntsozan ba, Kalixto lotsagalduari?. Gizajo bat besterik ez zara zu. Galdu dozuz diru orrek eta dirua ez bakarrik.

Gizajoa ta kokolo itzala. Ba dakizu zer egin dauan Kalixtok zure diruaz?. Iges egin dau erbestera zure emaz-tegaia lagun dauala, esan eban Txantonek.

Ba dakit guzti ori, aurretizik nekian. Zertarako emon



neutsozala uste dozu ba?. Beragaz, nire emaztegiaiaz iges egin daian.

## **Koxantonen beorra**

Koxantonek beor bat eukan bere lanetarako. Goiz baten, beorra lanerako gertatzen egoala bere amagiferrabea urreratu jakon eta une beratan beorak ostikada bateaz lurrera bota eban amagiferrabea ta Osaetxera eroanda bertan il zan.

Urrengo egunean egin eutsoezan illetak eta notintsa aundia izan zan eleizkizunetan. Baiña au arrigarria, bat izan ezik gizon ezkonduak ziran. Oitura dan lez, elezkizunaren ondoren an joakozan dan-danak agur-samiña emoten. Azkenengoa ezkongaiia zan eta onek eskua emotean esan eutson, samin-aldi onetan lagundu gura dautsut.

Ezkerrik asko biotz-biotzez, erantsun eutson Koxantonek. Zu bakarrik zaitut adiskidetzat.

Zelan ba? Ni bakarrik? Besteak zer esan dautsue ba?, itaundu eutson bere adiskideak.

Koxantonek guztiz naigabetuta, esan eutson. Ia beorra saldu gura dodan.

## **Mutil lotsatia**

Mutil lotsati bat joan zan bein baten Joshegana eta bere aurrean aurkitu zanean, aldizka-aldizka ifñotson. Emen nator..., zuri... zerbait esatera... zera... esan gura neuzkizuna da... gura neukela...

Bai gizona, esan eutson Joshek mutillaren berbetea ebagiaz, bai. Orretarako ez eizu izan lotsarik. Ezkondu

zaitেকে beragaz. Mutilla Joshen alaba gazteenagaz ebillañ luzaro.

Zer diñozu? Ezkondu... Nogaz? esan eutson mutillak.

Neure alabeagaz, mutil Mirentxugaz. Ez dozu zuk ori gura? esan esan Joshek.

Ba... gaur... ostera... ez nentorren ba. Nik eun milla laurlako emon eistazuzala... orixe gura neban, diruaz urri nabil eta...

Eun milla laurleko? iñotson Joshek. Bai ta zera be. Zelan emongo dautsudaz ba, ezagutu be oztaz-oztaz egiten zaitut eta?.

## **Bizibide ona**

Bilboko Erruki-etxea eralgiten ibilli ziranean, egun baten zoritxarrez, bertan aldamio baten lanean gizon gazte bat lurrera jaus zan.

Gizon gizajoa, argin bat zan, guztiz maillatuta ta zau-rituta Basurtuko Osaetxera eroan eben, naiko txarto. Gizona sasoikoa zan, gizon gazte, ona ta ixilla, baita be beargiña, euskalduna, Bizkaiko erri txiki batekoa.

Osaetxetik urten baiño lenago, Erruki-etxeko eragintza amaitu zan eta bere argiñ-lagunak sakabanatu ziran, ba-koitzak al eban lekura, etxera edo beste eragintze batera, lana aurkitu ba eben.

Urte batzuk geroago, areitako argin bat, Durangotik Bilbora joan zan eta Anton Deunaren inguruan, Erronda-ko kaletik joiñala, kale ukondoan, gizonezko batek, eskeko antzekoa zan bera, irri-barre egiñaz esan eutson, emendik zabailtz adiskide?.

Bai, esan eutson besteak, ezin ezagaturik.

Zuk ez nozu ezagutzen, ez?.

Ez, ba...

Ez zara gomutatzen, Erruki-etxean alkarregaz bearrean ibili gifñala, ta bein zaurituta Osaetxera eroan ninduela?.

Bai, oraintxe gomutatzen naz, zelan zabiltz gizajo ori? Ezkean ala?.

Bai, olantxe da, eskean nabil. Astia ba daukazu, etorri zaitetz neugaz Somerako ardantegi batera ta bertan amai-katakotxu bat egingo dogu biok, ardao zuri ta guzti. Goazen neuk ordainduko dot, oraingoan beintzat. An edestuko dautsut neure bizitza zelan izan dan.

Joan ziran, ba, biak Zomerara, sartu ziran edantegi baten, mai baten jzarri eta pitxar bana ardao zuri edan ondoren, eskekoak agindu eban lukinka egosia maiara ekarteko, ogia ta beste pitxar bat ardao. Bereala, gogorik, onenagaz barriketan asi ziran.

Zer jazo jatsu, ba? ifñotson argifñak eskekoari. Ez ziñan osatu ala?.

Ara, nik Osaetxetik bialdu ninduanean, ez neukan indarrrik lanerako, ez nintzan gauza ordu launerako bear bat egiteko, asi orduko izerdi larriak urteten eustan.

Makal egonak egiten dau ori, diñotso besteak.

Alan da, jarraitu eban eskekoak, bearrerako gauza ez nintzan, ez neukan ondasunik, ez aita-amarik, ez neba arrebarik, ludiaren erdian bakar-bakarrik aurkitzen nintzan, zer egin une larri aretan? Nora joan eguneroko ogia lortzeko ta zelan? Egünero jan bear da, zakela etsipetuteko baiño ez ba da bere.

Aurkikera itzala benetan, esan eban adiskideak.

Ain itzala. Goseak il bear ninduan, ta lotsaren lotsez, neure begiak lurrean josita ninduzala, eskean asi nintzan. Ai, zelako lotsak igaro bear nebazan lenengo egunetan.

Baiña zu eskean astea, zeu gogortu arte izango zan.

Bai ba, bein gogortu ezkeru, barrero lanean asteko asmuz.

Ez ziñan gogortu ala?

Bai, guztiz. Illebete batzun barruan guztiz ederto nen-goan, baiña nik be neure kontuak atara nebazan.

Ze kontuak dira orrek? diñotso adiskideak.

Ara, argintzan baiño alogor askoz aundiagoa ataraten neban, bi bider aundiago gitxienez eta neure buruari esan neutson, onetara zeure bizi-bidea eroan zeinke neke aundi barik, eta argintzan lan gogor eta neke aundiaz, olan baiño gitxiago irabasiko dozu, erdia be ez, aukera daukot, txarrena artzen ba dot, ludian danik astorik aundiena izango naz.

Eta zure buruak erantsun eutsun...

Ez izateko astoa, eskean jarraitzeko, ordurako lotsak be botata neukazan.

Orduan, orrelan ederto atarako dozu bizia?.

Ez daukazu bizi-bide oberik. Egin bear dana da, apala izan. Nik Aitagure bat esaten dot beti etxe beratan illakaitik, baiña bene benetan, biotzez, ezer emoten ba dauste, ezkerak emoten dautsedaz, esanez, Jaungoikoa izan be di zuekaz. Ezer emon ezik, ez ipiñi bein be arpegi txarrik, burua makurtu ta beste baten izango da esan. Ardura aundia daukat ardao usaiñik sumau ez daiten. Eta gizona, ez dakizu, ez zeunke siñistutko zenbat gura dausten, zelako txerea egiten dausten danak.

Zekulako bizi-bidea zuzendu dozu, orduan. Lotseagaitik ez balitz gogoak emon leikio norberari be bide ori artzea, esan eutson argiñak.

Bizi-bide onek daukana da, ondo jantsita ezin zara ibilli. Eskekoak obeto emoten dau jantsi zirzillekaz. Osterantzean, azke bizi da, gura dauanean ibilli, gura dauanean etzun edo jazarri, iñok ez dautso agintzen, lapurren bildurrik be ez dauko... bera baiño obeto ez da iñor bizi.

Dirua be aurreratuko dozu, ez?.

Ainbat daukat aurreratuta oraingo. Orain arte lez jarritzen ba dot, edaten ez ba dot eta apal ta bigun izaten ba naz, uste dot zaartzarorako zeozer batuko dodala.

### **Txotxopin eiztaria**

Erritik apur bat kanpora urtenda, mendira bidea artuaz, pago aundi baten kerizpeko etxe zaar baten bizi da Txotxopin eiztaria.

Berrogeta amarren bat urta dauz or-or, bakarrik bizi da, bere aita-amak il jakozanetik, bakar-bakarrik ez, lagun bat dauka, Txuri, bere erbi-txakurra. Zuek ez dozue euki-ko Txotxopinen entzuterik, ba da, albistarietan eta liburuetan ez dabe iñoiz aitatu bere izenik. Nik oster, adiskide zaar bat dot Txotxopin, eta adiskerik esku zabalaretariko ganera. Amaikatxu azpilkada janekoak gara alkarregaz, Pantxineneko edantegi zaarrea. Zozo-biragarroak, erbiak, oillagorak, eperrak eta abar, guztitarikoa, Txotxopinen eiz-izkillu aurrean jartzen zan guztia.

Ez daustazue sifistuko baiña, Txotxopin lako eistaririk ez da sortu ta ez da sortuko Euskalerra osoan, a zan eiztaria a. Etorten jakonan eun txori batera, eta, pin pun danbada bi ta guztiak jausten ziran lurrera. Urten eikion

otartetik erbirik bizkorrena, ez eutson adar askorik joko, ez, erbi onek, ankar gora botako eban lenengo danbadan. Eta, aun da miragarria, bereun-iza bat erabilli barik geienetan.

Bereun-iza ibilli barik eta eizan egin?. Eziñekoa da, ez? baiña ez Txotxopinenzat. Entzun, entzun, siñistu gura ez ba daustazue.

Goiz baten, bere Txuri-erbi txakurra artuta, mendirantz joian Txotxopin, erbitan. Gitxien uste ebanean, Txurik erbiren baten aztarrena artu eban, ausika asi zan, urduri ebillen batetik bestera, buztenari eragiñez, erbia noiz aurrean ikusiko. Zuur egoan Txotxopin, eiza-izkillua eskuan artuta. Erbiak ziran, eperdi biko erbi-gizen bi mendian gora iges. Txakurra atsetik joaken, Txomin eiza-izkillua begi ondoan jarrita adi-adi, olako baten eragin eutson katuari, baiña danbadarik ez. Zelan botako eban ba, bereunik ez ba eukan?. Erbiak, ostera, iges egin bear eutsoen, batek ba daki norantz. Zer egin?.

Arraio, arraioa, ez daustazue iges egingo ba, esan eban aderez eta pratikeran eroian argizaria artu eta satitxu bat sartu eban izkillu barruan. Ariñeketan joan zan tontortxu batera. Txuri an ebillen or-emenka erbiei aurrea artzeko gogotsu, olako baten agertu jakon erbi bat, bietatik aundiena ta beragana zuzen etorkion. Ipiñi eban eiza-izkillua sorbaldean, eragin katuari, ta danba. Baita jo be erbia ta bekoki-bekokian jo be ganera. Erbia, biribilketa batzuk egin ondoren, aurrera joian estratzan gora, argizari ta guzti, iges aurrera. Estratzan gora joiala, jira-bira bat egin eban eta bidea artukeran, beste aldetik etorkion erbi-lagunagaz topo egin eban, eta ez dira erbi biak geratzen argizariagaz bekokiz alkar josita, ez aurrera, ez atsera!. Eldu zan Txotxopin eurekana, ta erbi bie berba gozo batzuk esan ondoren bota ebazan lepora.

## Ur beroa

Edantegi baten gizon adiñeko bi alkar-izketan egozan. Egun aretako gaia izan zan, emakumeakaitik gizon zapalduak diranen buruz.

Argi dago, esaten eban batek, nire etxean ni nazala agintzen dauna. Ni naz nagusia nire etxean. Adibide lez esango dautsut atso jazo jatana. Bart konturatu nintzan ur berorik ez egoala etxean eta sarataka ta oika asi nintzan eta bost miñutu baiño lenago zuzendu zan arazo au.

Ixil-aldi labur bat egin ta gero, gizon onek jarraitu eban. Ezin dot ezelan de tresnarik garbitu ur otsagaz. Zuri ez jatsu jazoten bardin?.

## Egaztiak

Guztiok dakigu Afrika ingurua guztiz atseratua dala. Langabetasuna, gozea, gaixoa, ez jakintasuna eta abar. Beste erri aberatsagotatik notintza aundia joaten da Afrikara txangoz, geienetan opor-aldietan. Ara emen, onetarikoko bateri jazorikoa.

Gizon onek, atserritar onek, ikusi eban Afrikaro erri batetik joiala, zelan gizon batek bere semea zigor bategaz joten ebala. Jakin gurean, zergaitik olan bere semea astintzen eban, atserritarrak aitari itaundu eutson, Zergaitik joten dozu mutiko ori?.

Begira jauna, erantsun eutson Afrikatarrak. Ergel onek gure oillotegiko atea idegi dau, ta egazti guztiak iges egin dabe.

Nik ez dot ikusten, esan eutson txangolariak, ekintza orretan mutilla olan joteko.

Illuntzerako egazti guztiak etxera itzultzen dira.

Orduan gizonak, besoak zeruetara jasorik, diñotso. Orrexagaitik ba, egazti orrek ez dira nireak.

Beran lapurretako irabasteak egaz egin eutsoen.

## Semea

Patxo, nire auzo erriko gizon beartsu bat, erriko jaietan abadearen etxera joateko mezua eukan. An batu ziran erriko alkatea, idazkaria, osategiko ugazaba ta inguruko beste jauntxu batzuk.

Patxok, bere antzera beti erdi-gosez egoan seme bat eukan eta naiz eta deitua ez izan, gura eban eroan bazkari orretara. Abadearen maiara eroeteko gogoa eukan betekada bat egin egian.

Bazkal ordua eldu zan, gure maikideak jazarri ziran mai inguruan eta oitura zan lez, bedeinkatu bear zan maiea jaten asi baiño lenago. Patxo izendatu eben egikizun onetarako, ta gure Patxo onelan asi zan, Aitaren eta Espiritu Santuaren izenean...

Zu, Patxo, esan eutson abadeak mai burutik, semea non itxi dozu? Semea?.

Arraio arraioa, baita egia, izan bere... eta berealaxe leioara urten eban eta asi zan daika leiopelan egoan bere semeari. Seme etorri zaitez bazkaltzera. Abade jaunak zure utsa suzmatu dau.

Patxo ta bere semeak eroan eben egun aretan egun batzuetarako janaria euren sakeletan.



## **Arratoiak**

Kale ertz bateko zulo baten, antziñatik ikusten ez ziran arratoi bi aurkitu ziran eta alkarrerri arrera ona egin ondoren eta maitasunez agurtuaz, esan eutson batek besteari. Lodi-lodi ikusten zaitut, zer egiten dozu ain gizen egoteko?. Itauna egin eban arratoia guztiz argal egoan eta jakin gura eban bere adiskidearen biziera.

Ara, ni kamioi aundi baten nabil, ara ta ona, geratu barik. Kamio onek urun zorroak, gaztai pilloak eroaten dauz uri aundietako dendatara. Ni bidean ederto betetzen naz. Gura dozu etorri?, esan eutson arratoi lodiak.

Bai, zelan ez, ia nik bere betetzen dodazan nire saietzak eta kentzen ba dot gosea nire urdailletik.

Sartu ziran kamioan biak eta an joiazan gaztai pillo baten artean aze ta bete egiten. Pustuta biribil biribil egozan arratoi biak. Baiña zorion utsa ez da iñoiz ludi onetan izaten eta emen be jazo zan ezbear bat. Kamioari gurpilla zulotu jakon eta gelditu zan bide ertzean.

Gizon bi joiazan kamioan, bata berebil-gidaria zan bestea bere laguntzaillea. Oneik ikusi ebenean, zein zan jazorikoa, esan eutson batek besteari, zu Mikel, ekarri eidazu katua.

Gure arratoik biak entzun ebenean, katua ekarteko entzun ebenean, an izan zan anka egitea ta larritasuna. Arin txiki eben euren egoitza ta iges egin eben alboko basotxu batera.

## **Ezkon-barriak**

Ezkon-barriak egin eben euren ibillaldia ezkondu ondoren. Esti illargia, asti zoriontsua baiña laburra, bizitzan

bein bakarrik egiteko. Parkatu, ni atseratua naz. Ba dakit orain zazpi bider arte egin leitekela ezkontzea. Ondo ibilli ziran andra-gizonok, Kanarias edo olako itxasalde baten. Ondo jan, obeto edan, lo ta atsedean zenbat gura eta guztia iñok gertuta. Ori da biziera. Baiña amaitu zan.

Etixeratu ziranean, lenengo goizean, ixiltxuan jagi zan gizona emaztea izartu ezteko ta etxea zeatz apaindu eban, gozari ederra gertatu bere bai ta azpil polit baten ezarriaz eroan eutson bere emazteari ogera.

Oo..., ene senartxu maitagarria, esan eutson emazteak. Nabaritu zaitut lanean, ba dakizu zuk etxeko lanak egiten, polito egin dozuz. Milla ezker laztana.

Bai, ba dakidaz etxeko lanak egiten, erantsun eutson gizonak, baiña gaur egin dodan lan au, ikas-bidetzat izan daizun egin dot eta biartik aurrera zeuk egin bearke dozu, gure maitasuna eten ez daiten.

### **Ezitze ona**

Gaur egun ezitze ona guztiz urria da, baiña ondiño geratzen da apur bat, orain ikusiko dozuen lez.

Notintzaz beterik joian autobus baten emakume bat bere umetxua iztarratan jezarrita, joian emakumea, ama, guztiz polita ta erakargarria zan.

Aguretxu bat be autobus berantan zutunik aurkitzen zan, eta umetxuak olan ikusirik esan eutson bere amari, ama, itxi bear dautsot nire jezarlekua zaldun zaar oneri?.

### **Emakume bardin-bardiña**

Beiñola, emakume bat, orain be amakumea, baiña gizonok beti zagoze emakumeakaitik berbaz eta eurak

barik ezi zarie bizi. Bai, emakumea zan eta denda aundi baten sartu zan zeozertxu erosteko asmuz, ba da jakiña, emakumeak beti dagoz ezer barik ipinteko. An ebillen agertoki guztietako soifnekoei begiratzen bere gozaroako bat lortu gurean. Olako baten nabaritu eban beste emakume bat, bere irudia bete betea zana, bere gain bardin bardiñekoa, bere ibillera bardiña eukan, arpegia berana zan, jantsia be margo ta eginkera bardiñekoa. Ezbardintasun bat eukan beragaz. Naiko lodiago zan. Betaurrekoak ipiñi ebazanean konturatu zan egiagaz, bere irudia zan izpillua baten dizdiratuta.

## **Martin Luther King**

Martin Luther King, gizon baltz ospetsuak bere erabagiak ekandu onatan artzen ebazan.

Bein baten, "Conferencia del Liderato del Sur" deritxon batzarretik, zeifñetan bera sortaillea zan, bertako langillen baten aienapena artu eban, batzarreko diru batzuk beraganatu ebazalako.

Egun batzuk aurrerago, langillea bere aurrean agertu zan guztiz goibel, barriro bere lantegian artu egian. Gurari ori lortu gurean.

Luther Kingnek, batu ebazan bere laguntzailleak eta onelan babestu eban lapurketa egin eban gizon a.

Zer egiten da pekatari bategaz? Jaurtzen da bakarrik ludira?. Iñor egotzi bear dogu bertatik?. Ala zaindu bear dogu ta bere utsak edo okerrak zuzendu?.

Ara emen, gizon zintzo ta argi baten egikera guztiz kristaua.

## **Ni belgikatarra naz**

Au, ostera Frantzin jazo zan. Edantegi baten egozan alkar-izketa mamitsuan gizon bi. Goizeko irurak ingurua zan eta bata naiko argituta egoan, "farol" bi gitxienez eukazan eta bere albokoa zirikatzen ebillen naiko luzaro. Azkenean onek azpertuta esan eutson. Mezedez, itxi eidazu baketan, naikoa da, guztiz moskortuta zagoz. Txarto egiten dozu ainbeste edanagaz. Ez dakizu millaka frantzez ilten dirala urtero edari-gogorragaitik?. Ez zaitu bildurtzen orrek?.

Ezelan be ez, erantsun eutson moskortuta egoanak.

Egiz diñozu ori?, itaundo eutson bestek. Zergaitik ez?.

Ni belgikatarra nazalako.

## **Emaztea ezagutu**

Aita, diñotso umetxu batek bere aitari, ba dakizu zer esan dauskun irakasleak?. Afrika aldeko uri batzuetan senar-gaiak ez dabela ezagutzen euren emaztea izango dana ezkon aurreko egunarate. Gauza bakana, ez?.

Seme, erantzun eutson aitak, Afrikan bakarrik ez da jazoten ori. Emen ur-ur be ikusi zeinkez olako jazorikoak eta ondiño aundiagoa, emaztea ez ezagutzea ezkondata gero be.

## **Ixil-ixilik**

Umetxu bat lenengoz eroan eben bere gurasoak ikas-tetxe batera, au ez da arritzekoa. Urtero asten dabez

millaka umeak euren ikasketak. Umetxu au, umetxuak beti dira azkarrak euren aita-amarentzat, baiña ez, umetxu au azkarra zan. Lenengo astea igaro ebanean ikaste-txean, esan eutson bere amari, ama, astia galtzen nago, ez dakit irakurten, ez dakit idazten... eta ganera ixil-ixilik egon bear dot, ez dauste itxiten berba egiten.

## **Emakumea ta mezea**

Jai egun baten senar-emazte bi joan ziran goizeko Meza Nagusira. Eleizatik urtenda gero andreak esan eutson bere senarrari, ikusi dozu aurreneko aulkian jezarrita egon dan emakumeak eroan dauan jantsi polit eta garestia?. Eta zure alboan egon dan emakumeak eroan daun jantsi urdin lotsa-gabea?. Eta nire aurrean egoanaren ibai-muzkerrezko narruaz egiñeko zorroa?.

Gizonezkoak, geinetan olako gauzari begira ez dira egoten, ta emakume aren senarra onetariko bat zan eta erantsun eutson bere emazteari, Ba ez, uste dot lo-zorroan geratu nazala.

Emakumeak begirakada luze ta gogor bat egin ondoren, jarraitu eban, ez dakit zetarako zatozan eleizara.

## **Ospe ona**

Erri txiki bateko etxetxu baten andra-gizon bi bizi ziran, emakumea irakaslea zan, baiña bere azke aldietan antzerkietan laguntzen eban eta orregaitik sarritan urteten eban bere etxetik antzerki-soiñekoakaz eta geinetan ez-bardiñak.

Gizon zaartxu bat bizi zan euren etxe aurrean, zaar-zaridun bat eta astia eukan lez, begira egoten zan, zer

egiten eben bere auzokideak. Alako egun baten, emakume onen gizona ikusi eban eta beragana urreratuaz esan eutson, Zelan lortzen dozu ainbeste emakume zure etxean sartzea zure andreak jakin barik?.

Ez dakit, ze erantzun emon eutson, baiña bai bere andreari emon eutsona, onek itaundu eutsonean, esanez, Esan dautsozu egia?.

Bai zera, esan eban gizonak, eta gero nire ospea...

## **Ezitze ona**

### **Ardonazka**

Gudari-etxeko gudari bat guztiz moskortuta eldu zan gaba baten bere tokira. Urrengo egunean bere nagusiak deitu eutson eta itaundu eutson, atso zergaitik etorri ziñan alako moskorragaz?. Ez dakizu ori emen zigortu egiten dala?.

Parkatu jauna, esan eban mutillak, ez dot geiagotan egingo olakorik. Atso lagun txarrakaz ibilli nitzan, barriro ez naz joango eurakaz.

Zelako lagunak ziran orrek? jarraitu eban nagusiak.

Danak ziran ardonazkak, jauna, esan eban gudariak ta orregaitik nik edan bear nebazan danan txola guztiak.

Orain, ba dakizue, ez da ibilli bear lagun txarrakaz al izaniñ. Lagundu daitzuela edaten, moskortu ez zaitezten.

## Laguntzarik gura?.

Goizalde baten gizon bat, gaba osoa bere lagunakaz edantegitik edantegira ibilli ondoren, joan zan bere etxerantz, bere barruan lagun polit bat eroala. Asti luze bat egon zan bere etxeko ate aurrean, giltza sarralluan sartu eziñik. Ardao larregi edanda ori jazoten da ta.

Berari adi-adi egoan beste gizon bat minutu batzuetan eta olako baten urreratu zan beragana ta esan eutson, Adiskide, gura dozu giltza zuloan nik sartzea?.

Ez, ori ez da nik bear dodan gauzea, baiña mezedez, utsaliko ba zeunkio etxeari mugidu ez daiten...

## Arlote bi

Bein, ez dakit zein urtetan, ez da zein erritan, arlote bi, biak aundiak, gorputzez ez ba ziran be, bai arlotekerian, joan ziran ardantegi batera ta arrapau eben izugarrikoko moskorra.

Urten eben nozbait, gabean berandu, goizaldean goizetik, ardantegi orretatik sabu-sabuka ta eldu ziran erriko eleiz ondora, beragaz topo egin eben eta aurreratzeko ez eben billatzen biderik, jo batera ta jo bestera ta beti eleizako ormakaz aurkitzen ziran.

Shanti, esan eutson batek besteari, gura dozu traba egiten gaitun eleiza au, bultzaka aurrera eroan dagigun?.

Gura dozuna, esan eutson besteak.

Biak orduan kendu ebezan soifetik auren jakeak eta baztar baten itxita, asi ziran bultzaka, aupadaka, esanez, aup... aup...

Ordu lauren igaro baiño apur bat lentxuago etorri

jaken ixil-ixilik euren ezagun bat eta barre algarak ozta ozta gordetzen ebazala, baztarreko jake biak ekuetan artu ta aldendu zan.

Besteak aapadaka jarraitzen eben. Alako baten euretariko batek nekaturik begiratu eban jakeak itxi ebezan lekura eta jakerik an ez ikusirik, esan eutson lagunari, Shanti, nire ustez urrun eroan bear izango dogu eleiza au.

Zergaitik diñostazu ori, Txomin? esan eban besteak.

Ba, gure jake biak atsean gelditu dira, ikusi be ez dodaz egiten da.

Ipuiñak ipuiñak dira, ta au be ipuiña izango da, baiña olakoak edo antzekoak jazoten dira ardao larregi edan ezkeru. Barregarria izaten da sarritan moskor batek esaten dauazan lelokeriak entzutea.

Ez zaitez ba iñoiz une onelakoan aurkitu. Batzuk begi-koa zarala esango dautsue, baiña ori guzurra da, geienentzat burubako gizon arlote bat izango zara.

## Izen ona

Beiñola, sua, ura ta izen ona alkarregaz joiazan. Banatu ta galtzeko bildur ziran eta otu jaken galdu ezkeru, zelan alkar aurkituko eben jakitea.

Suak esan eban, Zuek aurkituko nozue kea urteten dauan toki guztietan. Urak olan iñoan, ni toki zingiratzuetan aurkituko nozue, eta biak batera izen onari itaundu eutsoen, zu adiskide, non aurkitu al izango zaitugu?

Ni, erantzun eutsen izen onak, bein galdu ezkeru, galduta nago betirako, ez nau iñok aurkitu al izaten.

Orregaitik ez iñoiz iñori kendu bere izen ona. Miña geldirik euki.



## Andik danok igaro bear

Nire adiskide Kepak deitu eban egun baten urrutizkiñetik zenbaki batera, baiña ikusiko dogun lez, zenbakia okerrezkoa zan. Ariaren beste aldetik egoan gizonagaz asi zan berbetan, Mezedez, esango daustazu Gonzalez jauna etorri ba da?.

Ondiño ez, baiña etorriko da, erantsun eutson besteak.

Eta ez dakizu ze ordutan etorriko dan?, iñoan Kepak.

Ordua ez dakit, baiña ziur nago, etorriko da, esan eban bésteak.

Ziur zagoz etorriko dala?.

Bai, guztiz ziur nago, etorriko da, orretan ez daukat zalantzarik.

Azkenean Kepak esan eutson, baiña esango daustazu nogaz nagon berbetan?.

Derioko illobitegiagaz.

Jakiña, andik danok igaro bear.

## Txakurrena

Txakur batek Errusiatik iges egin eban eta lurralde azke batera eldu zanean, emengo beste txakur bategaz alkar-izketan asi zan. Erri azkekoak olan itaundu eutson, zelan bizi zarie zuen errian?.

Ez guztiz txarto. An bardintasuna dago. Egunero jaten dogu, ez dago txiro-txirorik.

Orduan, zergaitik zatoz ona? An ain ondo baizirik zelan etorri ona?.

Norberari be nozean bein ausi batzuk egitea atsegin izaten jako.

### **Agurea ta sendorra**

Ba dira gizon-emakume asko eriotzeari deitzen dau-tsoenak, baiña ez uste izan benetan izaten danik. Bai zera... Eriotzea datorrenean atsera egiten dabe. Naiz eta bizitzea neketsua izan, lana egunero ta gogor egin bear, lapak aitzari lez eutsiten dautsogu bizitzari eriotzearen aurrean.

Ipuin onetako agure au, joian Udako egun bero-bero baten, sendor astun bategaz bere lepo ganean, guztiz nekatuta ta izerdi-bitsetan. Azpertuta lurrera bota eban sendorra esanez, Etorri ta eroan naiala eriotzeak. Olan nekatuta bizi guztian ibilli baiño oba da iltea be.

Berba oneik esanez batera, eriotzea bera agertu jakon eta orduan agureak bildurrez beterik eta larrituta auxe esan eutson, Zartarako zatoz?. Zer gura dozu nigandik?.

Zer gura dodan?. Ori zeuk jakingo dozu, deitu dausta-zu ta.

Bai, bai, egia da, sendor ori nire lepoan ipinteko deitu dautsut.

### **Benetako zigorra**

Abade batek, eleiz aretako meza-mutil bat sakristira sartzen ikusi eban. Ariñeketan joan zan bera be aren atsean. Aurrez aurre egon ziranean, abadeak itaundu eutson, Zuk edan dozu edontsi onetako ardao, ez?.

Ez jauna, ni ez naz izan, esan eban mutillak, bizko-txoak izan dira.

Bizkotxoak?, zelan izan leiteke ori?, iñotson abadeak.

Ara jauna, emen egozan bizkotxo batzuk edontsi onetara sartu dira ta nik oneik zigortzearren jan dodaz, baiña nik ez dot edan ardaorik.

Mutilla ez zan leloa. Burua argia eukan eta miña be ez lotuta.

### **Azterketak ederto**

Orain azterketa sasoiari gagoz, Ekaina da, ta ume ta aziagoak euren azterketak daukiez. Olan jazoten jakon sendi bateko umetxuari. Goiz aretan azterketak euki eban zan eta eguerdian etxera eldu zanean, amak itaundu eutson, Seme, azterketak zelan?.

Ederto, ama, erantzun eutson semeak, irakasle danak gura dabe barriz egin dagidazan.

EGINDA

### **On Fakundoren Erbia**

On Fakundo erri txiki bateko abadea zan. Gizon ona, iñon gizon onik ba da. Asko maite eben erritarrak. Beti eukan irribarre espanetan, beti agurrik zintzo ta beroena, aberats zein txiro guztientzat. Edozein mezede eskatu leikioen erritarrak, egingo eutsen da. Esku-zabala ta beargin utsa zan. On Fakundo eiztari-zalea zan ta egunero urteten eban, bere txakur biak eta eiza-izkilluagaz. Otartetatik erbia atara, tontortxu baten aurrea artu erbiari, ta plun... bota danbada bat eta erbia ilda itxi, ori zan On Fakundo-rentzat ludiko olgetarik atsegingarriena. Ez uste izan eiztari ona zan. Amaikatu erbi-usain ba eukan abadeareneko sartenak. Ondo ekian mendialdeko Patxok.

Ipuiñeko arratsalde aretan, nekatuta egoan On Fakundo ta ez zan joan eiztara. Otoi liburua besapean artuta, inguruko solo artetik ibillaldi bat egiteko asmuz urten eban.

Arratsalde ona, Jauna. Agurtzen eben soloetan ebiltzanak eta On Fakundok agurrik zintzoenagaz erantsuten eutsen. Mendi aldeko Patxoren soloak ikusi bear ebazala emon eutson buruak. Ganera, Patxoren solo-landetan erbi asko ebillen ta ba leitekean arri edo sokillen bategaz erbiren bat afarirako eskuratzeko. Geldiro-geldiro, noizean bein atsedeen apur bat artu ta otoiak egiñez, eldu zan Patxoren lurraldeetara. Amaikatxu bider damutu jakon eiza-izkillua ez ekartea. Upielako erbiak ez ebazan ba atara ondo-ondotxutik?. Bai zera sokillekaz il. Guztiak egin eutsoen iges. Ba eroan samin bat Patxok solo egal baten aurkitu zanean!.

Erbi asko, On Fakundo? esan eutson Patxok.

Ez naz erbitan etorri, baiña ederrak ikusi dodaz landa orretan, esan eban abadeak.

Ikusi, ta atrapau ez? diñotso Patxok.

Al izan ba neu... Nire sokillei barre eginda iges egin dauste barrabanok, Patxo, ezingo dautsut gaur gabean erbi-afarira deitu.

Erbirik ez daukazulako ez da izango beintzat, jauna. Iñotson Patxok.

Ez diñautsut ba, garaurik be ez darodala gaur nire etxera, Patxo?.

Eta nik bialdu dautsudana gaur goizean?. Diño Patxok.

Goizean bialdu?. Ez nekian ezer, esan eban abadeak.

Alantxe da bai, ederragorik ez dot azpaldion ikusi, jarraitu eban Patxok.

Ba nekian biotz onekoa zarana. Lagundu gura ba daustazu etorri zaitetz gaur gabeen nire etxera. Bion artean jango dogu, diñotso On Fakundok.

Pozik lagunduko neuskizu, baiña ondo dakizu base-  
rrian lan asko dagola beti. Neure osasunerako be jan  
dagizula, On Fakundo. Ia bestetxu bat noiz bialdu al  
dautsudana.

Urrengoa neuk, Patxo, urrengoa neuk bialduko dau-  
tsut eizara natorrenean.

Poz bat eroian On Fakundok illuntze aretan sukaldera.

Ama, gaur afari ona, ez? esan eutson On Fakundok  
bere amari.

Bai, seme, beti lez, erantsun eutson amak.

Baiña abadeak ez eban jan gau aretan erbirik.

Urrengo bazkarirako itxiko eban amak, esan eban bere  
artean On Fakundok.

Urrengo eguneko bazkal-ordua eldu zanean, olan  
agurtu eban On Fakundok bere ama. Ama, gaur bazkari  
ona, ez?.

Iñoiz txarrik ipiñi dautsut ala, seme? diñotso maitasu-  
nez, amak.

Ez, baiña... Mendi-aldeko Patxok atso erbi bat bialdu  
daukun lez,...

Gurera erbia bialdu?. Ez da gorantzirik be. Niri bein-  
tzat.

Ez da izango?.

Diñotsudana seme.

Niri adarra jo?. Ni betilunez jarri?. Ez ekian zetara jo gure abadeak. Ludi onetan eroapena gauzarik bearrenetarikoa dalakotan ogeratu zan gizajoa bazkal-ostekoa egiten.

Andik egun barru, barrero joan zan On Fakundo Mendi-aldeko lurraldeetara ta Patxo ikusi ebanean esan eutsen.

Lanean ez da, Patxo?.

Bai On Fakundo, ta erbia gozo egon zan?, erantsun eutsen Patxok.

Zistrin ori, gaur be adarra joteko asmuz?, diñotso abadeak.

Zer ba? Erbia ez zan eldu zueneraiño ala?, diño Patxok.

Ze erbi ta erbi-ondoko. Neuk neroan jan gurea besterik ez zan sartu gure sutean.

Ba, nik bialdu neban ba erbia zure etxera. Orko sasi artetik urten eban eta nik esan neutson, Txotxo, joan zaitez abadenera. Guzurra esan ba neutson ez dakit jaina.

On Fakundok izan eban zati baterako barrea, Patxoren zitalkeri au entzun ebanean.

Erbi zein untsi, azkaritxu bat emon bearko daustazu beintzat gaur, adar-jote onen orde, esan eutsen abadeak.

## **Arrebea**

Ikusiko dozuen lez, bardin-bardin egozan an gauza guztiak. On Patricio irakasle trebeenetarikoa zan. Ikaste-

txe Nagusian. Bere ikasketak Parisen egitekoa. Opor-aldua aldu jakonean, bere gaztaroan egoneko tokiak ikustea bururatu jakon eta an joan zan uri aundi aretara.

Antzina bizi izan zan kalea zear igarotzean, ostatari egon zan bere gelea ikusteko askuratxua sortu jakon eta igon eban irugarren bizi-lekura. Deitu eban atean eta gazte batek urten eutson Arrera begikoa egiteki, naiz eta ezagutu ez alkar, sartu zan barrura ta gazteak eroan eban irakasle zaarra, onek bere guraria aze egian.

Gelea begistatu ebanean, esan eban gure gizonak, emen dan-dana dago bardin. Ezer be ez da aldatu Lengo uso-toki berbera da gela au. Oe ta aulki berberak, lengo estufa zaarra, lengo txisontsi berbera... Une onetan, uste gabe, armarioko atea idegi zan eta nezkatilla polit eta lirain bat urten eban bertatik.

Neure... neure... arrebea da, esan eban guztiz larrituta, ikasleak.

Atxakiak be, bardin-barditak dira, erantsun eutson irakasle zaarrak, irribarretxu bat egiteki.

## **Leonzio zimela**

Artean, ba zan antzina Arteta izena eukan baserri baten, Leonzio Zimela eritxon agure bat. Gizon oneri, bere zaartzaroaren ganera etorri jakon beste gaixo zital bat eta guztiz txarto egoan ogean. Ondo bizi izan zana zan, baiña urteak aurrera joaten dira, norberak gura ez izan arren, beste alde batetik betirako ez garan lez, eroapenez eroan bear olako uneak.

Etxekoak, senideak, abadea alik arifien ekarri bear jakola erabagi eben, olako orduetan zer jazoko dan be ez dalako jakiten eta txarrena etorri leikiola Leonziori, ta

abadea etxean eukitea egokia zala.

Beingoan agertu zan abadea etxean. On Zeledonio eritxon eta gaixoagana urreratu zan autortza egiteko asmuz eta asi jakon itaunka.

Bizi bedi Jesus, iñoan abadeak, Bizi bedi Jesus, Leonziok.

Il bedi Satanask, abadeak. Agurea ixilik.

Esan barriz bizi bedi Jesus, iñotson abadeak. Bizi bedi Jezúz, Leonziok, barriz.

Il bedi Satanask, abadeak. Leonzio barriro ixilik.

Zergaitik ez dozu erantsuten, il bedi Satanask?, esan eutson abadeak.

Ara jauna, ba... ez dakit beragana joan bearko ba dot, eta bada ez bada, ez neuke jaretzi gura bere gorrotorik.

Leku guztietan euki bear dira adiskideak, arerioak eukitea baiño oba da.

## **Menzuloa**

Senar-emazte bi bultzian ibilaldi bat egiten joiazala, menzulo batetik igaro bear eben, eurak aukeratu eben urira joateko ta bultziak ez eukan argirik, orregaitik illunetan igaro eben menzuloa.

Argitara eldu ziranean, senarrak esan eutson bere andreaki, jakin izan ba neu menzulo au orren luzea zala, besarkada bat emongo neutsun.

Baiña... zu ez zara izan ala?, esan eutson andreak.

Antza danez ba joian bultzian aprobetxategi anbat.



## Ezkontzea

Kerbasio oso dotore joian taxis baten eleizarantz, Josebe bere maiteagaz ezkontzeko. Berebilduna guztiz geldiro joian eta Kerbasiok berandu elduko dalakoan, ba da ezkontzarako ipiñita euken ordua ur egoan, esan eutson. Joan zaitez mezedez apur bat ariñago, ba ezkontzera noa ta berandutxu da, ez gara elduko sasoirako ta ez dot gura niri itxaroten egon daitezán.

Ba nekian zure itxuratik enkontzen ziñoazala ta zuzen be orrexegaitik noa ain geldiro, artu dozun erabagi ori aldatzeko asti geiago euki daizun.

## Nor arraio

Samuel judatarrak denda aundi bat eukan uri baten, beratan sendi guztiak egiten eban lan, bere andreak eta seme biak. Seme-alabak ziran.

Samueleri be urteak aurrera joakozan eta egun baten gaixotu zan. Naiz eta alegin guztiak egin, gaitza aurrera joian eta azkenean guztiz txarto, il zorian egoan. Bere azken orduetan ikusi be ez eban egiten, baiña burua ta miña ondo eukazan, alako baten deitu eutson bere emazteari, esanez. Zu emazte maitea non zagoz?.

Emen nago Samuel zure ondoan, beti lez, diñotso andreak.

Eta Lavy, ene seme, non zara?, esan eban gaixoak.

Eta zu, Rebeka alaba maitea, emen zagoz?. Bai aita-txu laztana emen nago zure zain.

Orduan nor arraio dago dendan ba?, esan eban garratz gaixoak.

Ze ospe txarra daukie judatarrak diru arazoetan.

## **Ezizena**

Bermion euren izenez baiño ezizenez ezagunagoak dira bertako biztanleak. Zirilo Zabalaren idazki bikaiñetan irakurri leitekez millaka ezizen. Politik batzuk, barregarriak beste batzuk, egokiak eta deztañezkoak be bai. Guztitarikoak. Ez erritarrei ipiñikoak bakarrik, erbestetik bertara bizitzera datozeni bere bai. Laster ipinten dau-tsee ezizena.

Ikusiko dozuenez erreztasun aundia dabe Bermiotarrak orretarako.

On José, jaun agurgarria, diru-etxe baten lanean asi zan Bermion. Laster egin ebazan adiskideak, orretarako be, adiskidetasunerako, idegiak dira Bermiotarrak. Erritarraz ebillen kaletatik zear, eta zelan ez, edantegitik edantegira. On Josek iñotsen Bermeotarrei euren artean giro ona aurkitzen ebala ta guztiz begikoak egiten jakoza-la. Bermiotar adiskideak kontuz ibilteko esan eutson, ezizen bat ezarri ezteko.

Ondo dago, ezkertzen zaituet orregaitik, baiña ez ar-dura izan eta jarraitu eban esanez, au erderaz ipiñiko dot, "Ya tomaré mis precauciones".

Une onetan galdu eban On Josek bere izena, aurre-rantzean "Precauciones" zan Bermion.

Bermiora ba zoaz, joan zaitetz nasai, prekausiñorik artu barik. Notin guztiz onak dira.

## **Bere eskua**

Braulio lengo egunean arpegi guzti goibelaz eldu zan bere etxera. Olan ikusirik bere andreak itaundu eutson, zer jazoten jatsu, gizon?.

Zer jazoten jatan?. Diru-zorroa ostu dauste.

Baiña zelan?. Non eroazun ba?, esan eutson andreak.

Non eroango dot ba. Praketako zakelean, iñotson gizonak.

Ta... ez dozu nabaitu iztarren kilikilirik... eskua zakelean sartu dautsunean?.

Bai, baiña uste izan neban neurea dala eskua.

### **Ankea jaso**

Orain esan leiteke txakurra gure gizartean "modan" dagola. Baztar guztietatik ikusi leikez ume, emakume ta gizonezkoak txakur bat traillan edo azke daroela. Baita txakur batzuk barregarriak be. Politak izango dira baiña, onek, niretzat ez. Nik be txakurrak ba daukadaz nire baserrian, baiña azke bizi dira.

Gizon bat denda aurre baten bere andrearen zain egoan. Gizonak olakoak gara, beti norberen andrearen zain, jagole. Nezkatilla polit bat be an egoan bere txakurtxuaz. Gizona, txakurrak egiten eban biraka bakoitzean bere albotik, aldendu egiten zan.

Ez dautsu txakurrak aginkadarik egingo, esan eutson nezkatileak. Guztiz ona da. Ez eizu ardurarik izan.

Bai, ba dakit, esan eban gizonak, baiña biraka bakoitzean ankea jasoten dauanean, beste zerbait egingo ete daustan kezka nago, erantsun eutson gizonak.

### **Umeen txixa**

Ama maite askok euren umetxuak txixa ebin daien, ura iturritik dariola ipinten dabe, aren otsagaz laguntze

bearrezkoa dan au egiten. Baiña emakumeak, ez eizue oitura au zuen umetxuakaz erabillí. Ara zer jazo jakon Emeterio nire adiskideari.

Goizalderantz joan zan bein baten bere etxerantz, eguna ta gabaren zati on bat jolasean igaro ta gero. Guztiz pozik joian txistu zoiñuan. Bide erdi inguruan dagon iturri batera eldu zanean, urak dariola egiten dauan otsa entsunik txixalarria nabaitu eban eta bide bazterrean asi zan ori egiten. A zan txixalarria. Luzaro egoan zeregin onetan, nasai nasai, luzarotxu ba eritxon baiña aurrera jarraitu eban, bere txixa-zaparradearen otsa noiz amaituko. Ordu bete inguru diñoe egon ei zala, larregi izango da, baiña dana dala, luzaro zan. Alako baten, alboan egoan baserri bateko oillarraren kukurrukua entzun eban eta orduan konturatu zan, berak entzuten eban otsa ez zala bere txixarena, iturriarena baiño. Gizon ganorabakoa, bertan agortu ez zanean!.

## **Amesetan**

Gizon gazte bi dagoz edantegi baten barriketan. Euren gaia egun orretan izan zan jokoa ta bere galpena. Edantegietan danak izaten dira jakintsuak, aberatsak, indartsuak, an ez dago ezetzik, batez be luzaro edaten jardun ezkerero. Ara, esaten eutson batek besteari, nik gaba baten berreun milla laurleko galdu nebazan eta milla laurleko galdu ba nebazan lez geratu nintzan.

Eta ori non jazo zan, non jazo jatsun? itaundu eutson lagunak. Biarritzen ala Kanesen?.

Ez gizona, ori amesetan jazo jatan.

## Jaio txiki-txikiak

Oraingo au, ostera, erri txiki baten jazo zan. Erri aretara eldu zan beste askon artean txangolari bat. Udan ugari izaten dira txangolariak eta orreitariko bat zan. An ebillen erriko baztar guztiak arakatsen eta ikusi ebazan bertan egozan antzifetako etxe garrantsitsu asko ta beste gauza zaar batzuk. Baiña arrituta egoan, ainbeste gauza ederren artean gizairudirik ez ikustea. Jakin gurean erri beratako gizon toleslako bateri itaundu eutson, Zu adiskide, erri onetan ez da jaio iñoiz gizon aundirik?.

Ara jauna, emen ez, emen danak jaioten dira txiki-txikiak, erantsun eutson erritarrak.

## Ezkoziatarra

Ara emen, Eskoziatar bateri zer jazo jakon, bere etxetik kalean zear lanera joiala. Bere seme txikiena ikusi eban gozoki-kutxa baten aurrean, urreratu zan beragana ta ikusi eban dirua sartu ebala kutxa aretan. Orduan deitu eutson eta garratz agireka egin, esanez, Ergel ori... tramankulu orretan txin bat, diru bat sartzen ikusi zaitut eta geiago sartzeko zorian zengozan. Amaika bider esan deutsut, orko txokolatea urdaillerako txarra dala.

Kalte egiten dauala...

Baiña aitatxu, difotso umeak, guzurrezko txiña izan da.

Orduan kirten ori ekiozu. Olan izanik txokolate orrek ez dautsu kalterik egingo.

## Euneko bat

Ikastetxe Nagusi batetik urten eben ikasle bik euren ikastaroak amaitu ondoren, besapean "Ekonomista" deritxon txartela edo "tituloa" ebela. Euren elburua bizi-bide lez, azke izatea zan, eurak sortu eurentzat lan-toki berezia. Egin bear au beste batzuentzat itxi barik, danak egingo ba leukie bardin eta ez negarrez ibilli esanez, lanbage naz, nigaitik ez dau ezer egiten ez gizarteak eta ez jaurleritzak be, uste dot errezago zuzenduko litzakela arazo gogor au, lanbagemasuna. Gure ipuiñeko gazteak adoretuak ziran, biotz sutua euken. Niretzat maitagarri dan gizon batek esaten eban, gazteak biotz aundia daukie, emonkorra baiña burua ez aifña. Ainbat lantegi ikustatu ebezan gazte oneik eta azkenean, gizon zaartxu baten denda eder bategaz geratzea erabagi eben. Gizon zaartxuak dendea itxi bear eban, ez eukan iflor zendian jarraitzeko.

Asi ziran lanean denda orretan nire gazte biak, eta andik aldi luze batera joaken dendako ugazaba zaarra ikustaldi bat egitera ta onek ikusi eban ez ebiltzala lantegian, dendan, lar ondo, euren irabasteak ez zirala ugariak edo bear bada galtzen egozala.

Luzaro jardun eben alkar-izketan eta olako baten gazte batek itaundu eutson zaarrari, zelan izan leiteke, guk ain bebte ikasiaz, ain beste urte ikastetxeetan ibilli, millaka ikaskai ikasi, beti liburu artean eta ezin dogu atara aurrera denda au, eta zuk, Ikastetxe Nagusira joan-bakoa, gitxi ikasikoa, liburu artean ibilli bakoa, urte luzarotan iraundo zu aurrera ta ganera diru asko irabazi, zelan izan leiteke?.

Ara, erantzun eutsen ugazaba zaarrak, ni ez nintzan ibilli nire bizitzan euneko-irabaste aundien atsean. Nik euneko bategaz, irabaste lez, naiko neukan. Nik erosten

nebazan sal-eroskiak dolar baten eta bian saltzen nebazan, beraz euneko bat neukan irabaste lez.

### **Artoa zakelarako**

Zendi bateko umetxua, lñaki eritxona, guztiz urduria bera, okerra zan, geldirik une bat be ezin egonekoa. Gau baten lotara bere amak eroan ebanean, bere burutik, amaren burutik atarako ipuin bat edestu eutson. Amak bere semetxua mena izan eiten gura eban eta orretarako ipinten eutsozan olako ereduak. Ara lñakitxu, ba dakizu zer jazo jakon bein baten artxo polit txiki bateri?.

Ez ama, erantsun eutson bere semeak.

Ba, izan zan artxo polit eta zuri bat, guztiz bizkorra ta bere gurasoak asko maite eben, naiz eta mena ez izan. Ez ebazan artez eta zintzo aita-amaren esanak egiten.

Egun baten, otso maltzur batek jan eban mena ez zalako. Au entsutean gure lñakik bere amari au esan eutson. Ama, artxotxuarentzat bardin izango zan mena izan naiz ez izan, otsoak jan ez baleu, geuk jango genduan.

Egia artxotxuaren azkena, norbaiten zakelean geinetan.

### **Ijito ta txapelokerrak**

Ijitoak eta Guardi Sivillak beti izan dira alkar-maitaleak. Ara, zer jazo zan Andaluzi aldeko uri baten. Bere kale zabal batetik joiazan ijito bi alkar-izketa mamitsuan. Eskumako kalèrantz dira ebenean notintsa aundi bategaz aurkitu ziran, zeifñetan egozan begira adi-adi taldearen erdira, ijito biak be urreratu ziran talde aretara ikusi gu-

rean zer jazoten zan ainbeste lagun alan egoteko, baiña ain zan aundia taldea ta ezin eben ikusi erdia ta beraz, ez ekien ango jazokerea. Alako baten ijito batek alboko bateri itaundu eutson. Zu adiskide, zer jazo da emen?.

Ara, erantsun eutson taldeko batek, etorri da kaletik or aurrerago dagon kamioi aundi ori, Pegaso ori, eta Guardi Sivil bi zapalduta il dauz.

Geratu ziran apur baten eurak be berba egiten taldekoakaz eta andik gerotxuago, ijito batek esan eutson bere adiskideari, beste ijitoari, Manue goazen emendik, ez neutsun esaten nik beti, Pegaso oneik onak urtengo ebela.

## **Horoscopo ez da Orozko**

Oroskotar nezkatilla gazte bat egoan Portugaleteko urian nire adiskide batzun etxean nekane lez. Uri aretako jaiak ziran, eta onelako aldietan jazoten dan lez, bertako enparantzan gauza ikusgarri asko egoan, onen artean, gizon bat txori batzukaz ebillen, obeto esateko egoan, kanario-txoriak ziran, ondo menduta eurak. Txoritsuak umetatik ekarren, ugazaban esaeran, kaiolatik ingitxu bat mokoan atara ta ugazabari eskura emoteko mendua.

Oroskotar nezkatileak, beste asko lez, kaiolara urrerratu zanean, ikusi eban, zelan txoriak atarako ingian lantzean batek esaten ebala, zori oneko izan bear ebana... seme-alaba ederrak eukiko ebazala... ta onelako igarkizun batzuk. Atara ebazan sakeletik sortzi laurleko ta kaioladunari emenez, ao zabalik egoan txoriei, begira.

Que salga Garibaldi, esan eban txoridunak. Garibaldi izeneko txoriak, ugazaben eskuetan itxi eban ingia eta au asi zan esaten. El horóscopo te anuncia... Nezkatileak



orduan arrituta esan eban, Ene zorgiñak daukaz. Igarri  
egin dau Orozkokoa nazala. Guztiz ikaratuta arin aringa  
etxera joan zan.

## **Baserria**

Biotz erdiko baserritxua  
Nire jaiotza tokia  
Zenbateraño maite zaitudan  
Ez da errez esatea.  
Zu zara Gure bizi-bideko  
Eguneroko ogia  
Egunsentiko Txori-abesti  
Zoragarri ta bakea.  
Zu zara gure izaki danen  
Emoille ta jabea.

Berealaze ilgo litzake  
Baserrí bako uria  
Beragandikan jatorkulako  
Guk bear dogun guztia.  
Baserrian da gure izkuntza,  
Euskera maitagarria  
Euskal-oituren gorde-lekua  
Fede zendoen aulkia  
Azkok txikitizat zaukazan arren  
Benetan zara aundia  
Euskalerría jaso nai ba dogu  
Zaindu daigun baserria.

*Enbeita'tar Balentin*

## **Txakurra saldu ez**

Gaur goizean guztiz alai jagi da ogetik nire auzokide Lorentzo, antza, txantxetako gogoia dauka, baiña artojorran egin bear dau. Etxe aurreko solara doa bere emazte Krexentzietz eta lanean dabiltzan bitartean berbetan dagoz alkarregaz. Olako baten diñotso gizonak bere andreari, zu Krexentzi ba dakizu gure Patxok, au semetariko bat da, zendiak seme bi dauz, ez dauala saldu gura txakurra milla lauerlekogaitik bere. Au jazo zan aldian, milla lauerleko diru aundia zan, gizon baten ille biko alogora gitxienez.

Au entzutean, Kerentzik arriturik diñotso bere gizonari. Zer diñostazu Lorentzo, txakurra saldu ez milla lauerlekogaitik?, Krexentzik ziarduan berbetan eta iñoan, zer dauka txakur orrek milla lauerlekogaitik ez saltzeko?. Zer-gaitik ez dau saltzen txakurra diru orregaitik?.

Diru orí, ez daukalako nók emonnik, Krexentzi, erantsun eutson Lorentzok.

## **Larunbatako alogora**

Nire errian gizon atseratu bat bizi da, ez dakit aurreraturik ba da, aurreratuegiak bai. Bere izena Anton da, Anton deritxo. Leku askotan egin dau lan eta onetariko bat arritegi bat izan zan. Iru edo lau egun eroazan lanean lantegi onetan eta illuntze baten giñoiazan, beste egun batzuetan lez, etxerantz bultzian. Taldekotariko bat Anton zan eta baita be gure erritarra Pelipe, gizon zintzo ta ituna. Onek itaundu eutson Antoneri, orain non egiten dozu lan, Anton?.

Patxon arritegian, erantsun eutson Antonek.

Egia esan Patxo, Patxo gizon zintzo ta ontzat geukan alde aretan, erriko guztiak, baita Pelipek be, eta onek

jarraitu eban berbetan eta esan eban, gizon ona Patxo, gizon onik iñon ba dago.

Sarritan Antonek, urtekera zorrotzak eta barregarriak eukazan eta egun onetan erantsun eban. Ori, esan dozu-na datorren Larunbatan ikusiko dogu.

Esan bear da, aldi aretan Larunbatetan ordaintzen zala asteko alogora lantegietan.

## **Piperrak**

Au be nire errian jazo zan. Piperrak ipinteko sasoa zan. Neba-arreba bi egozan alkar-izketan eta nebeak agertu eutson bere arrebeari piper batzuk bear ebazala etxe ondoan ipintzeko ta semea bialdu bear ebala urrutxu egoan baserri batera. Ez, ez eizu bialdu piperrik billa, neuk daukadaz geiegiz eta euneko bat edo beste emongo dautsudaz. Arratsaldean bialdu eban bere semea bere izekogana piper-landara billa. Euneko bat ekarri eidazuz esan eutson aitak.

Joan ziran izeko-lobak piperrak egoazan tokira ta asi ziran piperrak zenbatzen, bat, amar, ogeitazortzi, berrogeta bost, larogei, larogeita ama sei, zazpi, barogeita emeritzi, eun. Izekoak banaka batzut botatea gura eban, baiña lobeak ebagi eutson bere guraria. Ez izeko, ez, bat be geiago, eun esan daust eta eun bakarrik.

Lobeak berak landaratu bear ebazan piper areik, eta lanerako jaioa ez zan gizajoa.

## **Irabasiak**

Nire errian, beste askotan lez, ba egoan gizon zintzo ta lengille bat, bere eginbearrak ondo jakin eta egiten

ebazana. Bere zeregiñetan lan asko egiten eban eta orre-gaitik irabasiak edo etorriak guztiz egokiak ziran, beste alde batetik, asti larregi eukiten ez ebalako edo bere izakereagaitik, ez eban erazten dirurik edantegi, "bingo" eta beste olako jolas tokietan. Oso apal eta apainketarik barik bizi zan, ez aundikiririk, ez griña txarrik.

Baiña isaten dira errietan, beste erako gizon batzuk, bekaitzak eta onetariko batek itaundu eutson gure gizon langilleari. Zu Josahnton, zer egiten dozu zure irabasiakaz?.

Zer egiten dodan?, erantsun eutson. Ara entzun, zati bat lengo zorrak ordaintzeko bear dot eta jakizu ez dirala txikerrak. Beste zatia, enparaua, erriditoan ipinten dot.

Baiña, zelango zorrak dozuz ba?, esan eutson besteak.

Ainbeste zor dautsedan nire gurasoei laguntzea. Orreik dira nire zorrak. Uste dozu txikiak dirala?. Eta beste nire diruak, nire seme-alabak zuzenak eta zintzo izaten eta bizitzari aurre emoten ikasi dagien, laguntzea. Olan zaar biurtzen nazanean, eurak lagunduko dauste.

## **Jakea**

Etxe aundi bat eraikitzen ebiltzan argin batzuk uri aundi baten. Eguneroko lanean egon ziran goiz baten, euretariko bat lurrera jausi zan andamifño batetik. Ezbear onetan langille gizajoak bere bizia galdu eban. Ezkondua zan eta bere lagunak larri egozan illaren emazteari barri negargarri au emoteko. Neu joango naz, esan eban Txatonek. Esan eta egin, abiatu zan langille lagunaren etxera, deitu eban atean eta urten eutson bere emazteak.

Emen nator, esan eutson, zure gizonak ezbear bat

euki dau, andamiñoan lanean egola, jakea jausi jako lurre-  
ra.

Ori ez da ezer, esan eban andreak, ori izan daitela  
ezbearrik aundiena, beste jake bat emongo dautsut ipiñi  
aian.

Baiña ori ez da txarrena, jarraitu eban Txantonek,  
jakean barruan bera joanda.

### **Atxakirik ez, mezedez**

Esaten dabe, Euskeraz oso  
gatxa dala ikasteko,  
Euskeraz oso maite dabenak  
ori ez dauskue esango;  
langille txarrak atxaki asko  
beti dauka lanerako.  
Batzuk beingoan ikasten dabe  
ikasi gura dabelako.

Beste batzuk nagiagaitik  
itxi dabe gerorako.  
Gauza bat orain gogoan artu  
egi aundia dalako;  
gure euskera bear ba gendu  
ogi zuria jateko,  
aundi ta txiki, zar eta gazte;  
danak leukie ikasiko.

### **Euzkadi Zabalagoa zan**

Gure erri txiki oneri alde guztietatik egin dautsoez  
aginkadak eta zatiak kendu kondairaren urteetan zear.

Akitania-aldean, Oska-aldean, Zaragoza-aldean, Burgoş'ko iparraldean, Santander-aldean, atal ederrak galdu dauz Euskadik. Aitatu daigun bat. 1.471 urtea zan, Haroko kondeak Castro Urdiales Bizkaitik aldendu ta banatze-ko agiria emon eban. Ordura arte, Gernikako batzarretan Castro jezarten zan, Castroko ordezkaria esan gura dot, Ondarrukoaren eta Gernikakoaren erdian.

Errioxako erri polita dogun Naxera bere aldi baten Euskalerria izan zan. Antxe, Andra Mariaren eleizan illobiratu ebezan Naparroako errege asko ta ospetsuak. An ikusi daikez gaur bere illobiak.

Naxeran euskera egiten zan, ondoan dagon Donemilianeko eleizan, lekaidetxean aurkitzen dira euskerazko lenengo esaldi idatziak. Latiñezko liburuaren ulertu eziñeko esaldiak argitzeko, liburuaren ertz eta bitarteetan. Argitzeko idatziak "glasask" ziran. Argi dago erriak euskera bere egiten ebalá. "Izioki dugu" guek ajutu ez dugu" dira esaldi batzuk. Milla urtetik gora idatzi zirala.

Naparroako Errege Sancho Azkarra Kordobara ta gero Aprikara joan zanean galdu eban Euskalerriak Errioxa.

## **II zorian osasun ona**

Osagille batek il-zorian dagon bere adiskide bateri, gogoá berotzeko asmoz difotso; Ez larritu, zure pultsua ondo dago, zure biotzaren txpadak bear bezelakoak dira, birikietan ez daukazu ezer, sukarra geldituta daukazu ta berantza doala esan leiteke...

Gaixoak Osagilleari berbea ebagiten dautso esanez, ederto, orrek esan gura dau osasun onez ilko nazala.

## **Ikastetxeko eginberrak**

Nire illoba Iñakik idazgela baten egiten dau lan eta sei urte inguruko semetxu bat dau, guztiz argia, ikastolan be aurreratariko da. Iñakik bere lantegiak bear azko dauka ta etxera eroan bear izaten dauz sarritan gabeen bertako lan batzuk, ingi pilloATEGAZ joaten da etxera illuntze guztietan.

Umetxuak, ikusirik zelan etorren beti bere aita ingi orreikaz, bere amari itaundu eutson, zelan bere aita etorren beti ain beste ingiaz etxera. Amak azaldu eutson arazoa, lan larregi eukala bere idaz-gelan eta orregaitik ekarrela etxean zerbait egiteko asmuz.

Umetxuak beingoan zuzendu eban arazo ori. Ama, esan eutson, zelan ez dabe ipinten nire aita atseratuen taldean, ikastolan eginberrak ezin egin dabezan umetxuakaz egiten daben lez?.

## **Lapurra ala ongillea**

Gizon batek, diru-etxeko nagusia bera, margolari bateri bere irudia, argazkia, lauki baten egiteko agindu eutson.

Margolariak bere lana amaitu ebanean, gizon aberatsa joan zan lauki orren billa, baiña garestiegi eretxi arren ala ez dakit zergaitik, ez autson ordaindu gura ta lauki barik geratu zan. Ori ez naz ni, esan eutson, orregaitik ez daroat laukia.

Margolaria asarratu zan, eta zuzena dan lez, ez eban galdu gura bere lanaren dirua. Erabagi polita artu eban. Erakusketa etxe batera eroan eban laukia ta bertan itxi eban salgai izen-buru onegaz, "Lapurra".

Aberatsaren belarrietara arin eldu zan barria au, guztiz muzinduta deitu eutson margolariari. Eztabaida gogorra euki eben urrutizkiñetik eta azkenean margolariak esan eutson.

Baiña, zergaitik kexaten zara?. Ez zeustan esan zu ez zarala laukikoa?.

Diru-etxeko gizonak, urten bide txarra eukala ikusi eban, eta esan eutson. Ordainduko dautsut zuk eskatuko dirua baiño geiago, baiña izen-burua aldatu bear dozu, ONGILLEA ipiñi bear dautsozu izen-buru lez. Olan egin eban margolaria dirua eskuratzeko.

### **Amabi seme-alaba**

Nire auzoko senar-emazte batek amabi seme-alaba dauz eta arazo aundia eukan euren semeak nondik dabil-tzan jakiteko.

Gau baten zendi dana ogeratu ondoren, semetariko adiskide batek urrutizkiñetik deitu eban, Jon semeagaitik itaunka. Aitak artu eban tramankulua ta ikusirik Jongaitik itauntzen ebala, berak bere semei itaun bardiña egin eutsen, Jon etxean dago?.

Ixil aldi laburtxu bat igarota, semetariko batek diñotso bere aitari..

Baiña aita, Jon ez da bizi emen gugaz ezkondu zane-tik.

### **Begi ona**

Bost sendalaritza ikasle egozan bein baten saoi-aldi batzuk egiten Osaetxe baten. Egun aretan gizon gaixo bat



arakatzen ebiltzan eta euren eretxia gaitzaren buruz ez-bardiña zan. Alkarregaz luzaro egon ziran eztabaidan eta azkenean euretariko bat gaixoaren zain geratu zan gaixoaren alboan, besteak joan ziran euren etxeetarantz.

Orduan gaixoak esan eutson mutil gazteari. Zure eretxia nire gaixoaren buruz zure lagunakandik ezbardiña da.

Bai, alan da, esan eban ikasleak, baiña ikusiko dozu zelan nik daukadan egi osoa, zuri autopsia deritxona egi-ten dautsuenean.

## **Eskekoa**

Eskeko batek kale ertz baten urte asko daroaz zeregin onetan. Adiskide azko egin dauz lanera doazan gizon-emakume artean.

Oneitariko batek lenengotan amar laurleko emoten eutsozan, urte bete inguru beranduago bost laurleko eta orain laurleko batera beratu dau bere oparia.

Eskekoa artega dago jakin gurean zer jazoten jakon gizon oneri ta olako baten itaundu eutson. Zu adiskide, ezagutu zindudazanean amar laurleko emoten zeustazan, gero bost eta orain laurleko bat bakarrik emoten daustazu, jakin leiteke zer jazoten jatsun?.

Ara, argi dago, ni lenengo aldian eskongai nengoan, gero eskondu nintzan eta orain umetxu baten aita naz. Ori da guztia.

Eta ondo deritxozu nire diruaz zure zendia elikatzea?.

## **Txarkurkumak**

Nire auzuneko Koldok txakur-eme bat dauka ta bost txakurkuma ekarri dautsoz. Izaki oneik politak dira, baiña Koldo gogaituta dago eurakaz, ez daki zer egin.

Azkenean duan emotea erabagi dau. Irratitik, dei egin eban esanez, lenengo boztari txakurkuma bana emongo eutsezala duan. Iru edo lau egunetan egin eben dei au, baiña ez zan agertu ifor txakurkumeen billa.

Adiskide batek esan eutson txakurkumak salgai ipiñi bear leukezala ta azkenean ori egin eban. Oraingoan be, irratitik egin eban deia, txakurkuma bakoitzari bi milla laurleko sal-neurria ipiñita. Orain bai, ordu bete baiño lenago bozt txakurkumak saldu ebazan.

## **Bikaintasuna**

Eleiz bateko abadea egoan goiz baten goizeko Mezan itzaldia egiten. Egun aretako jaia bikaintazuna izan zan. Eziñekoa zala, esaten eban abadeak, ludi onetan danak pekatariak izanik bikaintasun osoa jareztea. Luzaro ebillen izketan eta azkenean esan eutsen entzulei. Zuen artean ba dago bikainen bat, jai daitela.

Arrituta ikusi eban, zelan gizonetariko bat bere jearle-kutik jagiten zala. Garratz esan eutson abadeak, baiña zelan ausartzen zara, emen danan aurrean bikaintasun osoaren jabe zarala esaten?.

Ni ez jauna. Ni jagi naz nire emaztearen lenengo gizonaren orde.

## Ziurtasuna

Larogei bat urteko atsotxu bat joian beifola egazkin baten. Lenengoz igoten eban egazkiñen eta egia esan naiko larri joian. Ordu ta erdi inguru joan ziran egaz eta une aretan bertako nagusiak urutzikiñetik berba egin etsen. Laugarren bultzgarria amatau jaku ta orain irugaz goaz. Bai baiña nasai egon, ordurako elduko gara ta ziurtasun aundienagaz. Orrez ganera barri on bat emon bear dautsuet. Gugaz lau Gotzain daroaguz eta onen otoitza laguntza aundikoa izango dogu.

Bitartean atsotxua larri larri egoan entzuten nagusiak iñoana ta onek amaitu ebanean bere berbaldia deitu eutson azafateari ta esan eutson. Mezedez esango zeuskio nagusiari naiago geunkela lau bultzarri zendo zendoak eukitea lau Gotzain en ordez.

## Kapitan puñeta

Orain edestuko dodana jazokoa da. Erri txiki bateko itxas-gizona izan zan bera. Nire adiskide aundia. Ludi osoari birritan emon eutson bira aize-indarrezko itxasontzi baten. Amazortzi illebeta igaro ebazan zeregin onetan, berak esan eustanetik.

Aldi aretan Sota y Aznar, S. A. eritxon taldean egiten eban lan eta Ganekogortamendi eritxon itxasontzian joaian Bilbotik Inglaterrara. Guztiok dakizue itxasontzi bat kai batera urreratzen danean, bertako kai-gidariak urtetan dauala kaiaratzen laguntzeko.

Eldu zan ba kai-gidaria au Ganekogortamendiren albo-  
ra ta kai-gidaria asi zan Ganekogortamendiko Nagusiari  
itaunka. Lenengo itxasontziaren izena artu bear eban.  
Gaba lañotsua zan eta orregaitik ez eban ikusten itxason-

tzian idatzita egoan izena. Jakiña inglesak ez dakie euskeraz eta inglez ebiltzan euren itaun-erantzunetan. Nagusiak esaten eutsona Gidariak ez eban ulertzen eta itaun asko egin eutsozan esanez, Zelan?. Nagusiak bein eta barriro erantsuten eutson, Ganekogorta mendi. Azkenean zelan edo alan ipiñi eban Kai-gidariak itxasontziaren izena. Gero bertako nagusiaren izena bear eban artu ta asi zan barriro itaunka. Itxasontziko Nagusiak erantsuten eutson, Gorigolzarri, au zan bere izena. Olan bein eta barrira naiko luzaro, Goi ri gol za rri. Azkenean Nagusia azpeltu zan ain beste itaun-erantzunegaz eta urten eutson. Kapitan Puñeta. Orduan bai, kai-gidariak ipiñi eban Puñeta izena lez, eta erantsun eutson. Al raigt, Kapitan Puñeta.

## **Koxepa astronomua**

Dirua egiteko burutsua izan bear dala?. Kia. Bai zera. Ez nago orretan. Buru azko barik be naiko diru egiten dot nik, esan ei eutsen bere auzokoei poz-adurretan, Koxepak.

Egia zan, egin be polito egiten eban dirua Koxepak. Amaika astronomuei, postura irabasi autsen arek, eguraldi ona ala txarra egingo ebanentz. Postura oneitarako laguna eban bitarteko. Igarriko ete zeuzkide zein zan bere laguna?. Astotxu bat, Txapar izeneko astotxu zaar bat. Txaparrek belarriak ona ta ara erabilten ba ebazan, eguraldi txarra izango zan. Geldirik ba eukazan, ostera, eguraldi ona izango zan. Baiña ez uzte izan Koxepak astronomuei olakorik esaten eutsenik, bai zera. Zuek be ixilik euki.

Bera bizi zan errian ba egoan gizon bat guztiz aberatsa, On Lucio eritxon ta etxegintza, piñu zugatz eta olako

zeregiñetan ebillen eta ondo joakozan bere lan-arazoak, diru asko irabasten eban.

Jakiña da, onetariko lanetarako eguraldi ona bearrezkoa dala, euri ta izotzagaz lan gitxi egiten dabe langilleak ta garezti urteten dau gaur egunean gizon-bearrak. Orre-gaitik eguraldi ona ala txarra egingo eban jakitea aurretizik asko ardura eutson On Luciori.

On Lucioĸ amar milla laurleko eukazan aginduta urrengo asteetan zelako eguraldia izango zan igarten eutson astronomuentzat. Oker esaten eutsonari, bost milla beintzat kendutekotan.

Amar milla laurleko. Ez zan dirutsa makala aldi aretan. Ia erri osoa joan zan On Luciori eguraldiaren gora-berak igarteko asmuz.

On Lucioĸ gela batera eroan ebazan astronomuak, atara ebazan pitxar batzuk ardao lukinka batzuekaz eta astronomuek agertu eutsoen euren eretxia. Euririk ez da izango datorren astean, esan eben. Eguzkirik ederren eta gozotsuenak izango dira urrengo astean. Ez eukan ba, On Lucioĸ arduratu bearrik. Eguraldi ona izango zan.

Eretxi oneik emoten egozala, tan tan, norbait deika egoan atean.

Nor zara?. Itaundu eutsoen barrutik.

Koxepa Errotako naz. Idegi eidazue atea, mezedez, esan eban Koxepak.

Eskean zatoz ala emakume?. Esan eutsoen barrukoak.

Ez, ez naton eskean. Entzun dot On Lucioĸ jakin gura dauala datorren astean eguraldi ona ala txarra egingo daun, eta orixe erantzutera natortzue, nuek be neure eretxia emotea gura neuke.

Baiña, ez dozu entzun astronomuek bakarrik etorri leitekezela?.

Astronomuek bakarrik?. Ta neu ez nozue astronomue ala?, esan eban Koxepak.

Bai bat. Itxurea ba dozu beintzat.

Itxurea bakarrik?. Ez eiozue jaramonik egin itxureari. Itxi eidazue sartzen.

Asto ta guzti sartu gura dozu ala?.

Asto ta guzti bai. Astoak be zer esana dauka arazo onetan. Iñoan Koxepak.

Sartu zaitez, Koxepa, sartu zaitez. Gozoki batzuk ba ba daukaguz zuretzat.

Ezkerraik asko jaunak, baiña ni ez nator jozokiak jatearren. On Luciori erantzuna emoten nator eta ori egingo dot zuen baimenagaz.

Zeu ondo deritxot, baiña astoa ekarriko zenduan, ba?. la eragiozu arrantsa.

Adar jotea gura ba dozue, ondo dago, baiña ez dot uzte-zuek astronomuek ezer artezik esan dautsozuen On Luciori, eta Koxepak jarraitu eban. On Lucio, datorren astean eguraldi ona izango dala esan ete dautsue jakintsu oneik. Alai ikusten zaitut.

Alantxe da, Koxepa. Baietzkoan itxi nabe, esan eban On Lucio.

Un... Ez dakit ba... ez dakit... difotso Koxepak Txarparen belarrieta aditu ondoren. Pli-pla-pli-pla, atsera ta aurrera ebiltzan artega astoaren belarriak.

On Lucio, esan eutson Koxepak, astronomuek oker egon jatzuz. Datorren astean eguraldi txarrak izango dogu. Gaurko gaba orduko zerua ura dariola daukagu.

Ja, ja, ja, ja, ... Ez eioguzu barre eragin, emakumea. Ia artu eizuz gozioki batzuk eta txolatxu bat, ia zentzunera zatozan, esan eban astronomu batek.

Zentzunera nok etorri bear dauan laster jakingo dogu, agur. Ill untzerarte.

On Lucio ta bere lagunak, ludian zear dabiltzazan iji-totariko bat zalakoan eta ez eutsoen jaramonik egin.

Beste barik Koxepak astotxua artu eban traillan eta lengo bidetik joan zan bere etxerantz.

Ordu bete geroago, txokor aundi bana bizturik, erritik kanpora ibillaldi bat egiten urten eben On Lucio ta bere lagunak. On Lucio entzungarria joian bere irabasteak azaltzen bere taldekidei. Ez zan ezergaz konturatzen. Baiña ba etorren aize ta laiño baltz guztiz bildurgarria itxasaldetik. Koxeparen esana betetzera joian, antza. Ordu lauren barruan, zeru osoa estalduta agoan. Ixildu zan aizea ta agur gure astronomuen eretxiak. Bat-baten odeiak ura dariola asi ziran, ludi osoa ito bearrean. Une onetan On Lucio ta gure astronomuak ikusi ba zenduzan, irakurle?. An joiazan arrapaladan eta sokorruka, or jausi an altzatu, aterpe anbat non aurkituko. Itxura makala errira sartukeran gizonok ekarrena.

Mutillak, ifñotsen alkarrei astronomuek, goazen ain bat arifien erritik kanpora. Ondatuak gara osterantzean.

On Luciok ez eban ikusi geiago gizonon kerizperik. Anka egin eutsoen ba da ez badan. Baiña egun gitxi barru eskuratu ebazan astronomuok zor eutsoezan bots milla ogerlekoak.

Berak be, ostera, ba autsozan zor laurleko batzuk norbaiteri. Astea igaro baiño lenago agertu zan an Koxepa ate.joka, Txapar lagun ebala.

Ez neutsun esan nik, On Lucio?. Ai, nire astotxu baiño

astronomu obarik ez dago ludi onetan ondiño. Begiratu eizu, zelan igarri dauzan eguraldiaren gora-berak. Eta gure Koxepa amar milla laurlekogaz joan zan egun aretan etxera. Ostera be esan go eban, berak diru asko egiteko ez ebalá bear buru askorik. Nok ez gero, alako astotxu bat euki ezkeró?. Baiña txi, irakurleok. On Luciok, ez dagiala jakin astotxuaren trebetasuna.

## **Zoro-etxean**

Zoroetxeko zuzendaria ikerle bateri etxe aretako gora-berak azaltsen egoan eta onelan ifñotson.

Begira, andik datorren gizon a, osatua da. Len esaten eutsoen guztia ziñestuten eban, baiña orain osatuta da. Egiztatu gura dozu?.

Gizon osatuari dei egiñez, diñotso. Ba dakizu etxeko berebil-gidariak, atzo ez bear bat izan dauala?. Zugatz aundi bat jo dau, ta burua soifñetik aldendu jakon. Eskua-kaz burua artuta, bizartegira joan zan arifñeketan, bizarra ta ulea moztu egien. Zer deritxozu?.

Zuzendari jau, eziñekoa deritxot. Atzo Astelena zan, eta Astelenetan bizartegiak itxita egoten dira.

Zoroaren buruz ipuiñ asko egin dira, barre apur bat egin gurean. Baiña, jazoten diran gauzak ikusirik, gizartea zoratuta ez dagola esatea, zuzena da?. Sarritan esan leitteke ezetz.

## **Aberastasunik aundiëna**

Ander nire adiskidea makal aurkitzen zan eta egun baten erabagi eban Osagilleagana joatea.



Andik egun batzuk barru ikusi neban eta itaundu neutson, zer esan eutson Osagilleak.

Betiko leloa, erantsun eustan, Ez edateko, ez erreteko, nire gaixoarentzat guztiz kaltegarriak diralako. Baiña goizeko seiretan jagi ta lanera joatea txarra dala, ez daust esan eta orixe da, ain zuzen be, ni makaltzen nauana, lanera joateak.

Zer izan bear dau lanak kaltegarria, esan neutson. Lana gizona goraltzen dauan gauzarik ederrena da, osasun-iturria.

Orreik Gabon-abestiak dira, erantsun eustan. Ori olan balitz, uzte dozu aberatzak lana guretzat itxiko leukiela.

### **Lau urdailleko gizona**

Urietako jai aundiak urreratzen diranean, jolasteko kirol, antzerki ta olako asko izaten da. Ipuifeko erriaren jaietan be, bertako enparantza nagusiaren alboan, gizon bat erakuzten zan "lau urdailleko" leloaz txabola baten. Egun baten beste askotan lez, ikusleen artean agertu zan gizon lodikote ori. Bere naguziak atara eutsozan kilo bat lursagar, amabi arrautz opil bat eginda, beste kilo bat okela, kilo biko ogi bategaz, ganera kilo bi mats. Guzti-oneik ondo bustita lau azunberdiko ardaoz. Guztia beingoan amaitu eban, jan edo irunsi, barrura arin sartu eban.

Berari adi adi egoan gizon bat, asi zan oiuka, barriro... barriro... eta jakiña, bat asten danean enparauak atsean doaz, ardiak artaldean lez, eta danak asi ziran oriuka, barriro... barriro.

Eta gure gizona barriro asi zan jaten eta lengoan

ganera, kilo bat makarroi ta oillosko bi, iruntsi ebazan, ogi ta aradaoaz.

Ikusleak barriro asi jakozan oiuka, barriro... barriro... Geiago jan dagiela eskatzen.

Orduan erakusketaren jabeak, itaundu eutsun gizon lodiari.

Mezedez, barriro jango zeunke?.

Ederto, difotso lau urdailleko gizon onek, baiña olan jarraitekoan, etxera afaria jaten joateko astirik ez dot izango.

Gaur egun garestiegia da olako gizon bat etxerako.

## **Emakume bin Alkar-izketa**

Beiñola antzerki-emakume bik, kalean uste-uste barik topo egin eben. Maitasun aundienagaz agurtu ziran, naiz ta euren artean maitasunik ez egon eta bai alkar ikusi eziña.

Bietatik batek, idazki bat atara eban eta argitaratu be bai. Beste emakumeak esan eutson oneri Irakurri dot zuk argitaratu dozun liburua, ederto dago, baiña nok idatzi dautsu?.

Beste antzerki-emakumearen erantzuna arin izan zan. Ez zan gelditu atsera ta onelan esan eutson. Neuk idatzi dot, naiz ta zuk zifestu ez. Eta zuri, nok irakurri dautsu, ba?.

## Lanerako gogoa

Lanerantz joiala, langille batek diñotso bere lankide bateri. Atzo eldu nintzan oporretatik, baiña nire lanerako gogoa ez dot uste datorren asterarte elduko danik.

## Ardonazka

Gudari bat guztiz mozkortuta eldu zan gaba baten bere gudarietxera. Urrengo egunean bere nagusiak deitu eutson bere idazgelara ta itaundu eutson, atzo zergaitik etorri ziñan alako mozkorragaz?. Ez dakizu ori emen zigortu egiten dala?.

Parkatu jauna, ez dot geiago egingo. Lagun txarrakaz ibilli nintzan atzo, barriro ez naz joango eurekaz.

Zelako lagunak ziran orrek, esan eutson nagusiak.

Danak ziran ardonazkak, jauna, ta orregaitik sartzen giñan edantoki guztietan neuk txola guztaik edan bear nebazan.

## AZKEN GURARI

Nire auzoerriko Patxo Errotabarriko guztiz txarto egoan gaixorik ogean. Ludi onetatik joateko egunak zenbatuta eukazala ba ekian. Olako argi-aldi baten bere andrèari deitu eutson, esanez. Ara, Marixa, senar-emazteak ondiño gazteak ziran, azken itz bat emon bear daustazu, ba nire azken ordua ur dago. Ni ilteñ nazanean Karlosegaz ezkondu zaitezela gura neuke.

Baiña Karlosagaz? diñotso emazteak. Bizitza osoan asarre izan zarie ta zuen artean gorrotoa bakarrik izan da.

Bai, alantxe da, diñotso gizonak, baiña itza emoten ba daustazu guztia parkatuko dautsot.

Zeruko zoriona lortu dagidan, mezedez emon eistazu itz au.

### **Lana ezin itxi**

Azpalditik ikusten ez ziran emakume adiskide bi, topo egin eben kalean erosketak egiten ebiltzala ta konturatu barik astia joan jaken eta batek esan eutson besteari. Berandu egin jat, zazpirak dira ta etxera joan bear dot, nire senarrak zazpiretan itxiten dau lana ta zuzen joaten da etxera, orregaitik arin joan bear dot, eta zure senarrak ze ordutan itxiten dau lana? itaundu eutson.

Nire senarrak ez dau iñoiz itxiten lanik, diño besteak, zelan itxiko dau ba, asi ez ba dau egiten iñoiz?.

### **Ezkontzeko aukerea**

Pellok uzte dau ezkontzeko sasoi etorri jakola, baiña ez daki ondiño zeifnegaz ezkondu.

Aukera bi daukadaz, esan eutson bere adiskide Josebari. Bata alargun abertsetarikoa da, baiña ez dot maite. Beste, ostera, nezkatilla polita, alai, maite dot, baiña txiroa da. Zeifnegaz ezkonduko naz?, itaundu eutson Josebari.

Arraioa, olakoetan biotzaren deiari erantzun bear jako mutil. Ezkondu zaitez txiroagaz, esan eutson Josebak.

Ezkerrik azko, Joseba, orixe egingo dot, txiroagaz ezkonduko naz. Deituko dautsut estegura ezkontzen nazanean.

Zu Pello, aldendu baiño lenago, esan eistazu non bizi dan alargun ori.

### **Adin naiko**

Zendi arteko batzar baten, barriketa gozoan egozan jaun-andra batzuk. Adifñaren gora-bera buruz jardunean. Onetan naiko sartuta urteetan egoan andra batek, bere alboko gizonari esan eutson. Zuk zenbat urte ezarten daustazuz niri?.

Nik ... bat be ez. Aldean daroazazunakaz naiko daukazu, erantsun eutson gizonak.

### **Amabost egun**

Antziñatik ikusten ez ziran andra bi alkarregaz aurkitu ziran eta alkar mozukatuaz diñotso batek besteari. Azpaldiko Margarita, zelan zabiltz?. Ezkondu ziñan?.

Bai Miren ta zu?.

Baita ni be.

Zetariko zenarra artu zenduan ba? esan eban Margaritak.

Diru-etxe baten lan egiten dauana, diru asko ez dau irabasten, baiña alkar-maite gara ta ondo bizi gara. Eta zu zelako mutillagaz ezkondu ziñan? esan eban Mirenek.

Ni itxas-gizon bategaz, pilotua da. Diru azko bialtzen daustana. Urtean bein amabost egoten gara alkarregaz, iñoan Margaritak.

Urtean amabost egun? Ezin zeinteke izan zoriontsua. Diño Mirenek.

Bai, zelan ez, esan eban pilotuaren emasteak, ama-bost egun beingoan joaten ba diral.

## **Pantxo Villaren semea**

Au Mexikon jazo zan. Pantxo Villa ango leendakari izan zanean, aldi aretan. Pantxok seme bat eukan eta guraso danak lez bere semea gura eban toki egoki baten ezarri lanean.

Orretarako deitu eutson egun baten erri aretako jaur-lari bateri, esanez. Begira manito, or doatzu nire semea zure idazkaritzat jarri daizun. Beregaz zer egin bear dozun ba dakizu. Ondo artu ta alogor ohea emon. Ordaindu.

Andik egun batzuetara gobernadore deitu eutson Pantxori, eta esan eutson. Leendakari jauna, zure semeak ez daust balio idazkaritzarako. Ez ba daki ez idanten, ezirakurten.

Ori errez zuzendu leiteke, erantsun eutson Pantxok. Zeu jarri zaitetz adizkaritza lez eta semea jarri daitela Gobernadore.

Gogo onagaz gauza guztiak zuzendu leitekez.

## **Errundun izango zarie**

Ara emen bein baten aldizkari baten irakurri neban idazki oso mamitsu ta sakon bat, gurea euskeraren buruz.

Sueziako nezkaitilla gazte bat urreratu jakon idazle onen egilleari, euskeraz egiten ebala ikusirik eta euskera garbian bere biotz-miña agertu eutson euskeraren zoritxarraigaitik. Gotenburgoko ikastetxean ikasi eban euskeraz.

Ezin eban ulertu nezkatilla onek, gure nagikeria ta alperkeria ta onela amaitu eban bere esaldia. Euskera gal-tzen ba da, ez zarie zuen errien aurrean bakarrik errudun izango, ludi osoko gizasemen aurrean baiño. Izkuntza ori zuen ondore baiño, gizadi osoren ondore dan ezkerro, naiz ta gaur egun zuen eskuetan egon bere bizitza.

Ez ete da, au, zio naikorik gure ikastoletan euskeraz ikasi dagien Euzkadin jaio diran danak?. Alegindu gaitetzan ba, euskotar danok gure izkuntz maite eder au berbiztuteko.

### **Irabaste bezelako sukaldaria**

Nire auzuneko zendi baten, gauzak ez ebiltzan lar ondo, antza danetik. Jatekoa ez eutson ipinten andreak, gizonak gura eban lez. Eguerdi baten lanetik etorri zanean gizona, jaten egoala bere emazteari diñotso. Noiz ikasiko dozu janaritzen nire amak ain ondo?.

Andrea ez zan geratu ixilik, arin esan autson. Zure aitak irabasten eban beste irabasten dozun egunean.

### **Aitaren smokigñe**

Zendi bateko umetxuak ikusirik bere aita-amak jantsiten egozala jai batera joateko, esan eutson bere aitari. Ez zeunke ipiñi bear soifneko ori, smokig ori.

Zergaitik alabatxu? esan eutson bere aitak.

Ba dakizu ipinten dozun bakoitzean buruko mifia emoten dautsula urrengo egunean.

## **Eurak ez dakie**

Larogeita emeretzi urteko atsotxu batek, amama bera, asar-erazita egoan etxean argi-tximista-gaitik larregi ordaintzen zalako.

Baiña amama, esan eutson egun baten bere illobatari-ko batek. Egund osoan berogallua biztuta daukazu eta gainera sarritan aiztuten jatzu ogera joaten zaranean, argiak amatatzea.

Bai. Guzti ori egia da, baiña eurak ezin leikee jakin, esan eban. Beti itxiten dodaz beira-oialak ixita.

## **Galtze txikia**

Egun baten gizon bat liburutegi batera sartu zan liburu bat erosteko asmuz. Bertako agertokian ikustaldi bat egin ondoren, erabagi eban liburu bat erostea, bere sal-neurria seiraun laurleko zan eta milla laurlekoko ingi bat emon eutson ordaintzeko, baiña liburutegiko arduradunak ez euzkan gaiñerakoa emoteko. Azkenean bosteun laurleko-gaz geratu zan eta esan eutson. Urrengo zatozan baten emongo daustazuz eun laurleko orreik.

Baiña, esan eutson txantxetan, emendik urtekeran ilda jausten ba naz?.

Ez dauka lebarik orrek, galtze txikiegia da.

## **Praka zaarrak**

Bein baten izparringi baten iragarki bat agertu zan olan idatzita, "Lorabaratz baterako gizon bat bear dot,



etorkeran ekarri bear dira aurrerako lanean erabilli ebazan soifekoak ikusteko”.

Langabe egoan mutil bat joan zan lantegiko nagusia-gaz ikustaldi bearrezko ori egitera. Nagusia atsotxu naiko zaar bat zan eta nire soifekoak ondo ikusi ondoren, esan eustan. Lantokia zuretzat da, asi zeinteke lanean illen lenngo egunean.

Ezkerrak emon neutsozan, baiña kezka nengoan, zergaitik ete ziran ain bearrezkoak lenagoko lantegiko prakak erakustea ta olan agertu neutson nire ardura ori.

Ara, esan eustan, zure prakak belaunetan adagiz beterik dagoz. Etorri jatazan beste gizon bi zu baiño lenago baztertu dodaz, euren prakak eperdian adagiakaz egon diralako.

## **Orduan bai orain ez**

Gudaetxeko gudari batzuk ez egozan guztiz pozik emoten eutsen janariagaz, apur bat mingoztuta egoalako, ta nagusiagana joan ziran euren gogoia adierazten.

Zer? esan eutsen nagusiak, janari au ona ez dala. Aldi aretan Napoleonen gudariak euki ba eben janari au, ludi osoa menperatuko eben.

Bai, egia diñozu, esan eutson gudaritariko batek, baiña Napoleonen aldian, janari au egin-barri egoan.

## **Aukerea**

Sortalde ta sartaldeko emakumeen batzar baten, andra talde aundi bat egoan alkar-izaketan eta une baten eban senarraren gaia. Txinatar emakume batek azaldu eban be-

re eretxia gai onen buruz eta esan eban bera azko poztu-  
ten zala bere senarra bere gurasoak aukeratua izatea.

Baiña, zergaitik? itaundu eutson Europatar emakume  
batek.

Ba, esan eban Txinatarrak, izu-arazituko nintzake  
neuk aukeratua dala gogoratzean.

### **Itsuaren ibillaldia**

Gizon batek itsu bateri sarritan lagundutzen eutson  
ibilaldi bat egitera euren erriko etorbidei batetik. Onetari-  
ko egun baten, eurekarantz aurrez aurre nezkatilla kirru  
polit bat etorren ganera guztiz erakargarria zan. Gizona  
itsuari azaltzen eutsozan nezkatilla onen edertasunak,  
esanez zelako begiak eukazan, bere ulea, bere bular ma-  
mitsuak, ze liraiña zan, eta abar.

Eurak igarota apur bat arrundu zanean nezkatilea, gi-  
zonak atsera begiratu eban, eta orduan bidean egoen zu-  
gatz bategaz topo egin eban. Itsua konturatu zan eginke-  
ra onegaz, eta esan eutson, Zerbait jo duzu, ez?.

Bai, zugatz bat, erantzun eutson gizonak.

Ba, artu eizu nire besoa beste zerbaitegaz topo egin  
ez daizun.

### **Zazpi urte Bakarrik**

Txangolari bat bere oporrak igarotera, urruneko uri  
aundi batera joan zan. Alde aretan eguraldiak berotsuak  
dira ta ganera Udan. Orregaitik izerditan, neketsu joian  
egun baten bertako kaletatik zear, uri beratako mutil kos-  
kor bategaz asi zan berbetan eta esan eutson, uri onetan  
ez da izaten euririk iñoiz?.

Ez dakit, erantzun eutson mutillak, zazpi urte bakarrik dodaz nik.

## **Euritzea**

Egun aretan euritze aundia zan. Gizon batek bere erritik urrun egoan beste uri batera joan bear eban bere lan-tegiko zeregifñetan. Urten eban berebillen eta bakar-leku baten gelditu jakon berebilla ezbear bategaitik. Alegin guztiak egin arren ezin eban zuzendu arazoa ta azkenean erabagi eban ikusten eban etxe bateko argiarantz joatea. Gaba illuna zan eta euriagaz ondiño illunagoa. Eldu zan etxe txikitxu aretara ta atean deitu eban. Lenengo deiara ez eutson iñok jaramonik egin, barriro bein ta geiagotan deitu eban. Azkenean urten eutson gizon zaartxu batek, bere burua leio batetik agertuaz eta esan eutson. Zer gura dozu?

Berebil gidariak gizonaria azaldu eutson jazorikoa. Zelan berebilla apuru jakon eta ezin ebala ipiñi abidan eta orregaitik jakin gura ebala ia gaba an igaro al ba eban.

Bai, zergaifik ez, erantsun eutson gizon zaarrak, ni gaitik geratu zeinteke or zeuk gura dozun arte.

## **Emakume bat besoetan**

Abade naiko zaar batek bere eleiz-parrokira eldu zan beste abade gazte bateri, erri aretako gora-berak azaltzen egoan eta baita be lgandeetako goizeko Meza Nagusiaren itzaldia. Eleiztarrak azpertuta burukadaka asten diranean nik urtendide bat dot guztiz egokia. Ara, olan esaten dautset. Bart beste gizon baten andrea euki neban nire besoetan. Danak arrituta, burua zutik dagozanean, jarraitzen dot. Neure ama maitea zan.

## **Astoa ta bedarra**

Bein baten Eibartar talde bat joan ei zan Markiñara eguna igatoteko asmuz. Erri polit onetako kaletatik zear joizala, taldeko batek guztiz arriturik kalean ikusten ebanagaz, esan eban.

Ene, emen, Markiñan kalean be bedarra dago. Kalean erne ta azi egiten da bedarra erri onetan.

Esan eban, bai, baiña erantzun ona izan eban. Andik ebillen Markiñar batek entsun eutson eta onela iñotson. Ori ez litzake jazoko, Eibarren beste asto balegoz.

## **Txantonen ilteko bildurra**

Nire auzokida Txantonek, ilteko bildur itzala eukan. Ez eban erretzen biziena sortu ez ekion edari gogorrik, tantalik be ez, alkol gaixoaren bildurrez. Ez eban janari aundirik egiten, urdaila zulotu ez ekion. Ez zan joaten gabarik gaba lagunakaz, bikain ta lerden egoteko. Ez zan ezkondu be, bada-ezpadan. Nok jakin zelako emaztea urten eikion.

Baiña azkenean, gizajoa besteak lez, il zan.

## **Bultzia galdu**

Joseba urruneko uri batera joan zan bere lantegiko arazo batzuk zuzentzeko asmuz. Itzultzeko eguna izendatuta eukan, baiña ez dakigu zergaitik, egun orretan bultzia galdu eban. Gauzak ondo egin gurean bere lantegiko nagusiarri urru-idatzi bat bialdu eutson, esanez, "Bultzia galdu dot gaur. Biar ordu bardiflean urtengo dot orrantz".

Egun beratan oberatu baiño lenago artu eban berak

be beste urrun-idatzi bat, iñoana, ordu bardiñean urteten ba dozu, bultzia barrero galduko dozu.

## **Aate eiztariak**

Koldo ta Ander, adiskide aundiak biak, erabagi eben egun baten biak batera aate batzuk arrapatzen joatea. Koldo eiztari ona da, toki azkotatik ibillikoa, begi onekoa. Ostera Anderrek iñoz ez dau artu bere eskuetan eiza-izkillurik, lenengoz doa zeregin onetan.

Ozin aundi baten baztarrean ezarri ziran, begira adi adi aateak noiz etorriko. Koldok atara eban bere zorrotik akeit-ontzia ta akeit bero beroaz zurrutada gozaro bat egin eban. Anderrek be bardin egin eban, atara bere akeit-ontzia ta zurrutada luzetxu bat egin eban. Olan jarraitu eben luzaro. Egun aretan aate gitxi ebillen inguru aretatik, baiña olako baten aate bakar bat agertu zan. Koldok jaurti eutson danbada bat, baiña aatea aurrera joian. Gero Anderren txandea zan, artu eban eiz-izkillua, bagi bat ixi ta berak be jaurti eban beste danbada bat eta aate gizajoa jausi zan lurrera.

Koldo guztiz arrituta egoan ikusten ebanagaz eta esan eutson Anderreri. Au da itzela, il dozu.

Baiña zergaitik da ain itzela jazoki au? esan eban, Koldok. Ez dot uzte, aate aldra aundi bat egaz ikusita, danbada bigaz aate bat iltea.

## **Txangolari aitzukorra**

Uri aundi batera beste askon artean txangolari udati bat agertu zan. Ostatetxe aundi baten ezarri zan eta urten

eban goiz baten ibillaldi bat egitera uri beratako etxe aundiak eta beste gauza oroigarriak ikustera.

Egun osoa kaletatik zear ibilli ondoren gauza guztiak arakutzen, eldu zan guztiz nekatuta ostaetxera ta bertako artzaillegana urreratuta difñotso, mezedez esango daustazu zein gelatan nagon?.

Bai zergaitik ez, erantzun eutson artzailleak maitegarritasun aundienagaz, orain atarian zagoz.

## **Lengo lekuan**

Antziña bizi ei zan nire errian gizon guztiz on bat, buru-argitasun gitzikoa, apur bat atseratua esaten dabena. Gizajo uts-utsa zan. Zirkil eukan ezizena. Aldi aretan erriko bizartegian egiten ebazan egonaldia luzeak. Inasion bizartegian. Onak bizarra duan kentsen ei eutson Zirpila gizajoari.

Egun baten, esan eutson Inasiori. Zu, ni leloa nazala esaten dabe errian, baiña orixe Kesukristo be ez dot uste azkar-azkarra zanik, erriko abadegandik entsun dodan lez. Igez Ketsemaniko ortuan arrapau ei eben eta aurten be ortu beratan arrapau dabe. Ni ez nintzan joango bigarrenez ortu orretara.

## **Arritasuna**

Nire adiskide Pellok barazki-denda bat artu dau eguneroko ogia irabazteko asmuz. Berak gauza gitxi daki sal-erosketa onen buruz eta orregaitik beste onelako dendalari, adizkidea bera, bateri bere onua eskatu dautso. Joan dira egun baten biok azoka nagusira ta an dabiltz dendarik denda, guztia ikusten. Onelako baten nire adis-

kidea urreratu da dendalari bategana, eta ikusirik zelan bertako arduraduna, banan banan asak artuta, berantz adi ipiñi apur bat eta astinduaz itxiten ebazala otsara baten. Nire adiskideak jakin gurean zergaitik egoan bear ori egiten, itandu eutson. Zu adiskide, esan nai daustazu, zergaitik egin dozun asa orreikaz lan ori?. Ez, ez da lanik, giltzak billa nabil.

### **Emaztea bearrezkoa**

Gizon guztiak bear dabe emaztea, bada goiz edo berandu jaurlaritzari errua bota eziñeko zerbait jazoko jake.

### **Lege gizona ta zerua**

Egun baten lege-gizon bat eta Aita-Deuna eldu ziran batera Zeruko atera. Urten eban Kepa Deunak eta lenengo eroan eban lege-gizona gela eder eta bikain batera, tresna ederrak, argazki baliotsuak eta pitxiz beterik egoanara.

Ondoren Aita-deuna eroan eban gela guztiz apal batera, estua ta otsa. Onek ez eban ikusi guztiz ondo Kepa Deunak egin ebana ta adierazo eutson esanez, zelan emon dautsozu Lege-gizonari niri baiño gela obeagoa?.

Ara jauna, ori Lege-gizona da, lege-gizon berezia, Zeru onetara sartu dan lenengo Lege-gizona. Ulertuko dozu, Aita-deunak asko daukaguz baiña Lege-gizonak ori baiño ez.

## **Atxurra ta palea**

Orain ainbat urte da, nire albo-erriko baserri baten bizi zan gizon buru argiko bat, txantxeta laguna zan eta errian danak eukazan adiskideak. Joseba eritxon baiña Errotabarri deituten eutsen ezuzenez. Argiña zan eta egun baten ormagiñan iñarduan bere auzoko baserri baten. Etxe onetan bertako nagusia egoan gaixorik eta bere zendiak Osagilleagana joan ziran gaixoa osatzeko asmuz. Etorri zan On Prudentzio, au zan Osagillearen izena, ta gaixoa arakatu ondoren urten eban etxetik eta non aurkitzen dan Errota-barrigaz. Osagillea alai egoan eta txantxetako gurariatz eta Errotabarriri adarra joteko asmuz esan eutson.

Lanean ez, Errotabarri, zuok, argiñok ondo bizi zarie, ardura gitxiatz. Zuen, argiñaren, utsak kare-orre ta karebeltzak estalduko dabez.

Argiñak erantsuna min ganean eukan, antza, arin ixildu eban Osagillea esanez, osagilleen utsak ostera, atxurak eta palak, lurra euren ganean, kutxan ganean ezarriatz.

## **Laguntzarik gura?**

Goizalde baten gizon bat joian bere etxerantz, gabeen berandu, goizean goizetik, edantegitik edantegira gaba osoa igaro ondoren, bere barruan lagun eder bat eroala. Asti luze baten egoan bere etxeko ate aurrean, giltza sarralluan sartu eziñik. Ardao larregi edan ezkerro olako gauzak jazoten dira sarritan.

Andik joian beste gizon bat geratu zan gure sabudun gizonari begira adi-adi miñutu batzuetan olako baten urreratu zan beragana eta esan eutson, adiskide gura



dozu giltza zuloan nik sartutea?.

Ez, ori ez da nik bear dodan gauzea, erantsun eutson moskortuak, baiña mezedez etxeari eutsiko ba zeunkio apurtxu bat mugidu ez daiten...

## **Ebaketea**

Osaetxe baten andratxu naiko zaar bat egoan. Osagilleari ez eutson itxitan baketan bere itaunakaz bere gaxoaren buruz, ba da urrengo egunean ebaketa bat egin bear eutsoen. Milla bider Osailleak azaldu eutson, zelan izango zan ebaketa ori baiña berak jarraitzen eban azaltasun geigo billa. Azkenengo orduan eldu zanean barriro esan eutson gaixoak Osagilleari. Azkenengoz esango zeuskide zelan izango dan ebaketa ori?.

Baiña andrea, erantzun eutson Osagilleak, milla bider azaldu dautsut guztia ta ez daukat zer esanik.

Bai, bai, buruan daukat esan dauztazun guztia, baiña garbitasun-nezkemeak esan daust beste era bat dagola ebaketa ori egiteko.

## **Gaurko txartela biarko**

Doixtar bat joan zan Uda baten Mexikoko lurraldeak ikustera. Uri aundi batetik beste batera joan gura eban eta orregatarako artu eban bearrezko txartela, baiña bultzira igon ebanean bertako arduradunak bultzia aretan ezin leitekela joan ifnotson, izkuntza ezbardifnekoak ziran eta ezin ziran ulertu, orregaitik deitu eutsoen doixtarrez ekian bateri ta au be Mexikotarra zan lez asi ziran sarata-tsu izketan eta azkenean naiko sutsu.

Onetan doixtarrak esan eutson itzuleari, zergaitik dago gizon ori ain asarre?.

Onek diño, erantzun eutson, bultzia au atzokoa dala ta zuk gaurko txartela daukazun lez, biarko bultziari itxaron bearko dautsozula.

### **Niagarako turrusta**

Niagarako turrusta guztiz ospetsua da, ikuspegi ederenatarikoa zeintzutara ezkonbarri azko urreratzen dirana euren esti-aldia emoten.

Ostaetxea batzuk dagoz inguru aretan ara doazan txangolarientzat. Onetariko etxe baten bere nagusiak, eta ez kokoloa nire eretxiz, jelo au ipiñi eban, "Euneko ogei berakatuko dautsot datorren urtean bigarren esti-aldia ostaetxe onetara datorrenari aurtengo emazte beragaz".

### **Seme-alabak ez, gurasoak be ez**

Uri aundi bateko talde batek erabagi eban ikertze bat egitea gurasoen artean jakiteko zenbatek ekian nondik ebiltzan euren seme-alabak gabeko bederatzietatik amarak bitartean. Deia urrutizkiñatik izan zan.

Lenengo amar deiari etxe beratako seme-alabak erantsun eutzen eta ez ekian urrunetik be, nondik ebiltzan euren aita-amak. Eredu polita seme-alabak ezitzeko.

### **Lenengo itaundu**

Uri aundi bateko lantegi baten bertako langilleak borroka gogorrean egozan lan-arazo batzukaitik. Ori egune-

roko ogia da gure artean be. Ate aurrean, lantegiko ate aurrean, langille-sail bat egoan eta ez eban itxiten lantegira sartzen, ez langillei ta ez berebil ta kamioei bei.

Eguerdi baten agertu zan kamioi txiki bat lantegira sartu gurean, baiña langille-zaillak eragozpen eutsoen. Kaioiduna abiatu zan itzultera, lantegira ezin sartu zala ikusirik eta onetan batek itaundu eutsoen, baiña zu adiskide, zer dakarzu?.

Joan dan asteko alogorrak, esan eutson gidariak eta aldendu zan bere bidetik.

### **Ostiketa trebegillea**

Orregaitik lenago itaundu eta gero ikusiko dozu zer egin.

Ostikekato trebegilleak berriketari bateri, Urte-saioa asi zananean esan eban gure taldea zala gure burkideak txautu bear izango ebena eta alan izan danak azpiratu gaitue.

### **Liburu asko**

Argitaldari batek idazle bateri. Tamala dot, liburu larregi daukaduz milloidun zelan lortu leiteken gai buruz, ezin zeinke idatzi zerbait zelan bizia irabasiaren buruz?.

### **Osaki egokiak**

Ogean gaixorik dagoan gizonak bere emazteari. Ziur gagoz osaki oneik naiko gogorrak diranik gaixoaren ma-

marroak ilteko?. Ez neuka gura artu eurak zalapartu egienik.

## **Gogo-zendaillea**

Gazte batek iñotsan gogo-zendaille bateri. Gabero kamioi aundi bategaz egiten dot amesetan. Santaderretik Kadizera eroan bear dot eta azkenean uri onetara eltzen nazanean, guztiz nekatuta aurkitzen naz.

Ez zaitetz arduratu orregaitik, ori arin zuzenduko dogu. Aurrerantzean, Madrillen jatsi zaitetz eta neuk gidarituko dot kamioia Kadizeraño.

Illuntze beratan mutil au bere adiskide bategaz topo egin eban eta onek iñotsen, gabero, nezkattilla polit eta eragarkarriakaz emoten dot gaba ta urrengo egunean ilda egoten naz.

Joan zaitetz onen gogo-zendagilleagana ta ikusiko dozu, zuzenduko dautsu arazo ori.

Andik egun batzuetara barriro topo egin eben eta kamiodunak bere laguna len baiño makalako ikusten eban. Zer jazoten jatsu esan eutson?.

Ara, egon nintzan Osagille orregaz eta bai, nezkatiileena osatu eustan, baiña orain kamioi aundi bategaz nabil Madrilitik Kadizeraño.

## **Alde-onak eta txarrak**

Ezkongai bi joan ziran bizileku bat ikustera erosteko azmuz. Egoitz bat bear eben euren bizi barrirako. Saltzailleagaz egon ziran luzaro eta onek iñotsen.

Ara, etxe onek Alde-onak eta txarrak daukaz, ikusi

daizuen ez zatiudala atsipetu gura lenengo esango dau-  
tsuedaz alda-txarrak. Kilometro baten barruan dago abe-  
re-iltokia. Iparraldean kautxu lantegi bat, sorrkaldean, ur  
zikin garbitzaille bat eta egoaldean ozpin lantegi bat.

Entzun... baiña... aldizka esan eutson erosleak,...  
zeintzuk dira alde-onak?.

Beti jakin zein aldetik aizeak astintzen dauan, esan  
eban saltzailleak.

## **Lotsea**

Lotsatuta nago gure bizieragaz, iñotson emakume  
batek bere gizonari. Nire amak ordaintzen dauku akurea,  
nire izekoak erosten daukuz soñekoak eta nire aizteak  
baltzen dauku dirua eguneroko janarietarako.

Bai, esan eutson gizonak, errozoia daukazu lotsatuta  
egoteko. Zure osaba biak ez dauzue ezertan be lagun-  
tzen.

## **Oarkia**

Eleiz bateko abade batek eleizkizunak asi baño lenago  
ligande baten oarki bat artu eban itz bakar bategaz, lelo.

Itzaldian abadeak gai onen buruz, oarkiaren buruz,  
berba batzuk esan ebazan eta iñoan, ezagutu dodaz bat  
baiño geiago olako jazokiak, eskutiz bat idatzi ta izenpe-  
tzea aitzutea, baiña gaur artu dodan oarki au idatzita ez  
egoan izenpetuta bakarrik.

## **Urrutizkiña**

Sarritan deitzen dot urrutizkin-kaiola batetik, iñoan kamioi aundi baten gidariak eta naspil asko eragitzen daust apurtuta aurkitzen dodanean. Orregaitik urrutizkin elkartera sarritan deitzen dot nire erostakaz, baiña zoritarrez egunetan ez dautsee egiten jaramonik nire deiei.

Egun baten, apurtuta egoan egun baten, deitu neban urrutiskin-elkartera esanez zuzenduta egoala urrutizkin au, berba egin ondoren dirua biultzen eballa izan ezik.

Ordu bete baiño lenago agertu ziran urrutizkin-langi-leak tramankulu au conpontzen.

## **Azmakisuna**

Ikastetxeko irakasle bat mutil baten zendiari, bere ikasletariko bat, onen argitasunak bialdu eutsezan. Mutil ona da, iñoan, arikastsua, bere ikasketak ondo daroaz, bere ikaslekidekaz ondo jokutzen dau, baiña arreta larregi ipinten dau nezkatilla gaztetan. Uzte dot aurkituko dogula zeozer gurari ori kenduazoteko.

Mutillaren amak arin bialdu eutson irakasleari eskutitz bat, zeifñetan iñotson, mezedez aurkitzen ba dozu grifña ori kentzeko erea, azaldu eistazu. Gura neuke nire senarraz saiatu.

## **Sorgogarrria**

Bein baten osaetxe batera eroan eben gaixo bat, bai, etxe oneitara gaixoak dira uts utsik eroaten dabezanak, ebagi bat egin bear eutsoen eta eroan eben zeregin onetarako gela batera.

Sorgogarrilea urretau jakonean gaixoak esan eutson, jauna nik ez dot gura muga-barruko sorgogarririk, nik onena gura dot, erbesteko bat gura dot.

## **Biramama**

Larogeta amar urtedun biramama batek olan azaltzen eban zelan atondutzen zan ain gazte agertzeko.

Ara, iñoan, zaartzeko aldi luzea bear da... ta nik ez dot izan iñoiz astirik.

## **Ezanekoa**

Nire adiskide bat arratsalde erdian bere etxean agertu zan arpegi naiko illunagaz. Bere emazteak sasoi aretan ikusi ebanean, esan eutson, zer jazo jatsu? zelan zatoz ain goizetik etxera.

Nire nagusiak inpernura bialdu nau, esa eban gizonak.

Eta zuk zer egin dozu? erantzun eutson andreak.

Nik, bere esana betetu, etxera etorri, esan eban gizonak.

## **Egiaren atsetik**

Beste nire adiskide bat, gazte ta itxura onekoa, beintzat berak olan dalakoa dauka, joan zan jantetxe batera bazkaltzen. Bere aurren naiko ur, lau nezkatilla guztiz politak eta eragarkarriak egozan zeregin bardifnean. Begirakada batzuk egin eutsezan eta eurak begirakada irribarretsua erantzunten eutsen. Olan ziardun jatordu guz-

tian eta nabaritu eban beragaitik egozala izketan eta berantzat zirala irribarre ta begirakada gozo areik.

Bere eginbearretara joateko ordua eldu jakonean, jagi zan eta atseratu eban bere aulkia, eta onek atsean egoana jopatu eban. Parkatu jauna, esan eutson atseko zaldunari ta... an izan zan bere ametsondo mingarria. Atseko zalduna... Marlon Brando zan.

### **Zaarra ala barria**

Nire lenguziña Arantza, irakasle bera, urruneko erri bateko ikastetxerako izendatu eben, eta egun baten abiatu zan bere lantoki izan bear eban tokira. Eldu zan errira ta ez ekienez non egoan ikastetxea, jezarrita egoan agure bateri itaundu eutson.

Mezedez, esango daustazu non dagon ikastetxea?.

Agurea une luzetxu baten ixilik geratu zan, gero geldiro berak be itauna egin eutson Arantzari, zein zaarra ala barria?.

Ez dakit, esan eban Arantzak, uste dot zaarra izango dala.

Bai, zaarra izan bearko dau, ondiño barria eraikitzen ez dira asi ta, esan eban agureak.

### **Txakur azkarra**

Nire auzuneko Mikel guztiz arro dago bere txakurragaz. Oneri, txakurrari, emoten ba dautsozu dirua beingoan ekarriko dautsu izparringia, ifotson erritar bateri. Ikusi gura neuke ori esan eban bere adiskideak eta deitu eutsoen txakurrari eta emon eutson abora dirua.



Txakurrak ariñeketan urten eban, baiña ordu bete beranduago ondifo ez zan agertu izparringiagaz. Luzaroegei dau au, esan eban txakurren jabeak, zenbat diru emon dautsozu, ba?, itaundu eutson.

Bosteun laurlekoko ingi bat, esan eban bere adiskideak.

Orain bai, argi dago. Orren beste emoten dautsoenean, antzokira joaten da.

## **Eskutitza**

Ara emen, nezkatilla batek bialdu eutson eskutitza beragaz maitamenduta egoan mutillari.

Ez daukat itzik zein zoritxarrekoa nazan azaltzeko gure artu-emonak apurtu genduzanetik. Mezedez esaiostazu, itzuliko zarala, barrero etorriko zarala nigana. Iñok ezin izango dau betetu zure utsunea nire biotzean. Ezin naz bizi zu barik. Errukitu zaitetz nigaz, parkatu eistazu. Itxaroten zaitut.

Iñoiz baiño geiago maite zaitut. Bete zurea.

*Miren*

P.D.- Zori onak azkenengo zozketan atara dozun dirutsagaitik.

## **Soiñua**

Zendi baten umę txikiena zaamiola ikasten ebillen eta egia esan ez eban aurrekuntsa larregi egiten bere ikasketatan. Sarata larregi bai egoan euren etxean ete ez soiñugozotasunik, orregaitik erabagi eben baratz-lorategira bial-

tzea an egian bere saioa. Olan jardun eban luzaro ta auzokoak naiko adikor izan ziran, baiña egun baten semea bere zeregiñean egoanean, auzuneko bere sasoizko mutil bat agertu jakon eta esan eutson soñulariari.

Zelan, mutil?. Zer izango zara aundi egiten itxiten ba dautsugu?.

## **Ezkontzea**

Erri txiki bateko abade batek bere ogetabost'garren urtebetzea ospatzen eban eta lgande aretako itzaldian gomuratzan eban zelan bere lenengo itzaldirako eleiz aretan, ezkontzearen gai izan ebala ta orduerdi baiño geiago jarraitu eban egun onetan be gai beraren buruz eta beste jakin ezkontzearen buruz.

Arratsaldean erri beratako atsotxu bat agurtu ebanean kaletik joiala esan etson.

Zer deritxozu nire gaurko itzaldiari?.

Jauna, atsotxua ezkondua zan, gura neuke nik zuk bete jakin ezkontzearen buruz.

## **Uzkurkeria**

Gizonak emakumeak baiño uzkurragoak dira, iñoan gizon batek edantegi baten. Arin urten eben bere aurka bere batzarkide batzuk. Garrats esan eutsoen, azaldu eizu ori.

Bai eta arin. Nor ausartzen da da den baten gizonez-kotan amar jantsi pairatzen bere sakelean ez ba daroaz bost ogerleko baiño geiago?.

## Jardunaldia

Zurea itxurea guztiz txarra da, iñotson Osagille batek beragana joan zan gizon bateri. Jardunaldi batzuk egin bear zeunkez egunero.

Baiña jauna, niri ez jataz atsegintsu jardunaldiak. Gorroto dautsedaz.

Ara, jarraitu eban Osagilleak. Asieran joan zaitetz geldiro geldi. Lenengo astean ibilli zaitetz bost bat kale luzera egunero. Bigarren astean amar kale egunero eta olan zoaz aunditzen zure ibilliladiak ille baten. Gero itzuli zaitetz ona.

Aste batzuk igaro ta gero, gaixoak urruztikinetik deitu eutson Osagilleari.

Osa... gi... le... jau... na, aldizka esaten asi zan gaixoa, baiña Osagilleak ebagi eutson berbetaea.

Zelan doatsuz jardunaldiak?, iñotson Osagilleak.

Jauna, jarraitu eban gaixoak, il-zorian dagon bategaz zagoz berbetan. Soin guztia dot minduta. Ezin dot geiägo jasan. Il bear dot.

Ara, artu eizu taxis bat eta etorri zaitetz nire osa-gelara, esan eutson Osagilleak.

Taxisen?. Zure etxetik milla kilometro urrun nago.

## Jolaseta gizona

Lanbage egoan jolaseta-gizon bat joan zan bein baten televistako nagusiagana, ogeita amer kilo inguruko aitz zati bategaz, maillu aundi bat eta zorro bategaz eta agurtu ondoren esan eutson.

Nire saiotan aitz au ipinten dauste buru ganean eta nire languntzailleak maillu onegaz apurtzen daust. Amaitu ondoren agur irribarretsu bat egiten dautset ikuslei ta urteten dot, guztiz nasai ta oso osorik joaten naz nire etxera.

Bai ikusten dot, baiña zorro ori zetarako daroazu, ba?. Esan eutson televistako nagusiak.

Emen aspirinak daroadaz.

## **Eremua**

Saharako eremutik gizon bat joian bere berebillen guztiz neketuta ta izerditen, egarriz ito bearrean. Olako baten gamelu baten ganean joian beduino bategaz topo egin eban eta esan eutson.

Zelan eldu naiteke Siwa oasisera?.

Jarraitu eizu artez artez emendik. Asteartean bira eizu eskumara ta aurrez aurre daukazu, Eguastenean elduko zara.

## **Ezkongaiak**

Nire auzuneko Arantzaren alaba zarrenak nire adiskide Kepa dau senargaia. Alkarregaz maitemunduta dagoz urrean eta egon-aldi luzeak egiten dauz Kepak bere maite Julenen etxean.

Onetariko egun baten goiko gela baten egozan illuntzean naiko berandu senar-emaztegaiak eta Julenen aita guztiz artega egoan luzarotasun onegaitik. Alde batetik bestera ebillen bere etxean, geldí egon ezíñik. Gasteon ikustaldi au luzeegia da esaten eutson bere emazteari,

oraintxe igongo dot goiko gela orretara eta tximistea baiño ariñago joan bear dau, alabearen senargaiak bere etxera.

Nasaitu zaite, iñotson emazteak bere gizonari, gazteak dira, gomuta eizu gazteak giñanean.

Arraioa, zuzen be, orretxagaitik ba. Ez naz gomutako, ba?. Orregaitik ainbat len joan bear dau bere etxera mutil orrek.

### Zaldi berezia

Izaten dira ludi onetan izaki bakanak. Oneitariko bat zan nire erritar batek eukan zaldi zuria. Zaldi au ibillazoteko bearrezko zan esatea, Goraldu izan dedilla Jaungoikoa, bestela geldi geratzen zan. Geldituazo egiteko Amen entzun bear eban, bestela aurrera jarraitzen eban.

Zaartzen joiala ikusirik, bere jabeak saltzea erabagi eban eta orretarako eroan eban azokora. Aurkitu eban eroslea, baiña oneri azaldu gura eutsozan zaldi onen berezitasun onek.

Erosleak entzun ebazan nire erritarrak iñotsozan gauzak, baiña lelokeritza lez artu ebazan eta ordaindu eban zaldiazen dirua, igon eban bere ganean eta urten eban abiada ederrean. Une baten ikusi eban zaldia abiada larregian joiala eta ur egoala troka aundi baten bazterra, gelditu gura eban zaldia eta oiuka ta garratz esaten eutson "Soooo", baiña zaldia ez zan gelditzen. Azkenean etsimenduta esan eban, ondo dago "amen". Zaldia une beretan galditu zan eta zaldiganekoa, larritasunez, izerdi otsetan arnasa gozo bategaz betetu ebazan bere birikiak eta troka sakon aretara begiraturik esan eban, Goraldua izan dedilla Jaungoikoa. Onetik gaizkatu nozu jauna.

## **Eskonjale**

Lapidus eritxon gizon bat afaltzen egoala, urdailleko min aundi batzuk asmatu ebazan, asi zan astulka, arnasea estutzen asi jakon eta nekez betetzen ebazan bere biri-kiak. Azkenean guztiz txarto il zorian aurkitzen zan eta berak ba ekian bere orduak zenbatuta egozala. Une larri aretan, begiratu eutson bere emazteari eta abots gozo ta bigunagaz, parkamena lortu guren esan eutson.

Zelda maitea, ilten naz, baiña il baiño lenago gauza bat autortu bear dautsut, ni zugaz eskonjalea izan naz, parkatu eistazu.

Ba nekian, nire maitea, Orregaitik pozoitu zaitut.

## **Txarria ostu**

Gure baserrietan txarrikia janaria berezia izan da beti. Baserritar geienak urtean txarri bat edo bi ilten dabez, gazunaskan sarturik urte osorako koipea ta beste janari batzuk eukiteko. Txarria ilda legortzen eskegita ipinten dabe age aundi baten. Geinetan goizean izaten da ilte au, baiña nire auzuneko baserritar batek illuntzean il eban bere txarria ta bearrezkoa dan lez ipifi eban eskegita urrengo egunean zatitzeko asmuz.

Urrengo egunean jagi zanean ogetik, txarria ez egoan itxi eban lekuan, norbait ez zan egon lo gau aretan. Gure baserritarra ez zan larritu, ixil ixilik geratu zan eta ez eutson esan iñori jazoriko au.

Andik iru ille bete inguru bere erritar batek agurtu eban eta iñotson.

Joseba zelan, zuzmatu zenduan nok ostu eutsun txarria?.

Ez, erantsun eutson Josebak, baiña une onetan sus-  
mau dot nor izan zan.

## **Miragillea**

Itxaontzi-ibillaldi baten miragille batek txori-berritsu  
bategaz saiatzen eban eta onek bere saio geienak laski-  
tzen eutsozan ikuslei esanez, "sakelean dauka txartela"  
"bere kapelan sartu dau orain" eta onelako beste urteke-  
ra batzukaz.

Egun baten ekaitz aundi bat sortu zan itxas erdian  
joiazala eta eztanda itzel baten ondoren itxasontzia onda-  
tu zan. Miragillea ta txoria zure aundi baten ganean  
ur-ganetuta egozan gaizkatzalle anbat noiz agertuko. Lau  
egun luzarotan txoria gizonaren adi adi egon zan eta az-  
kenean esan eutson. Ezin dot geiago, zeuk irabasten  
dozu oraingoan. Non sartu zenduan itxas-ontzia?

## **Goizeko ordu biak**

Goizeko ordu biak dira, iñotson oiku gizon batek bere  
alabeagaz egoan mutil bateri etxe beratako gela betan,  
uste dozu emen egon zeintekezela gaba osoan?. Ez dago  
esan bearrik, gazte oneik eskongaiak ziran eta bakar ba-  
karrik egozan.

Ezkerrik azko jauna, erantsun eutzon mutillak, baiña  
ez dakit. Lenago deitu bear dautsot nire aita-amari baime-  
na emen geratzeko emon daisten.

## **Urduri ez**

Gizon bat joian egun baten egazkiñen uruneko uri batera, bere alboan joian atsotxu batek itaundu eutson. Zer, urduri ez?

Bai, erantzun eutson, gizonak.

Bai, lenengoz ez?. Esan eban atsoak.

Ez, andrea, esan eutson gizonak, sarritan egon naz urduri.

## **Izarak**

Illuntze baten nire senarrak nire amagaz antzoki batera eroan nindun, iñostan nire adiskide Mirenek, pelikula polita zan eta atsegintsu nengoan ikusten, baiña alako baten agertu zan saio maitakeritzaz guztiz gogorra ta egia esan, lotsatu nengoan nire amaren ondoan, larritasun onetan nengoala nire amak luzetu eban bere besoa ta eskutik oratu eustan esanez. Ze izara polit ez. Non erosi eta dauz?.

## **Gizon berekoia**

Nire senarra guztiz berekoia da, iñoan nire auzuneko emakume batek, bere senarragandik banandu zanean eta banatze au azaltzeko gurarian. Ezin eban jasan bere izakera ori, jarraitzen eban, eta orregaitik banandu nintzan, orain nasai bizi naz.

Baiña ez dot ikusten guztiz argi diñozuna. Zergaitik zan berekoia, iñotson adiskide batek.



Ara, esate baterako edo adibidez. Esan bearrean, "Ni ilten nazanean .. "Beti esaten eban, "Ni ilten ba naz ...".

## **Lan astunegia**

Espetxeratu baten emaztea joan zan bein baten espetxeko nagusiagana ta esan eutson.

Jauna, nire gizona guztiz nekatuta aurkitu dot, lan ari-ñago bat emon bear zeunkio.

Baiña zelan egon leiteke nekatuta, ez ba dau ezer egiten egun osoan, erantzun eutson nagusiak.

Bai, ba dakit egunez ez dauala ezer egiten, baiña esan dauts gabaz menzulo bat egiten dabillega, esan eutson andreak.

## **Gerrestua**

Gerrestu bat ostu eban gizon bat eroan eben bein baten epaillearen aurrera, ta onek ifotson. Orain be gerrestu bat ostu dozu, ez?. Eta orain iru urte zio bardiña-gaitik zigortu zindudazan.

Gizon gizajoak, erantzun eutson epailleari, baiña jauna, gerrestu igatu batek zenbat iraun leike ba?.

## **Matematikak txarto**

Ikastetxe nagusi bateko ikasle bat, ostikolari trebea zan baiña matematikatan ez zan añaakoa. Bere irakaslea guztiz azpértuta egoan beragaz eta egun baten erabagi eban bere taldeak eukan, ikaslearen taldeak, ostikoketa saio garrantsitsu batera joatea eragozteaz azterketan ondo egi-

ten ez ba ebazan.

Oskikoketa taldeko trebegillea larri joan zan irakasle-gana ta iñotson. Jauna ez zaitez izan ikasle orregaz ain gogorra.

Ara, ondo dago, esan eutson irakasleak. Azkerteka la-bur bat egingo dautsot zeure aurrean eta ondo erantzuten ba daust, emongo dautsot baimena joan dai-ten saio orretara, baiña beztela, txarto erantzuten ba daust eziña izango da. Etorri zaitez beragaz biar ikastetxe-  
ra ta an ikusiko dogu.

Joan ziran urrengo egunean trebegillea ta mutilla ira-  
kasleagana ta azterkalariak itaundu eutson gazteari. Zen-  
bat dira bi ta bi?.

Lau, erantzun eban ikasleak, ezpai barik.

Onetan trebegilleak guztiz urduri esan eutson azterka-  
lariari. Jauna, mezedez ez zaitez izan beragaz gogorra.  
Emon eiozu beste aukera bat.

## **Zernargai atxilotu**

Uri aretako kale nagusitik berebil baten abiada larre-  
gian joian gazte bat eta bertako udal-zain batek gelditu  
eban esanez, abiada larregian joan zara ta zigortu bear  
zaitut.

Ara, udal-zain jauna, itxi eistazu azaldu daizudan, ni...

Ixilik. Espetxean sartuko zaitut nire nagusia etorri arte,  
esan eban udalzaiñak.

Baiña jauna, entzun eistazu mezedez, esan bear dau-  
tsut ...

Diñotsut ixilik egoteko. Oraintxe sartuko zaitut espe-

txean, jarraitu eban udalzaiñak.

Ordu bat geroago joan zan udalzaiña mutil gazteagana ta esan eutson. Zoriontsua zara gaur. Nagusia bere alaba baten estegura joan da ta itzulten danean guztiz pozik egongo da eta azke itxiko zaitu.

Ez zaitetz egon ain ziur, esan eban gazteak. Neu naz senargaia.

## Aterkiña

Ludi onetan ba dira izaki barregarriak gizonezkotan be. Onetariko bat ezagutzen dot nire auzunean, Mikel Lukur esaten dautsoe errian eta ez dauka txarto ipiñita bere ezizena.

Lengo egunean bere andreagaz oiuka ebillen bere etxean aterkiña ez ebalako aurkitzen. Non dago nire aterkiña? iñoan asarre ta garratz, ez dot aurkitzen iñoan be?.

Onetan bere andrea konturatu zan, zelan bere adiskide bateri itxi eutson aurrerako egun baten. Parkatu, esan eutson gizonari, areñegun euri aundi zan eta nire adiskide Inasiri itxi neutson aterkiña.

Ederto egiña, erantzun eutson oiku bere gizonak, ez dot barriro geiago ikusiko aterkiñ ori. Ziur nago ez dodala geiago ikusiko.

Ez eizu esan olakorik, ezergaitik be. Iñotson bere andreak baketu gurean.

Ez dot esango ba . Orain iru illebete Iñasik berak itxi eustan aterkiñ ori, bere etxe aurretik euritse aundi baten igaro nintzanean.

## **Bizartegian**

Notin batzuk burua ez daukie txapela eroateko baka-  
rrik. Zelako gauzak asmatzen dabez.

Zorion bide onerako egingo ba leukeez. Ara emen, zer  
asmau eban gizon batek ulea duan ebagi egiotsen.

Bizartegirantz joiala, artu eban bidean umetxu bat ka-  
lean eskutik eta beragaz sartu zan bizartegian. Sartu bai-  
ño len esan eutson umetxuari. Bizartegi orretara sartuko  
gara biok eta zuk apur bat itxarongo daustazu, ulea moz-  
tu ta bizarra ebai arte. Gero zuri moztuko dautsu ulea ta  
nik ordainduko dot guztia.

Sartu ziran bizartegira eta bizarra ta ulea kendu eu-  
tsoen gizonari. Gero jazarri zan umea jazarlekuan ulea  
ebagiteko, baiña orduan "konturatu" zan gizona errekiñik  
ez eukala ta: esan eutson bizartegikoari, itxaron daiala  
umeak emen apur bat, ba da errekiña eroatera joan bear  
dot baiña beingoan itzuliko naz.

Andik ordu luze batera gizona ondiño ez zan agertu ta  
bizartegikoak esan eutson umeari, zer, zure aita ez dator  
ala?.

Ori ez da nire aita, esan eban umeak, kalean aurkitu  
nau ta ulea duan ebagi daisten gura ba dot esan daust eta  
sartu nau gela onetara.

## **Migeltxu txantxazalea**

Itxasaldeko baserri txiki baten bizi izan zan Migeltxu  
eritxon gizon bat: Orain emen ipiñiko donanak ipuin antza  
dau, baiña jazoriko lez edestuten eustan nire aitak base-  
rriaren izena be aitatuz.

Gizon au guztiz begikoa ei zan, txantxazalea, edantegiak bere egoitz bereziak izaten ziran zeregin onetarako. Adiskideak ugari izan ebazan, erri osoa, baiña lanerako ez eukan olako trebetasunik. Ziñesdun gizona ba zan, baiña zinismen otsekoa, eleizara gitxitan joaten zan, illeta ta olako beste eleizkizun berezietan bakarrik.

Baiña bizia laburra da, urteak arin joaten dira ta oneri be, gure Migeltxuri etorri jakon ludi au itxiteko ordua, gaixorik ogeratuta egoan luzaro ta azkenean naiko txarto, il zorian. Erriko abadeak ikustaldiak sarritan egiten eutsotzan eta azkenengo egunetan sarriago. An ebillen abade gizajoa zelan esan ez jakifirik Migeltxuri bere azken ordua ur egoala. Izan be une larria da.

Olako baten, Migeltxun iztarrak ukuturik esan eutson. Ara Migel, zure iztarrak be asi dira otsituten eta.

Naizta Migeltxu une larrian aurkitu, burua ondo eukan eta ez eban galdu txatxetasuna ta geldiro geldiro erantzun eutson abadeari.

Ara Jauna, ez zaitez arduratu nire iztarrakaitik. Esanak egiak ba dira, toki onera joango dira nire iztarrak berotzeko.

Uzte dot, arrera ona izango ebala Kepa Deunaren aurrean agertu zanean eta baita be Goiko jaunak irribarre bat egingo eutson azkenengo txantxa onegaitik. Gizon ona ei zan, ifñori txarrik egin bakoa. Alpertxua bai, baiña beste txarrik ez.

## **Santiago Flores**

Uri aundi baten zaldun aberats bat bizi zan, ezkongabe, mutil zaarra. Morroiak ugari eukazan, dirua ugariago. Alan be, gaitzat edozein atetan deitzen daualako, etxe

aretan sartu zan eta urteteko sartzeko baiño nagiago ebilli zan. Esan gura dot, ogeraturik egon zala mutil zaar a.

Goizero joaten jakon gizon bat, iñok etxe aretan nor zan ez ekiena, bere osasunagaitik itauntzen. Nagusiak au jakin ebanean, esan eutsen morroiei ezkerak emoteko ta txartel bat eskatzeko, nor zan gizo ori jakiteko.

Olan egin eben eta zein arriturik geratu zan atezaiña, besteak emon eutson txartela irakurri ebanean. Au ipinten eban txartelean.

SANTIAGO FLORES. Illak lurpera eroateko arazoduna edo zulogillea.

Egun aretan morroi guztiak alkaturik erabagi eben zulgilleari arrera oroigarri bat egin bear jakola. Nagusiari onetarako baimena eskatuta, morroi bai etzunda jarri eben mai aundi baten ganean, argi bin erdian, illa bezela, zulogillea agertuko zan orduan.

Beti lez, Floresek ots egin eban. Atea idegi jakon eta morroiak arpegi goibelez esan eutson nagusia il zala ta barrura sartzeko zerraldoaren neurriak artzeko.

Zulogillea sartu zan gelara ta asi zan neurriak artzen illari. Orduan jagi zan etzunda egoan "illa" ta besopetik oratuta esan eutson, ara Flores, ni lurpera eroan gura nozu?. Goizetixu da oraindik, neuk eruango zaitut bardin ba deritxozu.

Gutziz arrituta ta lotzez arpegia gorri gorri eginda urten eban etxe aretatik.

## **Banantzea**

Aitita batek bere illoba txikiaren buru-argitasuna jakin gurean itaundu eutson.

Emoten ba dautsudaz sei laurleko zuretzat eta zure anaiarentzat, banantzean aregaz, zenbat izango dauz bereak?.

Bi, diñotso illobatxuak bere aititari.

Zelan bi? erantzun eutson aitibak, ez dozu ikasi ondiño banantzen ala?.

Nik bai, esan eban illobatxuak, baiña nire anaiak ez.

## **Gerrestua**

Bein baten, gizon bat jantetxe batetik bazkaldu ondoren urten eban. Kalerantz abiatu zanean gizon bat urrerratu jakon eta guztiz lotsez esan eutson.

Parkatu, baiña, zu zara Joseba Urelagoitia?.

Ez, erantzun eutson besteak arrituta.

Ba, ni bai, eta bere gerrestua daroazu zoiñean.

## **Zendia**

Zendia zer da?. Gizaldi-sortzea dala diño Pio XI garren Aita Santuak. Gizon danak maite dabe zendia. Izan be, amets pozgarri onek oroi gozoak dakarskuz gogora.

Etxe zarrean, basoan sartuta, estalduta egon da zendia, alan be lenengo tokia da gure biotzetan. Zer dala ta?. Bertan bizi diralako gure maitasunik aundienak. Bai aldi ederrak eta gozoak bertan emonak. Adiskidiekaz egindako jolasaldiak, erreka-ibaietan arrinketan, baso-koipe-tsu, txori abiak billatzen, auzoko malluki, kereiza, intxaur ta gaztainak artzen. Aitita-amamaren altoan entzundako lapur, sorgin ipuñiak, aita-amak abestuta irakatsiko abes-

tiak, aita-amabitzik ifauteri egunean emondako mokotza, ikastolarako erositako lenengo ozki ta jantsiak, lenengo Jaunartzea. Umetako zenbat orio.

**GAZTAROA.** Lenengo amets aundiak, ludi barriak adimen eta biotzean. Maitasun-esnatzea, maitasun-ikurra zan karbeliña bat maiteñoari eskeintzea, ondartza ta mendira egindako ibillaldiak. Oroi gozoak gaztaroak be.

**EZKONTZA-BIZITZA.** Bai oroi pozgarriak ezkontza barruan izandakoak. Aurra ludian agertu zanean, lenengo iribarrea egin ebanean, "aitatxo" "amatxo" lenengoz esan ebanean, oiñez albo alboka asi zanean, ate ostean ostondu zanean eta kukuka ebillanean. Zenbat oroi gozo ezkontza-bizitzan.

**ZARTAROA.** Soiña gogortu ta astundu egin da, indarrak auldu, kemena joan. Alan be, seme-alabak ondoan ikustean, euren irribarre ta laztanak artzean. Illobatxuak altsoan edo besoetan eukitean, eurai ipuin zarrak eta edesti zarrak esatean, senbat poztasun, zenbat gozotasun-aldi zartzaroan be.

**ZENDIA.** Zorion iturri, zerua lurrean. Anai euskaldun; Jaungoikoa, erlejiñoa, oitura garbi ta euskerearen abi ta abaro izan bedi beti zure zendia.

Bai, zendia galtzen ba da, zatituten ba da, gizartea galduta dago, ba da zendia da gizartearen oiñarri ta babes-a. Zendia maite dauanak, maite al izango dau lagun-urkoa ta gizartea.

Ludi onetan ez dago ezer goragoririk lagun-urkoa maitatzea baiño bertako arazo gogorrek zuzentzeko. Baiña egiazko maitasuna izan bear dau, biotz-barnetik urte-ten dauana. Maitasuna egikerakaz agertzen da bakar barrarik. Lagun-urkoa maite dauanak maite dau Goiko-egillea, naiz ta berak zinizgabea dala esan. Gogora jatost ni-



re aitak beifñola esan eustan esaldi au, JAUNGOIKOAK GIZONARI EGIN LEIKION MEZEDERIK AUNDIA, BERE LAGUN-URKOARI LAGUNDU TA MEZEDE EGITEKO AUKEREA EMOTEA DA.

Ara emen, esaldi sakon ta mamintsu bat bene benetan. Egunero edo sarritan ausnartu bearreko esaldia. Gure gide izan daitela bizitza osoan.

### **Euskera gure izkuntza**

Gure izkuntza ta aberriarentzat garrantsitsua dala ikusirik, nire eskuetara eldu jatan orritxu bat, agertsera ausartu naz, euskotarrok ikusi daigun gure euskera erabilli ta zabaldu bear dogula, ez bakarrik geure geurea dalako, baita be bere gozo ta aberastasunagaitik, ba da kondairaren zear, ludi osoko kondairaren zear, zer esan ugari daukalako.

Ikusi daigun erbestetar gizon ospetsu batzuentzat, zein garrantsitsua dan gure izkuntza. "Front og Bro" aldiskarian agertu zan, Magunziako Ikastetxe Nagusian batzar baten, bertako irakasle Anton Hilman Jaunak egin dako itzaldia. Itzaldi au "Congreso de los Frisones del Norte" deritxon batzarrean, milla ta bedaratzireun eta berrogeita amairuko Urrilan Londohom uriar izan zan. Bere gaia "La intimidación de Europa" ta bere berbaldia erri txikientzaz izan zan eta Europa osoan galduriko izkuntzaren buruz.

Hilman irakaslea euskalduna da, ondo ezagutzen dau gure izkuntza ta gure erria. Gure erriaren eta euskerearen buruz au esan eban. Erderaz ipiñiko dot erdeldunak batez be irakurri daïen.

"Nadie en Europa conseguiría provecho alguno si, por

ejemplo, los Baskos que todavía hablan la única lengua que queda de la arcáica y prehistórica Europa, abandonasen su idioma para hablar el castellano o el francés. Si tal sucediera, Europa entera quedaría empobrecida, pues desaparecería una lengua que, como pocas, remonta a la más lejana antigüedad y puede dar la clave de grandes secretos y es que, en este aspecto, no solo muy interesante para la filología, sino objeto de veneración para todo hombre culto. El filólogo ruso Alexander Marr decía, debiera erigirse una torre de oro para guardar el pueblo basko y su idioma, a fin de que no desapareciera tan preciosa joya. Y en verdad, quién se beneficiaría de tal desaparición?. Vuelvo a insistir, todos quedaríamos empobrecidos, pues si sucediera esto, dejaría de existir en el mundo algo indeciblemente hermoso y simplemente precioso. Los baskos sobre todo y ellos antes que ningún otro, quedarían empobrecidos, muy empobrecidos.

Y si por desgracia el euskera viniera a morir, entonces nunca más quisiera volver a euskalerría, objeto para mi de tan inefable cariño. Se me figura que entonces un inmenso e indescriptible velo de luto se extendería sobre las azuladas montañas y verdes bosques de los Pirineos y la Naturaleza entera, la tierra y el cielo de cubrirían de luto, porque nunca jamás, les sería posible ya a los hombres descubrir allí ni conservar, lo hermoso, lo venerado y lo sagrado“.

Ara emen idazki pozgarri bat euskotarrantzat, gure erri ta gure izkuntzagaitik berba ain gozo ta goragarriak irakurtean, baiña nire poza makalduta geratzen da, gure izkuntza il-zorian ikusteaz. Nok gura dau urrezko pitxi eder bat galtzea?.

## Euzkadi ta euskerea

Azpalditik nengoan gai onen buruz zerbait idazteko. Al-bistari ta egunkarietan gure euskerea ez da zoritxarrez la-rregi agertzen eta gitxiago bizkaieraz. Beste alde batetik eztabaida gogorak dira azkenengo urteetan euskalkien buruz, batua ori dala ta. Naiz ta neure eretxia euki gai onetan, ni ez naz sartuko eztabaida onetan. Ona da eus-kereagaitik berba egitea, zenbat eta geiago obeto. Nik euskalki guztietako euskerea entzutea gura neuke, baiña euskara uts utsa kale ta toki guztietan, euskera garbia. Miñ izaten dot entzutean, "espero kantatu, salbatu, lan-postua eta abar". Ez ete dira esaten gure izkuntzan oneri dagokion beste batzuk. Euskera alkartua gura neuke, be-ne benetako euskerea, ez euskera nastaua.

Izkuntza erri batentzat garrantsi aundikoa dala, ba di-ñot, ez dot esango ezer barririk. Erri zapaltzailleak euren izkilluakaz batera eroan dabe beti euren izkuntza ta kultu-rea, beste erri bat menperatzeko. Lenen lenen egiten da-bena izaten da, dirua kendu ta izkuntza ta kulturea eurena jarriazo.

Diru barik ludi onetan ez dagoz ezer, dirua bear da guztirako. Atxilotuta geratzen da diru bako erri bat, diru-dunen menpean. Burura jatost gure Sabinen asmakizun bat. Apur bat aldatuta olan diño. Aitzu eizu zure izkuntza, bai, baiña atserritarra zure etxean sartutik kentzen ba dautsu zure azkatasuna ta zure dirua, orduan, ez negarrik egin. Gogoratu daigun, anai euskotarrok esaldi onen sakontasuna, ausnartu daiguzan egunero berba garran-tsitsu oneik, euki daiguzan beti gure gogoan.

Bere izkuntza ta kulturea zaintzen dauan erri bat, ez da iñoiz ilgo, menperatuta egongo da baiña ilda ez. Ez da-kit non eta ez nori be, baiña bein baten esaldi au irakurri neban. Erri batek bere zapaltzeaz, azkatasuna galtzen

dau, baiña bere izkuntza ta kulturea zaintzen ba dauz, azkatasunaren giltzak bere eskuetan daukaz. Ez daiguzan ba, galdu gilz onei.

Gogor jokaten dabe gure arerioak gure erriaren aurka, ta euskerea gure ezbardintasanaren ezaugarririk aundiena izanik, ez dira aitzuten beragaz gure arerioak. Baiña gure erantzuna gogorrenatarikoa izan bear dau. Nagi ta itxita-sunagaitik ez gaitez an izan gure izkuntzaren etsaiak. Euskal-abertzaleok, ernaitu gaitez an, beartuta gagoz euske-reagaitik lan gogorra ta egunerokoa egiteko, euskerea garbitu, aunditu ta batez be kale, lantegi, ikastetxe, jolas-tetxe ta toki guztietara atara. Olan egiten ez ba dogu, errudun izango gara kondairaren aurrean, berak auzituko gaitu ta epaia ezin izango da txalogarria guretzat. Errudun, ez gure arriaren aurrean bakarrik, baita be ludi guztian aurrean, ba da euskotarrak izanik gure izkuntzaren arduradunak gara. Mendez-mende zigorkada aundiak artu dauz euskereak alde guztietatik, baiña ezin izan dabe il, ondiño eze dago ta lora barriak emoten dauz eta danon alegiñez gure naia lortuko dogu. Euzkadi guztiz euskaldun baten azkatasuna.

## EDICIONES ALDERDI ARGITALDARIA

### Libros editados

#### **Colección Biografías:**

- Jesús de Galíndez, el Delegado Vasco víctima de Trujillo por Pedro de Basaldúa.
- Doroteo de Ziáurriz, Presidente del Euzkadi Buru Batzar. (1935-1951) por Jesús María de Leizaola. Julio Jaúregui, Parlamentario y negociador vasco.

#### **Colección Estudios Europeos:**

- Alcide de Gasperi. Edición homenaje en el centenario de su nacimiento.
- Europa. Pays Basque. P.N.V.

#### **Colección Documentos:**

- Escritos en Alderdi. Artículos de Francisco Javier de Landaburu.
- Escritos en Alderdi. Artículos de Manuel de Irujo (dos volúmenes)
- Nacionalismo Vasco. Ayer, hoy y mañana. (Conferencias de Anasagasti, Ardanza y Arzalluz con motivo del noventa aniversario de E.A.J.-P.N.V.).
- La organización del Partido Nacionalista Vasco. (Estatutos y Reglamentos internos a lo largo de su historia).
- P.N.V. y Educación.

#### **Colección Memorias de un Pueblo en Marcha:**

- Memoria de un Pueblo en Marcha por Koldo San Sebastián.
- Nacionalistas 1903-1930.
- Aingeru Zabala "Kondaño". Primeros años del P.N.V. Prólogo de Jesús María de Leizaola.
- Nacionalismo y Heterodoxia. Jesús de Sarría por Koldo San Sebastián.
- Artículos Políticos. Jesús de Galíndez (1943-1956).
- El Nacionalismo Vasco entre dos Dictaduras (1930-1937).

#### **Colección Cuentos:**

- Otazua.

#### **Libros en preparación**

- Historia de los Batzokis en Bizkaia por Iñigo Camino.
- José María Lasarte.
- Cincuenta años del primer Estatuto de Autonomía.

